EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Espezifikoa

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

# FAMILIEN ETA FAMILIA-ETXEETAKO INKESTA FFEI-2019)

*2021eko abenduaren 22a*

*Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa*

## TXOSTENAREN EDUKIA


**HITZAURREA .......... 9**

**Txostenaren edukia: .......... 11**

**EAEko familia-etxe eta familietarako hurbilketaren alderdi orokorrak .......... 12**

**EMAITZA NAGUSIAK .......... 15**

**1. Familien eta familia-etxeen oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak .......... 17**

**1.1. Familien eta familia-etxeen egitura .......... 17**

1.1.1. 2019ko egoera 17

1.1.2. Familien eta familia-etxeen egituran behatutako aldaketa nagusiak 18

Pertsona bakarreko familia-etxeen, guraso izan aurreko ezkontzazko familia-etxeen, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen familia-etxeen, guraso bakarreko familia-etxeen eta nukleo anitzeko familia-etxeen pisu erlatiboak gora egin du. .......... 18

Modu deigarrian murriztu dira mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeak eta seme-alabak dauzkaten ezkondu ondoko etxeak .......... 19

Dena dela, ezkontza edo bikotea nukleo nagusi duten etxeen nukleoak goranzko joera dauka .......... 20

Ezkontza edo bikoteetan, bigarren edo geroagoko loturek gora egin dute, baina, oraindik orain, kasuen ehunekoa ez da handia .......... 22

**1.2. Adierazle demografiko nagusien bilakaera .......... 23**

1.2.1. Familia-etxeen eta familien batez besteko tamainak behera egiten jarraitzen du 23

1.2.2. Etxeko erreferentziazko pertsonen artean, emakumeek jarraitzen dute pisu handiena izaten 25

Halere, beheranzko joera ikusi da 2015etik 2019ra, pertsona bakarreko etxeetan eta guraso bakarreko familietan .......... 25

1.2.3. Familia-etxeen eta familien zahartze-prozesuak aurrera jarraitzen du 26

Etxeko erreferentziazko pertsonen batez besteko adina altua da, eta 2015etik 2019ra bitartean gora egin du .......... 26

Familia-nukleo batean oinarrituta ez dauden etxeetan, adinekoen ehunekoak gora egin du .......... 28

1.2.4. Aldi berean, adingabekoek familia-etxe eta familietan duten pisua murriztu egin da 29

Halere, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, gora egin du 16 eta 29 urte bitarteko ikasleak dauzkatenen ehunekoak .......... 29

1.2.5. Jatorri atzerritarreko herritarrek gero eta presentzia handiagoa daukate familia eta familia-etxe mota jakin batzuetan 30

**2. Familien eta familia-etxeen ezaugarri sozial nagusiak .......... 33**

**2.1. Jarduerarekiko harremana .......... 33**

2.1.1. Alderdi orokorrak 33

2.1.2. Familien okupazio-egoerak hobera egin du 2015aren eta 2019aren artean, nabarmen 33
Okupazioaren igoera ... 35
Langabeziaren jaitsiera ... 37
Enplegu prekarioenen dinamikan dauden desberdintasunak, familia-etxe eta familia motaren arabera ... 40
2.1.3. Langabeziaren eta/edo enplegu prekarioaren inpaktua murriztu egin da, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan izan ezik 42
2.1.4. Familien eta familia-etxeen tipologia, okupazioari dagokionez, 2019an 43
Lan-jarduerara orientatuago dauden eta prekarietate-egoera gutxiago dauzkaten familia-etxeak, oro har, guraso izan aurreko ezkontzazkoak eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoenak dira. ... 43
Tarteko tokian dauden mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten etxe nuklearrak, nukleo anitzeko etxeak eta pertsona bakarreko etxeak ... 43
Familia-nukleo batean oinarrituta ez dauden etxeak eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiak prekarioagoak dira ... 44
Laneko prekarietatearen inpakturik txikiena guraso izan ondoko ezkontzazko etxeek daukate ... 46
**2.2. Prekarietate ekonomikoa eta pobrezia ... 46**
2.2.1. Diru-sarrerak edukitzeko arazoak eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) edota etxebizitzarako prestazio osagarriaren (EPO) premia 46
2.2.2. Pobreziaren eta prekarietate ekonomikoaren adierazleak 47
1 eta 15 urte arteko adingabeen prekarietate-adierazleak ... 48
Bizi-baldintzei eta etxebizitzetako ekipamenduari buruzko adierazleak ... 48
Pobreziaren pertzepzio subjektiboa ... 50
2.2.3. Prekarietate ekonomikoaren mailetan dauden desberdintasunak, familia eta familia-etxe moten arabera 51
DSBE/EPO sistemarekiko mendekotasun handiagoa dago pertsona bakarreko etxeetan, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, nukleorik gabeko etxe familiarretan eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan ... 51
Ezkontzan edo bikotean oinarritzen diren familietako erreferentziazko pertsonen artean, diru-sarreren gabeziaren proportzioa handia da, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeak kenduta ... 52
**2.3. Etxebizitza eskuratzearen inguruko alderdiak ... 53**
2.3.1. Etxebizitza eskuratzeko moduak, familia-etxe eta familia moten arabera 53
Jabekidetza seme-alabak dauzkaten ezkontzazko eta gurasoen etxe gehienetan ... 53
Pertsona bakarrera mugatutako jabetza pertsona bakarreko etxeetan eta guraso bakarreko familietan .. 53
Alokairuaren pisua, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan ... 54
Jabekidetza murritza da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan ... 54
2.3.2. 2015etik 2019ra bitartean ikusitako aldaketa nagusiak 56
Pertsona bakarreko jabetzak aurrera egin du ... 56
Jabekidetza mistoak ere aurrera egin du ... 56
Alokairua atzerantz ... 57

**3. Familietan eta familia-etxeetan hautemandako gizarte-arazoak ........................ 59**

**3.1. Familia eta familia-etxeen arazo orokorrak ........................................................ 59**

3.1.1. Etxebizitza-arazoak 59

Talderik kaltetuenak: senideak ez diren pertsona anitzekoak, nukleorik gabeko familiarrak, guraso bakarreko familiak eta nukleo anitzeko etxeak ........................................ 61

3.1.2. Diru-sarrerekin zerikusia daukaten arazoak 62

Talderik kaltetuenak: senideak ez diren pertsona anitzekoak, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarrekoak eta nukleo anitzekoak (halere, arazoak alderdi garrantzitsuak dauzka, baita ere, pertsona bakarreko etxeetan edo nukleorik gabeko etxe familiarretan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan) ........................................ 63

3.1.3. Lanarekin zerikusia daukaten arazoak 64

Talderik kaltetuenen artean, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeak, gurasoen etxeak, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeak eta nukleo anitzeko etxeak daude. Intzidentzia larria altua da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan ere ........................................ 66

3.1.4. Seme-alabekin zerikusia daukaten arazoak 68

Arazo horiek seme-alabak dauzkaten askotariko familia motetan duten intzidentzia ........................................ 69

3.1.5. Adinekoei ematen zaien arretarekin zerikusia daukaten arazoak 70

Adinekoei ematen zaien arretaren inguruko arazoen intzidentziak mailarik altuenak dauzka gurasoen etxeetan, guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan ........................................ 72

3.1.6. Osasunarekin zerikusia daukaten arazoak 73

Osasun-arazoen intzidentzia altua da familia mota ia guztietan, eta guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan bakarrik mugatzen da ........................ 74

3.1.7. Bizikidetza-arazoak 75

Bizikidetza-arazoen intzidentzia mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan bakarrik urruntzen da batez besteko zifretatik ........................................ 77

3.1.8. Diskriminazio-arazoak 77

**3.2. Familia eta familia-etxeetako lehentasunezko arazoak ........................................ 79**

3.2.1. Behatutako lehentasunezko arazoen bilakaera 83

Enpleguarekin zerikusia daukaten arazoek garrantzitsuenak izaten jarraitzen dute euskal familientzat, baina arazoon inpaktua nabarmen murriztu da ........................................ 83

Halaber, bizi-kalitatearekin zerikusia duten arazoen inpaktua murriztu da (gabezia ekonomikoak eta etxebizitza eskuratzeko aukerak) ........................................ 84

Enpleguaren egoera eta bizi-baldintza orokorrak hobetu izanaren ondorioz, seme-alaben etorkizunarekiko kezka gutxitu da ........................................ 87

Aitzitik, gaixotasunari, desgaitasunari edo mendekotasunari lotutako problematikak gora egin du .......... 87

Beste arazo batzuk ........................................ 89

3.2.2. Gizarte-arazoen lehentasunezko intzidentzian dauden desberdintasunak, familia-etxe edo familia motaren arabera 91

Langabeziarekin eta enpleguarekin zerikusia daukaten arazoak lehentasunezkoak dira guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan, gurasoen askotariko etxe motetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan ... 94

Bizi-baldintzekin zerikusia daukaten arazoek lehentasunezko intzidentzia handia daukate pertsona bakarreko etxeetan, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, nukleo anitzeko etxeetan eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan ... 95

Gaixotasunarekin, desgaitasunarekin edo mendekotasunarekin zerikusia daukaten arazoak erabakigarriak dira nukleorik gabeko etxe familiarretan eta guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan ... 96

Zainketekin, egoera sozial eta familiarrarekin eta diskriminazio-moduekin zerikusia daukaten arazoak EAEko maila orokorretatik gora daude, argi eta garbi, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan eta, oro har, guraso bakarreko familietan ... 96

Seme-alaben etorkizunarekiko kezka egonkor mantendu da mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan ... 97

Pertsona bakarreko etxeek eta ezkontzazko etxeek (seme-alabarik gabeko nuklearrek) daukate lehentasunezko arazorik gabeko etxeen proportziorik handiena ... 97

***4. Familiek eta familia-etxeek parez pare dauzkaten arreta-kargak ... 99***

**4.1. Lana eta etxeko jarduera bateragarri egitea ... 99**

4.1.1. Lana etetea edo uztea dakarten kargak 99

4.1.2. Gainkarga lan-jardueran eta etxeko jardueran 103

**4.2. Arreta etengabea behar duten mendekotasun-egoerak ... 104**

4.2.1. Mendekotasuna duen kideren bat duten etxeak. 104

4.2.2. Mendekotasuna dutenei ematen zaien arreta 106

4.2.3. 0-3 urteko adingabeei ematen zaien arreta 108

***5. Familien eta familia-etxeen aldeko neurri sozialen ezagutza eta erabilera ... 111***

**5.1. Familiei eta familia-etxeei laguntzeko neurrien eta programen ezagutza ... 111**

Jaiotza edo adopzioagatiko laguntzak ... 111

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak ... 112

Prestazioak eta laguntza ekonomikoak ... 113

Beste neurri eta programa batzuk ... 113

**5.2. Familiei eta familia-etxeei laguntzeko neurrien eta programen erabilera ... 116**

Familientzako laguntzak ... 116

Prestazioak eta laguntza ekonomikoak ... 116

Beste neurri eta programa batzuk ... 117

*ERANSKINA: TAULA OSAGARRI LAGUNGARRIAK* .......................................... *119*

*ALDERDI METODOLOGIKOAK* .......................................................................... *129*

**Alderdi orokorrak** ............................................................................................................ **129**

**Familia-nukleoa** ................................................................................................................ **130**

Ezkontza edo bikote batean oinarritutako nukleoen alderdi espezifikoak 130

Familia-nukleoaren barruko harreman mota ........................................................................ 130

Nukleoaren jatorria ........................................................................................................... 130

Seme-alabekiko harremana ................................................................................................ 131

Familia-nukleoan edo etxeko oinarrian sartuta ez dauden pertsonak 131

**Erreferentziazko pertsonak** ................................................................................................ **131**

**Jarduerarekiko harremana** ................................................................................................ **131**

**Diru-sarrerak edukitzea** ...................................................................................................... **132**

**Etxebizitzaren edukitze-erregimena** .................................................................................. **132**

**Desgaitasun-egoeren presentzia** ....................................................................................... **133**

Mendekotasunaren eskalan dauden tokiak 133

Mendekotasun iraunkorra duten biztanleak 133

**Beste aldagai soziodemografiko batzuk** ............................................................................ **133**

Jatorrizko nazionalitatea 133

Ikasleak 134

Aintzat hartutako gizarte-arazoak 134

**Askotariko gizarte-arazoen adierazleak** ............................................................................ **136**

Gizarte-arazoen garrantziaren eta larritasunaren adierazleak 136

Garrantziaren indizea 137

Larritasun-indizea 137

**Programa jakin batzuen ezagutza** ..................................................................................... **137**

Neurrien premia 137

Neurriak jasotzea 137

Neurrien baliagarritasuna 138

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# HITZAURREA

## Txostenaren edukia:

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoak (EOE) **Familien eta Familia-Etxeetako Inkestaren** (FFEI, 2019) emaitzak aurkezten ditu txosten honetan.

Euskal Estatistika Planak jasotzen eta Eusko Jaurlaritzaren sail horrek gidatzen duen **Euskal familien eta familia-etxeetako arazo sozialak** deituriko eragiketa modu praktikoan jorratzen du FFEIk. Bada, EAEko familia-etxeetako eta familien arazoak eta premiak ezagutzea da estatistika-eragiketa horren helburua, baita familiei laguntzeko programek zer-nolako inpaktua duten jakitea ere.

Txosten honetan, FFEIren emaitzak aurkeztuko dira, modu sintetikoan aurkeztu ere, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) familien eta familia-etxeen alderdi hauei dagokienez:

a) Familien eta familia-etxeen eta familiako kideen ezaugarri demografiko eta sozial nagusiak.

b) Familiek eta familia-etxeek aurrez aurre dauzkaten problematika eta gizarte-premia nagusiak.

c) Familia-etxe eta familietako kideen arazo nagusietan ikusitako aldaketak.

d) Adingabekoen eta mendekoen arreta-kargak, euskal biztanleei eragiten dieten heinean.

e) Erakunde publikoek familien alde garatzen dituzten neurri, programa eta prestazio nagusien ezagutza-maila.

Txostenean, euskal familiek eta familia-etxeek aintzat hartu diren askotariko dimentsioetan dauzkaten desberdintasunak jorratzen dira, gaur egungo familien eta familia-etxeen tipologia kontuan hartuta.

FFEI 2019ren emaitzak modu sintetikoan aurkeztuko dira, gogoa alderdirik adierazgarrienetara bilduz. FFEIren estatistika-taulek (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren webaren estatistika-atalean eskuratu daitezke) informazio osagarria ematen dute, estatistika-eragiketan jorratutako askotariko alderdiak xehetasun handiagoz ezagutu nahi badira ere.

Zehaztu beharra dago FFEI 2019k berriro heldu diola familia-gaietako zuzendaritza eskudunak mendearen hasieran abiatu zuen egitasmo estatistikoari. Egitasmo hartan, FFEIren aitzindariak izan ziren bi eragiketa egin ziren (2004an bata, 2008an bestea). Bi eragiketa haien edukia gaur egungo FFEIrenaren oso antzekoa da.

Eragiketa, Euskal Estatistika Planari txertatu ondoren, FFEI 2015ean eguneratu zen lehen aldiz, zegokion txostenarekin batera. Txosten honek gaiaren inguruko ezagutza eguneratzen du, 2015etik 2019ra behatutako bilakaera zehatz-mehatz aztertuz.

## EAEko familia-etxe eta familietarako hurbilketaren alderdi orokorrak

Eragiketaren metodologiari jarraikiz, inkesta bat egin zaie ausaz atera den eta FFEIren jarduketa-oinarria eratzen duen familia-etxeen laginean sartuta dauden etxe eta familiei.

FFEI urte osoan edo urtearen zatirik handienean ohiko bizileku gisa erabiltzen diren familia-etxeei zuzenduta dago. Eragiketa Euskal Autonomia Erkidegoan garatu da, eta, beraz, EAEren eta bere lurralde historikoen eremu geografikoari buruzko informazioa ematen du[1].

FFEIk galdetegi espezifiko batetik ateratzen ditu datuak; hain zuzen ere, euskal familien eta etxeen ezaugarriei eta eragiten dieten problematikei buruzko informazioa biltzeko galdetegi batetik. Hala, FFEIk informazioa biltzeko erabiltzen duen familia-etxeen laginaren zati diren pertsonek eta familia-nukleoek osatzen dute datuak biltzeko erreferentziazko biztanleria.

Familia-gaietako sail eskudunak (gaur egun, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila da) arlo honetan egindako lehenengo ikerketatik (2004) erabiltzen duen familia- eta etxe-tipologia berbera erabiltzen du FFEIk. Horrela, etxebizitzan elkarrekin bizi diren kideei eta beren ahaidetasun-harremanei erreparatuta, **bost familia-etxe mota handi** bereiz daitezke hasiera batean:

1. Pertsona bakarrekoak.
2. Senideak ez diren pertsona anitzekoak, beren artean ahaidetasun-harremanik ez duten bi pertsonak edo gehiagok osatzen dituztenak.
3. Nukleorik gabeko familiarrak, beren artean ahaideak diren baina ezkontzazko edo seme-alabatasunezko harremanik ez duten bi pertsonak edo gehiagok osatzen dituztenak.
4. Nukleo bakarrekoak edo nuklearrak, familia-nukleo bakarrak osatzen dituztenak[2]. Seme-alabarik ez duten bikoteek, seme-alabak dauzkaten bikoteek eta seme-alabak dauzkan guraso bakarrak osatzen dituzte nukleo bakarreko familiak.
5. Nukleo anitzekoak, bi nukleok edo gehiagok etxea partekatzen dutenean.

Lehenengo bi motetan, berez, ezin daiteke familiaz hitz egin, ez dagoelako ahaidetasunaren bidez elkarri lotutako pertsonarik eta horixe delako familiaren lehen bereizgarria. Alabaina, FFEIren

---

[1] Laginaren diseinuak aintzat hartzen du sailaren EOEk erabili ohi duen eskualde-egitura. Txosten honetan, alabaina, ez da sakontzen lurraldearen arabera familien eta familia-etxeen egoeran egon daitezkeen desberdintasunetan. Txostenak, beraz, Euskal Autonomia Erkidego osoan dagoen egoera aurkezten du, oro har.

[2] FFEIren hurbilketan nukleoa egon dadin, seme-alabatasunezko edo ezkontzazko harremanaren edo antzeko harreman baten bidez (izatezko edo zuzenbidezko bikoteak) lotutako bi pertsona egon behar dira.

ondoreetarako, familia-etxea osatzen dute; praktikan (estatistika-ustiapenean), familiari berdintzen zaion kontzeptua da hori.

Laugarren mota, oinarri nuklearra duena, hainbat azpimotatan banatu daiteke, familia-nukleoaren arabera. Azpimotek zerikusi handia dute familiaren bizi-zikloarekin, baina baita nukleoa eratzen duen harreman motarekin ere (ezkontza edo seme-alabatasuna).

Horri jarraikiz, FFEIn honako hauek bereizten dira:

a) **Ezkontzazko** lau nukleo mota daude (ezkontza- edo bikote-harremanean oinarritzen dira):

* **Guraso izan aurrekoa** (hau da, seme-alabak jaio aurretikoa).

* **Gurasoak, mendeko seme-alabekin.**

* **Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin.**

* **Guraso izan ondokoa** (seme-alabak emantzipatu ondorengoa).

Mendeko seme-alabak egoteak adierazi nahi du 18 urtetik beherako seme edo alabaren bat familia-etxean bizi dela. Egoera hori beste familia batzuetan ere gertatzen da: lanik gabeko 18 eta 29 urte bitarteko seme edo alabaren bat duten familietan eta desgaitasunen bat duten 30 urteko edo gehiagoko seme edo alabaren bat dutenetan.

Mendeko seme-alabarik ez dagoela balioesten da 18 eta 29 urte arteko seme-alabak gurasoekin bizi direnean, baldin eta lan egiten badute, edo 30 urtetik gorakoak gurasoekin bizi direnean, baldin eta desgaitasunik ez badute.

Bestalde, mendekoak diren edo mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten ezkontzazko familia-etxeak ez bezala, zeinak seme-alabadun familia-etxe nuklearrak baitira, guraso izan aurreko eta guraso izan ondoko ezkontzazko familia-etxeek seme-alabarik gabeko familia-etxe nuklearren kategoria espezifikoa osatzen dute.

b) **Ezkondu ondoko** bi nukleo mota daude (bikotekide bat hil denean edo bikotea banandu/dibortziatu denean), seme-alabak mendekoak izan ala ez, lehen adierazitako irizpideekin bat.

c) **Ezkontzazkoak ez diren** bi nukleo mota daude, **guraso bakarreko nukleo hertsiak** biak, mendeko seme-alabak egon ala ez egon bereizten direnak.

Zentzu hertsian, familia-etxe nuklearrentzat ezarritako azpibanaketa bera ezar dakieke bosgarren mota (nukleo anitzekoa) osatzen duten barne-nukleoei ere. Hala ere, familia-etxe horien kopurua txikia denez eta barne-mailan askotariko konfigurazioak egoten direnez, egokiago ikusi dugu mota bakarra izendatzea; hau da, nukleo anitzeko oinarria.

Bestetik, txostenaren garapenean, ezkondu ondokoak eta guraso bakarrekoak fusionatu ditugu emaitzak eta analisiak aurkezteko orduan. Guraso bakarreko familia gisa izendatu ditugu oro har, eta barne-mailan bereizi, etxean bizi diren seme-alabak mendekoak izan ala ez[3].

[3] Guraso bakarreko eta ezkondu ondoko familia-etxeak talde berean bildu ditugu, *guraso bakarrekoen* kategorian bildu ere, guraso bakarreko familia-etxe hertsiek pisu txikia dutelako laginean. Bestalde, sortutako talde horretan, *guraso bakarreko* terminoa erabili dugu, modu formalean, gizartean esapide hori erabiltzen delako gehien familia-kontzeptu horren edukiari buruz aritzeko. Testuinguru horretan, ezkondu ondoko familia-etxeak guraso bakarreko familia-etxetzat har daitezke, zentzu zabalean.

Talde hori oro har erabili dugu, 1. taulan izan ezik, familia-etxe eta familia mota guztien pisua jasotzen baita bertan. Taula horretan, beraz, familia-etxeen eta familien sailkapen orokorra aurkezten da, ezkondu ondoko familia-etxeen eta guraso bakarreko familia-etxe hertsien datuak bereizita.

# EMAITZA NAGUSIAK

# 1. Familien eta familia-etxeen oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak

## 1.1. Familien eta familia-etxeen egitura

### *1.1.1. 2019ko egoera*

1. taulan ikus daitekeen moduan, 2019an, familia-harreman motaren batek lotzen dituen pertsona-taldeen inguruan egituratzen dira euskal familia-etxeen % 69,6. EAEn, horrelako familia-etxeetan bizi dira guztizko biztanleen % 86,7.

**1. taula**
**Familia-etxeak/familiak eta biztanleria, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

| | 2015 | | 2019 | | 2015 | | 2019 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Familia-etxeak | | Familia-etxeak | | Pertsonak | | Pertsonak | |
| Motak | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. | Abs. | % ber. |
| **GUZTIRA** | **863.556** | **100,0** | **913.650** | **100,0** | **2.144.989** | **100,0** | **2.199.981** | **100,0** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 215.636 | 25,0 | 263.073 | 28,8 | 215.636 | 10,1 | 263.073 | 12,0 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA | 15.728 | 1,8 | 15.067 | 1,6 | 38.752 | 1,8 | 29.849 | 1,4 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 15.629 | 1,8 | 14.502 | 1,6 | 34.974 | 1,6 | 32.225 | 1,5 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 198.650 | 23,0 | 209.829 | 23,0 | 414.369 | 19,3 | 433.731 | 19,7 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 45.190 | 5,2 | 55.723 | 6,1 | 95.084 | 4,4 | 116.269 | 5,3 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 153.460 | 17,8 | 154.106 | 16,9 | 319.285 | 14,9 | 317.462 | 14,4 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 308.602 | 35,7 | 305.140 | 33,4 | 1.132.131 | 52,8 | 1.121.763 | 51,0 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 245.705 | 28,5 | 234.582 | 25,7 | 923.563 | 43,1 | 896.406 | 40,7 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme- | 62.898 | 7,3 | 70.558 | 7,7 | 208.568 | 9,7 | 225.357 | 10,2 |
| GURASO BAKARREKOA | 95.048 | 11,0 | 84.233 | 9,2 | 234.378 | 10,9 | 209.620 | 9,5 |
| Ezkondu ondokoak, mendeko seme- | 40.195 | 4,7 | 33.719 | 3,7 | 105.654 | 4,9 | 88.388 | 4,0 |
| Ezkondu ondokoak, mendekoak ez diren | 44.322 | 5,1 | 28.011 | 3,1 | 102.174 | 4,8 | 64.787 | 2,9 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme- | 9.129 | 1,1 | 15.440 | 1,7 | 23.321 | 1,1 | 40.306 | 1,8 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren | 1.402 | 0,2 | 7.062 | 0,8 | 3.230 | 0,2 | 16.139 | 0,7 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 14.262 | 1,7 | 21.808 | 2,4 | 74.749 | 3,5 | 109.720 | 5,0 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Ia-ia kasu guztietan, familia-oinarria duten familia-etxeak familia-nukleo baten edo batzuen inguruan egituratzen dira 2019an: mota horretakoak dira familia-etxeen % 97,7, eta pertsonen % 98,3 etxe horietan bizi dira. 2019an, familia-oinarria duten familia-etxeen % 2,3 baino ez dira nukleo baten inguruan egituratu gabeko familia-bizikidetzak, eta guztizko biztanleriaren % 1,7 bizi da etxe mota horietan.

Familia-etxe guztiei dagokienez, nukleorik gabeko familia-etxeak guztizko familia-etxeen % 1,6 dira 2019an, eta biztanleen % 1,5 bizi dira horietan. Nukleoa duten familia-etxeak guztizko familia-etxeen % 68 dira, eta biztanleen % 85,2 bizi dira horietan.

Familia-nukleo bakarra duten etxeen artean, seme-alabadun gurasoena da mota ugariena. 2019an, guztizko familia-etxeen % 33,4 dira horiek, eta biztanle gehienak horrelako etxeetan bizi dira, guztizkoaren % 51. Gurasoen etxeetan, mendeko seme-alabak dauzkatenak dira nagusi. Etxe guztien % 25,7 dira horiek, eta guztizko biztanleen % 40,7 bizi dira horietan (% 7,7 eta % 10,2, hurrenez hurren, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeei dagokienez).

Seme-alabarik gabe ezkontza- edo bikote-nukleoan oinarritzen diren ezkontzazko familia-etxeak etxeen % 23 dira, eta familia-etxeetan bizi diren herritarren % 19,7 hartzen dituzte. Horien barruan, guraso izan ondoko ezkontzazko etxeak dira nagusi: guztizko etxeen % 16,9 eta biztanleen % 14,4. Guraso izan aurreko ezkontzazko familia-etxeak guztizkoaren % 6,1 dira, eta EAEko guztizko herritarren % 5,3 bizi dira horrela.

Multzoan hartuta, ezkontza edo guraso motako familia-egiturak dira nagusi, guztizkoaren % 56,4. EAEn familia-etxeetan bizi direnen % 70,7 hartzen dituzte.

Guraso bakarreko familia-etxeak, zeinak seme-alabak dituzten guraso bakarrek osatzen baitituzte, etxe guztien % 9,2 dira, eta EAEko biztanleen % 9,5 bizi dira familia mota horietan. Etxe mota horien barruan, ezkondu ondokoak dira nagusi, eta horien % 3,7k mendeko seme-alabak dauzkate, eta % 3,1ek mendekoak ez diren seme-alabak (% 4 eta % 2,9, guztizko biztanlerian). Guraso bakarreko familia-etxe hertsiak guztizkoaren % 2,5 dira, eta guztizko herritarren % 2,5 bizi dira horrelako familietan.

Nukleo anitzeko etxeak (hau da, familia-nukleo bat baino gehiago dauzkaten etxeak) guztizkoaren % 2,4 dira. EAEn familia-etxeetan bizi direnen % 5 hartzen dituzte.

Familia-bizikidetzatik kanpo, etxeen % 28,8 pertsona bakarrekoak direla eta % 1,6 beren artean familia-loturarik gabeko bi pertsonak edo gehiagok osatzen dituztela (senideak ez diren pertsona anitzekoak) egiaztatu da. Bigarren talde horretan, guztizko biztanleriaren % 1,4 bizi da; pertsona bakarreko etxeetan, berriz, aintzat hartutako biztanleen % 12 bizi dira.

### *1.1.2. Familien eta familia-etxeen egituran behatutako aldaketa nagusiak*

1. taulatik abiatuta, EAEko familien eta familia-etxeen egiturak 2015-2019 aldian izan duen dinamika aztertu dugu, eta honako aldaketa nagusi hauek gertatu direla ikusi:

*Pertsona bakarreko familia-etxeen, guraso izan aurreko ezkontzazko familia-etxeen, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen familia-etxeen, guraso bakarreko familia-etxeen eta nukleo anitzeko familia-etxeen pisu erlatiboak gora egin du.*

2015etik 2019ra bitartean, pertsona bakarreko etxeena izan da familia-egituraren barruan pisu erlatiboa gehien handitu duen taldea. Etxe horien ehunekoa % 25,0tik % 28,8ra igo da aztertutako aldian (+3,8 portzentaje-puntu). Familia-etxeetako biztanle guztiei dagokienez, 2015ean herritarren % 10,1 bizi ziren mota horretako etxeetan, eta, 2019an, % 12 (+1,9 portzentaje-puntu).

Oinarri nuklearra duten zenbait familia-etxek ere parte-hartzea handitu dute aldi horretan. Horien artean, lehenik, ezkontza- edo bikote-egituretan oinarritutako bi familia-etxe mota aipatu behar ditugu. Batetik, guraso izan aurreko ezkontzazko familia-etxeak daude, hau da, seme-alabarik gabekoak. Familia mota horrek familia-etxeen egituran daukan pisua % 5,2koa izatetik % 6,1ekoa izatera pasa da 2015-2019 aldian, eta guztizko biztanleriaren partaidetza % 4,4tik % 5,3ra igo da.

Familia-egituran pisua handitu duen beste familia mota mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoena da (hortaz, noizbait independizatu ahalko diren seme-alabak dauzkate). Kasu horrek familia-egituran duen pisuak % 7,3tik % 7,7ra egin du gora 2015etik 2019ra bitartean. Guztizko biztanleen parte-hartzeari dagokionez, pisua % 9,7tik % 10,2ra igo da.

Multzoan hartuta, ezkontza- edo bikote-oinarridun bi familia-etxe mota horiek familia-etxe guztien % 12,5 ziren 2015ean; 2019an, berriz, % 13,8 (+1,3 portzentaje-puntu; pertsona bakarreko etxeekin ikusitakoaren azpitik, argi eta garbi). Igoera antzekoa da biztanleen pisuan: % 14,1etik % 15,5era igo da 2015-2019 aldian (+1,4 portzentaje-puntu, pertsona bakarreko etxeekin ikusitakoaren azpitik baita ere, baina zertxobait hurbilago).

Familia-egituran pisua handitzen ari den beste talde nuklear bat guraso bakarreko familia-etxe hertsiena da, ezkondu ondokoak aintzat hartu gabe. Familia-egituran nahiz biztanlerian, talde horren ehunekoa 2015ean % 1,3koa izatetik 2019an % 2,5ekoa izatera pasa da (+1,2 portzentaje-puntu).

Azkenik, nukleo anitzeko familia-etxeen pisu erlatiboak % 1,7tik % 2,4ra egin du gora 2015-2019 aldian (+0,7 portzentaje-puntu). Familia-etxe horien batez besteko tamaina handiagoa denez, biztanleen pisuak hazkunde deigarriagoa izan du, % 3,5etik % 5,0ra (+1,5 portzentaje-puntu, pertsona bakarreko etxeen azpitik bakarrik).

Multzoan hartuta, aipatutako familia-etxe motak guztizko familia-etxeen % 40,5 ziren 2015ean, eta % 47,5 2019an (+7,0 portzentaje-puntu). Biztanleriari dagokionez, nukleo anitzeko etxeak kenduta, familiek batezbestekotik beherako tamaina daukate batez beste, eta, beraz, guztizko biztanlerian daukaten pisua ez da hain adierazgarria. Horren ondorioz, biztanleria-dimentsio horren igoera zertxobait txikiagoa da. Hala ere, familia mota horiek familia-etxeetako guztizko biztanlerian duten pisu erlatiboa % 29,0tik (2015) % 35era (2019) igo da (+6,0 portzentaje-puntu).

*Modu deigarrian murriztu dira mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeak eta seme-alabak dauzkaten ezkondu ondoko etxeak*

Aurretik adierazitako dinamikarekin kontrastean, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeen parte-hartzea izugarri jaitsi da familia-egituran, pisua % 28,5etik % 25,7ra jaitsi baita 2015aren eta 2019aren artean (-2,8 portzentaje-puntu). Guztizko biztanlerian, etxe horien pisua % 43,1etik % 40,7ra jaitsi da 2015-2019 aldian (-2,4 portzentaje-puntu).

Familia-egituran pisua galdu duen beste familia mota seme-alabak dauzkaten ezkondu ondoko etxeena da, seme-alabak mendekoak izan zein ez izan. Kasu horretan, 2015etik 2019ra bitartean, familia-egituran duen pisua % 9,8koa izatetik % 6,8ra jaitsi da (-3,0 portzentaje-puntu), eta guztizko biztanlerian duen parte-hartzea % 9,7tik % 6,9ra (-2,8 portzentaje-puntu). Ikus daitekeenez, familia-egituran pisu mugatua duen taldea bada ere, jaitsiera oso handia izan da, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeek 2015etik 2019ra bitartean izandakoa baino handiagoa.

Multzoan hartuta, bi familia-etxe mota horiek etxeen % 38,3 ziren 2015ean; 2019an, baina, % 32,5era jaitsi da ehuneko hori (-5,8 portzentaje-puntu). Gainera, EAEko familia-etxeetako biztanleen gehiengoa biltzeari utzi diote, 2019an guztizkoaren % 47,6 baitira. Proportzio horrek -5,2 portzentaje-puntu egin ditu behera, 2015eko % 52,8rekin alderatuz gero.

Modu neurritsuagoan, guraso izan ondoko ezkontzazko familien pisu erlatiboa ere jaitsi egin da: % 17,8tik % 16,9ra 2015-2019 aldian, familiei dagokienez (-0,9 portzentaje-puntu), eta % 14,9tik % 14,4ra, biztanleei dagokienez (-0,5 portzentaje-puntu).

Gauza bera gertatu da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeekin eta nukleorik gabeko familiarrekin. Multzoan hartuta, familia-etxe horiek egitura orokorrean duten pisua % 3,6tik % 3,2ra jaitsi da 2015aren eta 2019aren artean (-0,4 portzentaje-puntu); guztizko biztanlerian duten parte-hartzea, aldiz, % 3,4tik % 2,9ra jaitsi da (-0,5 portzentaje-puntu).

*Dena dela, ezkontza edo bikotea nukleo nagusi duten etxeen nukleoak goranzko joera dauka*

Seme-alabak dauzkaten askotariko familia motak oro har hartuta[4], nukleo anitzekoak kenduta, 2015etik 2019ra behatutako aldaketen oinarrizko alderdietako bat da honako hau: etxe horien bolumenak nabarmen egin du behera, termino absolutu nahiz erlatiboetan. Hala, termino absolutuetan, seme-alabak dauzkaten etxeen kopurua -% 3,5 jaitsi da 2015etik 2019ra bitartean, eta 2015ean 403.650 izatetik 2019an 389.373 izatera igaro dira (-% 2,6ko jaitsiera, familia mota horietara loturiko biztanleei dagokienez: 1.366.509 lagun izatetik 1.331.383 lagun izatera igaro dira). Termino erlatiboetan, familia mota horiek familia-etxeen eta familien egitura orokorrean duten proportzioak behera egin du: 2015ean % 46,7koa zen, eta 2019an % 42,6koa (etxe horietan bizi diren herritarrei dagokienez, % 63,7tik % 60,5era).

2. taulan egiazta daitekeen bezala, ezkontza nukleo nagusi duten familia-etxe edo familien bolumenak behera egin du 2015etik 2019ra bitartean: 454.081 izatetik 451.997 izatera, -% 0,5eko jaitsierarekin (-% 1,3, egoiliarrak aintzat hartuz gero).

Alabaina, aztertutako aldaketa hori bateragarria da ezkontza edo bikotea nukleo nagusi duten familien kopuruak gora egitearekin. Hala, etxe horien bolumena 518.458koa zen 2015ean, eta 531.904koa 2019an; hau da, aldi horretan, % 2,6ko igoera egon da. Etxe horietan bizi diren biztanleen kopuruak ere gora egin du: 1.544.387 izatetik 1.563.401 lagun izatera igaro dira 2015-2019 aldian; igoera zertxobait txikiagoa izan da, % 1,2koa.

[4] Seme-alabak dauzkaten familia nuklearrak, guraso bakarreko familiak eta seme-alabak dauzkaten ezkondu ondoko familiak ere sartu dira, seme-alabak mendekoak izan ala ez gorabehera.

**2. taula**
**Ezkontza edo bikotea nukleo nagusi duten familia-etxeak/familiak eta nukleoko biztanleria, nukleoaren barruko harremanaren eta familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**

| | | Familia-etxeak | | | | Pertsonak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Guztira | Ezkontza | Bikote erregistratua IBE | Bikote erregistratu gabea | Guztira | Ezkontza | Bikote erregistratua IBE | Bikote erregistratu gabea |
| Urtea | Familia-etxe edo familia mota | Abs. | Abs. | Abs. | Abs. | Abs. | Abs. | Abs. | Abs. |
| **(Datu absolutuak)** | | | | | | | | | |
| 2019 | **GUZTIRA** | **531.904** | **451.997** | **18.786** | **61.122** | **1.563.401** | **1.354.529** | **54.474** | **154.398** |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 209.829 | 162.291 | 9.303 | 38.235 | 419.657 | 324.581 | 18.605 | 76.471 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 55.723 | 18.318 | 6.403 | 31.001 | 111.446 | 36.637 | 12.806 | 62.003 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 154.106 | 143.972 | 2.900 | 7.234 | 308.211 | 287.944 | 5.799 | 14.468 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 305.140 | 274.739 | 9.483 | 20.917 | 1.105.440 | 996.450 | 35.869 | 73.122 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 234.582 | 206.496 | 9.050 | 19.036 | 881.488 | 779.609 | 34.401 | 67.479 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 70.558 | 68.244 | 433 | 1.881 | 223.952 | 216.841 | 1.467 | 5.643 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 16.936 | 14.967 | 0 | 1.969 | 38.304 | 33.498 | 0 | 4.806 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **518.458** | **454.081** | **16.548** | **47.829** | **1.544.387** | **1.372.186** | **45.710** | **126.490** |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 198.650 | 165.408 | 6.264 | 26.978 | 397.300 | 330.816 | 12.528 | 53.956 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 45.190 | 17.487 | 4.258 | 23.445 | 90.380 | 34.974 | 8.516 | 46.889 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 153.460 | 147.921 | 2.006 | 3.533 | 306.921 | 295.843 | 4.012 | 7.066 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 308.602 | 278.111 | 9.641 | 20.851 | 1.116.216 | 1.011.786 | 31.896 | 72.535 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 245.705 | 217.110 | 9.641 | 18.954 | 912.697 | 814.959 | 31.896 | 65.843 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 62.898 | 61.000 | 0 | 1.897 | 203.518 | 196.827 | 0 | 6.692 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 11.205 | 10.562 | 643 | 0 | 30.871 | 29.584 | 1.286 | 0 |
| **(% horizontalak)** | | | | | | | | | |
| 2019 | **GUZTIRA** | **100,0** | **85,0** | **3,5** | **11,5** | **100,0** | **86,6** | **3,5** | **9,9** |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 100,0 | 77,3 | 4,4 | 18,2 | 100,0 | 77,3 | 4,4 | 18,2 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 100,0 | 32,9 | 11,5 | 55,6 | 100,0 | 32,9 | 11,5 | 55,6 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 100,0 | 93,4 | 1,9 | 4,7 | 100,0 | 93,4 | 1,9 | 4,7 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 100,0 | 90,0 | 3,1 | 6,9 | 100,0 | 90,1 | 3,2 | 6,6 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 100,0 | 88,0 | 3,9 | 8,1 | 100,0 | 88,4 | 3,9 | 7,7 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 100,0 | 96,7 | 0,6 | 2,7 | 100,0 | 96,8 | 0,7 | 2,5 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 100,0 | 88,4 | 0,0 | 11,6 | 100,0 | 87,5 | 0,0 | 12,5 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **100,0** | **87,6** | **3,2** | **9,2** | **100,0** | **88,8** | **3,0** | **8,2** |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 100,0 | 83,3 | 3,2 | 13,6 | 100,0 | 83,3 | 3,2 | 13,6 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 100,0 | 38,7 | 9,4 | 51,9 | 100,0 | 38,7 | 9,4 | 51,9 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 100,0 | 96,4 | 1,3 | 2,3 | 100,0 | 96,4 | 1,3 | 2,3 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 100,0 | 90,1 | 3,1 | 6,8 | 100,0 | 90,6 | 2,9 | 6,5 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 100,0 | 88,4 | 3,9 | 7,7 | 100,0 | 89,3 | 3,5 | 7,2 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 100,0 | 97,0 | 0,0 | 3,0 | 100,0 | 96,7 | 0,0 | 3,3 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 100,0 | 94,3 | 5,7 | 0,0 | 100,0 | 95,8 | 4,2 | 0,0 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Familia-etxe horietan, alabaina, ezkondu gabeko bikoteen protagonismoa hazi egin da. 2019an, ezkondu gabeko bikoteak aintzat hartutako familia-nukleoen % 15 dira, 2015eko % 12,4ren gainetik (2019an, herritarren % 13,4 bizi dira nukleo horietan; 2015ean, % 11,2 ziren). Hazkunde nagusia erregistratu gabeko bikoteena da (% 9,2tik % 11,5era 2015-2019 aldian; % 8,2tik % 9,9ra, biztanleriari dagokionez).

Ezkontza-harreman batean oinarritzen ez diren bikoteen bolumenaren bilakaera esanguratsua da. Hala, izatezko bikoteen erregistroren batean inskribatutako bikoteek % 13,5 egin dute gora: 2015ean 16.548 ziren, eta 2019an 18.786. Hazkundea, halere, askoz ere deigarriagoa da erregistratu gabeko bikoteetan. Bikote horiek 47.829 izatetik 61.122 izatera igaro dira 2015-2019 aldian; hazkundea, bada, % 27,8koa izan da.

Behatutako dinamika hori guraso izan aurreko ezkontzazko etxeen egoerarekin lotu dugu. Ezkontzaz kanpoko bikote batean oinarritutako familia-etxeen proportzioa % 61,3tik (2015) % 67,1era igo da (2019) Igoera handiena erregistratu gabeko bikoteena da. 2015ean, guztizkoaren % 51,9 ziren, eta, 2019an, % 55,6. Zifra absolutuetan, guraso izan aurreko ezkontzazko bikoteak (ezkondu gabeak) 27.703 ziren 2015ean, eta 37.405 2019an; hortaz, hazkundea % 35,0koa izan da. Taldean ezkontzek ere gora egin duten arren (17.487tik 18.318ra), igoera askoz ere txikiagoa izan da, % 4,8koa.

Halere, garrantzitsua da adieraztea ezkontza dela bikote-harreman nagusia guraso izan aurrekoko ezkontzazko etxeetatik kanpo. Hala, 2015etik 2019ra bitartean bolumena termino absolutuetan jaitsi egin bada ere, aintzan hartutako familia-nukleoen % 85ek ezkontza-egituretan oinarritzen jarraitzen dute (gainera, familia-nukleo mota horretako biztanleen % 86,6 hartzen dituzte). Ezkontza-harremana nagusi da seme-alabak dauzkaten familia nuklearretan, nukleo anitzeko etxeetan eta guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan, % 88,0tik % 96,7ra arteko proportzioekin.

*Ezkontza edo bikoteetan, bigarren edo geroagoko loturek gora egin dute, baina, oraindik orain, kasuen ehunekoa ez da handia*

3. taulan jasotzen denez, ezkontza edo bikote gehienak lehen loturakoak dira; 2019an, erreferentziako pertsonen % 94,8 daude egoera horretan. Halere, bigarren edo geroagoko loturek gora egin dute, eta 2015ean % 3,8 izatetik 2019an % 5,2 izatera igaro dira.

**3. taula**
**Ezkontza edo bikotea nukleo nagusi duten familia-etxe/familietako erreferentziazko pertsonak, nukleo motaren (jatorrizkoa edo berreraikia) eta familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(% horizontalak)**

| | 2015 | | | 2019 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Pertsonak | | | Pertsonak | | |
| | Guztira | 1. lotura | 2. lotura edo geroagokoa | Guztira | 1. lotura | 2. lotura edo geroagokoa |
| Motak | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. |
| **GUZTIRA** | **100,0** | **96,2** | **3,8** | **100,0** | **94,8** | **5,2** |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 100,0 | 95,9 | 4,1 | 100,0 | 93,1 | 6,9 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 100,0 | 95,0 | 5,0 | 100,0 | 91,7 | 8,3 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 100,0 | 96,2 | 3,8 | 100,0 | 93,7 | 6,3 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 100,0 | 96,4 | 3,6 | 100,0 | 96,1 | 3,9 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 100,0 | 96,2 | 3,8 | 100,0 | 96,0 | 4,0 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 100,0 | 97,4 | 2,6 | 100,0 | 96,4 | 3,6 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 100,0 | 96,4 | 3,6 | 100,0 | 91,4 | 8,6 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Nukleo anitzeko etxeetan ez ezik, non bigarren edo geroagoko loturak % 3,6tik % 8,6ra igo diren 2015aren eta 2019aren artean, gorantz doan dinamika hori seme-alabarik gabeko familia-etxe nuklearretan ere zentratzen da batez ere (% 4,1etik % 6,9rako igoera), eta, horien barruan, guraso izan aurreko ezkontzazko familietan. familia mota horietan, bigarren edo geroagoko loturen pisua % 5,0koa izatetik (2015) % 8,3koa izatera pasa da (2019).

Bigarren edo geroagoko loturen pisuak gora egin du, halaber, seme-alabak dauzkaten familietan, bikotean edo ezkontzan dauden seme-alabak bikotekide bakarrarenak baitira gero eta gehiagotan. Dena dela, egoera horren inpaktua ez da oso handia: 4. taulan, erreferentziazko proportzioa % 2,9tik (2015) % 3,9ra (2019) igo dela jasotzen da.

**4. taula**
**Ezkontza edo bikotea nukleo nagusi duten familia-etxe/familietako seme-alabak, seme-alabek bikotekideekin duten harremanaren eta familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(% horizontalak)**

| | 2015 | | | 2019 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Seme-alabak | | | Seme-alabak | | |
| | Guztira | Bienak | Bikotekide batenak | Guztira | Bienak | Bikotekide batenak |
| Motak | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. |
| **GUZTIRA** | **100,0** | **97,1** | **2,9** | **100,0** | **96,1** | **3,9** |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 100,0 | 97,2 | 2,8 | 100,0 | 96,1 | 3,9 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 100,0 | 97,3 | 2,7 | 100,0 | 96,1 | 3,9 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 100,0 | 96,6 | 3,4 | 100,0 | 95,9 | 4,1 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 100,0 | 94,0 | 6,0 | 100,0 | 100,0 | 0,0 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

## 1.2. Adierazle demografiko nagusien bilakaera

5. taulan, EAEko familia-etxeen eta familien ezaugarri demografiko nagusiak zehazten laguntzen duten oinarrizko adierazleak jasotzen dira. Hona hemen 2015-2019 aldian aintzat hartutako adierazleen araberako joera nagusiak.

### *1.2.1. Familia-etxeen eta familien batez besteko tamainak behera egiten jarraitzen du*

Askotariko familia-etxe eta familia moten dinamikak zenbait inplikazio garrantzitsu dauzka. Egiturazkoena familien batez besteko tamainaren erorketa-lerroa da. Familia bakoitzak 2,48 kide zituen 2015ean, eta 2,41 2019an.

Familiaren tamainari familia eta familia-etxe motaren arabera begiratuz gero, 2019an nukleo anitzeko familiek dute tamainarik handiena, 5,03 kide baitauzkate. Ondoren, seme-alabak dauzkaten familia nuklearrak datoz, batez beste 3,67 kide baitauzkate. Familia mota horietan, batez besteko tamaina 3,81ekoa da mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, eta 3,19koa mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan. Mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiek 2,58 kide dauzkate, eta, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkatenean, 2,31 kide. Azken zifra hori senideak ez diren pertsona anitzeko etxeen batez besteko tamainatik hurbil dago, 2,51 kidekoak baitira.

Pertsona bakarreko etxeak kenduta (kide bakarra baitute), batez beste, nukleorik gabeko etxe familiarrek (2,22) eta ezkontzazko etxeek daukate tamainarik txikiena: guraso izan aurreko ezkontzazko etxeek 2,09 kide dauzkate, eta guraso izan ondokoek 2,06.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**5. taula**
**Oinarrizko adierazle demografikoak, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019 arteko aldia**

| | | Familia-etxe/familiaren batez besteko tamaina | Emakumeak (EP) % | Batez besteko adina (EP) | 16 eta 44 urte artean (EP) % | 45 eta 64 urte artean (EP) % | > 65 urte (EP) % | Etxean < 16 kideren bat % | Etxean < 6 kideren bat % | 16-29 kideren bat ikasten % | Jatorrizko beste nazionalitate bat (EP) % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | **GUZTIRA** | **2,41** | **53,4** | **56,7** | **26,2** | **42,3** | **31,5** | **21,5** | **8,1** | **12,0** | **8,8** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 1,00 | 58,2 | 62,8 | 18,2 | 33,3 | 48,5 | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 3,4 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA | 2,51 | 57,4 | 57,3 | 38,4 | 25,1 | 36,4 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 26,5 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 2,22 | 60,2 | 67,7 | 8,5 | 35,7 | 55,8 | 1,0 | 0,0 | 4,2 | 11,9 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 2,07 | 49,2 | 59,5 | 25,3 | 28,6 | 46,1 | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 6,0 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 2,09 | 48,0 | 36,1 | 92,8 | 7,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,9 | 16,1 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 2,06 | 49,7 | 67,9 | 0,9 | 36,3 | 62,8 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 2,3 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 3,67 | 49,9 | 51,3 | 31,3 | 56,4 | 12,1 | 51,8 | 20,2 | 28,8 | 10,3 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 3,81 | 49,8 | 47,3 | 40,6 | 56,0 | 3,2 | 67,4 | 26,3 | 37,5 | 12,8 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme- | 3,19 | 50,2 | 64,7 | 0,4 | 57,6 | 42,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 2,2 |
| | GURASO BAKARREKOA | 2,47 | 80,9 | 58,9 | 23,4 | 41,3 | 35,2 | 32,7 | 8,8 | 19,0 | 12,0 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme- | 2,58 | 84,3 | 49,7 | 40,2 | 47,1 | 12,7 | 55,3 | 15,0 | 32,6 | 18,5 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren | 2,31 | 76,1 | 71,9 | 0,0 | 33,2 | 66,8 | 0,9 | 0,0 | 0,0 | 2,9 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 5,03 | 56,3 | 59,5 | 15,7 | 40,2 | 44,1 | 49,9 | 23,7 | 20,4 | 35,8 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **2,48** | **54,2** | **55,5** | **28,6** | **42,4** | **28,9** | **24,0** | **11,0** | **12,6** | **7,5** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 1,00 | 60,7 | 61,0 | 22,4 | 33,4 | 44,2 | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 4,0 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA | 2,46 | 51,3 | 57,8 | 33,4 | 27,2 | 39,4 | 5,0 | 5,0 | 0,0 | 37,1 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 2,24 | 46,8 | 63,7 | 9,5 | 45,3 | 45,2 | 2,5 | 1,1 | 3,5 | 11,7 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 2,09 | 49,8 | 60,3 | 21,1 | 31,2 | 47,7 | 0,2 | 0,0 | 0,6 | 4,6 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 2,10 | 48,5 | 36,2 | 90,2 | 9,8 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 2,1 | 12,9 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 2,08 | 50,2 | 67,4 | 0,7 | 37,5 | 61,8 | 0,3 | 0,0 | 0,1 | 2,2 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 3,67 | 50,0 | 49,5 | 37,0 | 53,7 | 9,3 | 55,1 | 27,2 | 27,5 | 8,4 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 3,76 | 50,0 | 45,6 | 46,4 | 52,0 | 1,6 | 69,1 | 34,2 | 34,4 | 10,2 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme- | 3,32 | 50,0 | 64,5 | 0,4 | 60,1 | 39,5 | 0,4 | 0,0 | 0,6 | 1,5 |
| | GURASO BAKARREKOA | 2,47 | 87,2 | 58,9 | 22,3 | 43,6 | 34,1 | 29,1 | 7,6 | 19,0 | 11,4 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme- | 2,61 | 86,8 | 47,8 | 41,2 | 53,3 | 5,5 | 55,2 | 14,7 | 36,2 | 19,9 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren | 2,31 | 87,7 | 70,8 | 1,8 | 33,1 | 65,1 | 0,9 | 0,0 | 0,4 | 2,3 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 5,24 | 54,2 | 60,6 | 30,7 | 25,0 | 44,3 | 56,2 | 18,4 | 26,8 | 23,7 |

Oharrak: Familia-etxeko edo familiako erreferentziazko pertsonetan (EP), etxeko erreferentziazko pertsona eta bere ezkontidea/bikotekidea sartzen dira.
Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Oro har, familia-etxe eta familia mota guztietan ikusi da 2015etik 2019ra batez besteko tamainak behera egin duela, salbuespenen batekin. Adierazgarriena mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeei dagokie. Kasu horretan, aztertutako aldian batez besteko tamainak gora egin du; batez beste, 3,76 kide izatetik 3,81 kide izatera igaro dira familia mota horietan.

Etxe- eta familia-kopuru mugatuago bati eragiten dion arren, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeen batez besteko tamainak igoera handia izan du 2015etik 2019ra bitartean: 2,46tik 2,51rakoa.

### *1.2.2. Etxeko erreferentziazko pertsonen artean, emakumeek jarraitzen dute pisu handiena izaten*

Euskal familietan, erreferentziazko pertsonen gehiengoa osatzen dute emakumeek, guztizkoaren % 53,4 baitira[5].

Ezkontza edo bikote batean oinarritzen diren etxe nuklearren kasuan, proportzioa % 50 ingurukoa da: guraso izan aurreko ezkontzazko etxeen % 48ren eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeen % 50,2ren artean dabil[6]. Honako familia-etxe hauetan, emakumeek etxeko erreferentziazko pertsona gisa duten pisua gehiengoa da, argi eta garbi (% 55-60 inguruko mailekin): pertsona bakarreko etxeak (% 58,2), senideak ez diren pertsona anitzeko etxeak (% 57,4), nukleorik gabeko etxe familiarrak (% 60,2) eta nukleo anitzeko etxeak (% 56,3 emakumezkoak).

Gehiengoa, halere, guraso bakarreko familiek daukate, familia horien % 80,9an emakumeak baitira buru. Proportzioa % 84,3koa da mendeko seme-alabak baldin badaude, eta % 76,1ekoa mendekoak ez diren seme-alabak badaude.

*Halere, beheranzko joera ikusi da 2015etik 2019ra, pertsona bakarreko etxeetan eta guraso bakarreko familietan*

Datuek erakusten dutenez, emakumeek etxeko erreferentziazko pertsonen artean duten proportzioa zertxobait erori da 2015etik 2019ra bitartean. Hala, % 54,2koa izatetik % 53,4koa izatera pasa da.

Emakumeek etxeko erreferentziazko pertsonen artean duten pisua familia mota jakin batzuetan jaitsi da. Mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan ikusi da jaitsierarik agerikoena, 2015etik 2019ra bitartean pisu hori % 87,7koa izatetik % 76,1ekoa izatera igaro baita (-11,5 portzentaje-puntu). Beherakada mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan askoz txikiagoa izan bada ere, aztergai dugun aldian joera beheranzkoa dela ikusi dugu: % 86,8tik % 84,3ra (-2,4 portzentaje-puntu).

---

[5] FFEIn, etxean erreferentziazkotzat jotzen duten pertsona (gehi haren ezkontidea edo bikotekidea) da erreferentziazko pertsona. Hurbilketa horrekin, berdintasunezko ikuspegia eskain daiteke etxean erantzukizuna duten pertsonen kontua jorratzeko orduan.

[6] Datua ez da % 50ekoa automatikoki, sexu berekoen arteko ezkontzengatik edo bizikidetza (aldi baterako edo ez) etxe berean garatzen ez den egoerengatik.

Beherakada handia izan da, baita ere, pertsona bakarreko etxeetan. Etxe mota horietan, emakumeek erreferentziazko pertsonen artean duten pisua % 60,7tik % 58,2ra jaitsi da 2015aren eta 2019aren artean (-2,5 portzentaje-puntu).

Halere, dinamika hori zati batean konpentsatu da 2015etik 2019ra bitartean, emakumeek parte-hartze handiagoa baitute orain familia eta familia-etxe batzuetan. Igoera hori neurritsua izan da nukleo anitzeko familia-etxeetan (% 54,2tik % 56,3ra), baina askoz ere nabariagoa izan da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan eta nukleorik gabeko etxe familiarretan. Lehenengo kasuan, emakumeek erreferentziazko pertsonen artean duten pisuak % 51,3tik % 57,4ra egin du gora, eta, bigarrenean, igoera % 46,8tik % 60,2rakoa izan da.

### 1.2.3. *Familia-etxeen eta familien zahartze-prozesuak aurrera jarraitzen du*

Behatutako aldaketen azpiko faktoreetako bat biztanleriaren zahartze-prozesua da, adierazle giltzarri batzuen dinamika baldintzatzen duelako, ondoren ikus daitekeen moduan.

*Etxeko erreferentziazko pertsonen batez besteko adina altua da, eta 2015etik 2019ra bitartean gora egin du*

Zahartze-prozesuak EAEn duen inpaktua agerikoa da euskal familietan. Etxeetako erreferentziazko pertsonen batez besteko adina (ezkontideak edo bikotekideak ere aintzat hartuta) oso altua da: 56,7 urtekoa 2019an. Gainera, batez besteko adin hori gorantz doa, 2015ean 55,5 urtekoa zelako. Dinamika hori biztanleria osora hedatzen da, egoiliarren batez besteko adina ere oso altua baita: 45,5 urtekoa 2019an, 2015eko 43,9 urteen gainetik[7].

Erreferentziazko pertsonen batez besteko adina altua izateko hainbat arrazoi daude, baina guztiek begiratzen dute norabide berean.

Lehenik eta behin, oinarri nuklearra (edo nukleo anitzekoa) duten familia batzuetan, erreferentziazko pertsonen batez besteko adina 60 urteetatik hurbil edo hortik gora dago. Talderik zahartuena mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiena da, batez beste 71,9 urte baitauzkate; gainera, 2015etik igotzen ari da, urte hartan 70,8koa baitzen. Halaber, batez besteko adina oso altua da, eta 2015etik 2019ra bitartean goranzko joera erakutsi du, nahiz eta modu apalagoan izan, guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan (67,9 urte, 2015eko 67,4 urteen gainetik) eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (64,7 urtekoa da 2019an, eta, 2015ean, 64,5ekoa zen). Nahiz eta beheranzko joera egon, nukleo anitzeko etxeetako erreferentziazko pertsonak 60 urteen bueltan dabiltza batez beste (59,5 urte); 2015ean, 60,6 urtekoa zen batezbestekoa.

Adierazitako familia-etxeetan, erreferentziazko pertsonen barruan 65 urtetik gorakoak dira nagusi, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeena baita salbuespen bakarra (65 urtetik gorakoak % 42 dira, eta 45 eta 64 urte artekoak % 57,6). Erreferentziazko pertsonen artean, 65 urtetik gorakoena da talde nagusia; alabaina, horien proportzioa nukleo anitzeko etxeetako talderik gazteenaren antzekoa da, % 44,1ekoa baita, 45 eta 64 urte arteko taldearen % 40,2 baino zertxobait

---

[7] Ikusi A.1 taula, taula osagarrien eranskinean.

handiagoa. Alabaina, guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan, 65 urtetik gorakoen ehunekoa % 60 baino handiagoa da (62,8 eta 66,8, hurrenez hurren).

Familia mota horietan, 65 urtetik gorako erreferentziazko pertsonen proportzioak nabarmen egin du gora 2015etik 2019ra bitartean, +1 eta +2,5 portzentaje-punturekin, hurrenez hurren. Nukleo anitzeko etxeena da salbuespen bakarra: etxe horietan, 65 urtetik gorako erreferentziazko pertsonen proportzioak zertxobait behera egin du, % 44,3tik % 44,1era.

Bigarrenik, erreferentziazko pertsonen batez besteko adina altua da, baita ere, oinarri nuklearrik gabeko etxeetan: nukleorik gabeko etxeetan, 67,7koa da batezbestekoa, eta, pertsona bakarrekoetan, 62,8koa. 2015eko zenbakiekin alderatuta, joera bi kasuetan da goranzkoa, baina askoz ere argiagoa nukleorik gabeko etxe familiarretan, 3,9 portzentaje-puntu egin baititu gora, 2015eko 63,7 urteei dagokienez (pertsona bakarreko etxeetan, +1,9 portzentaje-puntu, 2015eko 61 urteei dagokienez).

Bi talde horietan, erreferentziazko pertsonen artean, 65 urtetik gorakoen proportzioa gehiengoa da, argi eta gabi, eta, gainera, 2015etik 2019ra bitartean, joera goranzkoa da, nabarmen: % 45,2tik % 55,8ra nukleorik gabeko etxe familiarretan, eta % 44,2tik % 48,5era pertsona bakarreko etxeetan.

60 urteetatik nahiko behera badago ere, erreferentziazko pertsonen batez besteko adina altua da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan (2019an, 57,3 urtekoa). Kasu horretan, ordea, beherakada arina egon da, 2015eko 57,8 urteekin alderatuta. Hala, etxe horietan, 65 urtetik gorako erreferentziazko pertsonen ehunekoak behera egin du 2015etik 2019ra, % 39,4tik % 36,4ra, hain zuzen ere, eta, 2015ean ez bezala, 16 eta 44 urte arteko erreferentziazko pertsonen ehunekoak proportzio hori gainditu du, 2019an % 38,4koa baita (2015ean, % 33,4koa).

Hirugarrenik, mendeko seme-alabak dauzkaten etxeetako batez besteko adina altua da, 45 urtetik gorakoa: 49,7 urtekoa guraso bakarreko familien kasuan, eta 47,3koa ezkontza edo bikote batean oinarritutako gurasoen etxeetan. Adierazleak, gainera, goranzko joera eduki du 2015etik 2019ra bitartean, argi eta garbi: 45,6tik 47,3ra gurasodun nukleoetan (+1,7 portzentaje-puntu), eta 47,8tik 49,7ra guraso bakarreko etxeetan (+1,9 portzentaje-puntu).

Mendeko seme-alabak dauzkaten talde horietan, erreferentziazko pertsonen erdiek baino gehiagok 45 urte baino gehiago dauzkate (% 59,2k bi gurasodun etxeetan, eta % 59,8k guraso bakarreko etxeetan). 2015etik 2019ra bitartean, ehuneko horrek modu neurritsuan egin du gora mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan (% 58,8tik % 59,8ra); mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan, baina, hazkundea askoz ere deigarriagoa izan da (% 53,6tik % 59,2rakoa).

Batez besteko adina guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan bakarrik da baxuagoa. Etxe horietako erreferentziazko pertsonen % 92,8k 45 urte baino gutxiago dauzkate; 2019an, batez besteko adina 36,1 urtekoa da, 2015eko 36,2 urteko zifraren antzekoa.

*Familia-nukleo batean oinarrituta ez dauden etxeetan, adinekoen ehunekoak gora egin du*

Edonola ere, 65 urtetik gorako herritarren pisua gero eta handiagoa da, eta horixe da zahartze-prozesuari lotutako ondorioetako bat. 6. taulan ikus daitekeen bezala, 2019an adinekoen pisua % 22,3koa da guztizko biztanlerian, 2015eko % 20,2 baino handiagoa (+2,2 portzentaje-puntu).

Etxeko erreferentziazko pertsonen artean, ehuneko hori % 31,5ekoa da, 2015eko % 28,9 baino handiagoa (+2,6 portzentaje-puntu). Pertsona-talde horretan, ehunekoa % 9,4koa da, 80 urtetik gorako herritarrak bakarrik aintzat hartuz gero; 2015ean, % 8,9koa zen.

**6. taula**
**Familia-nukleo batean oinarritzen ez diren familia-etxeetako zahartze-prozesuen adierazle konparatuak. EAE. 2015 eta 2019 arteko aldia**

| | | Erreferentziazko pertsonen adierazleak | | | | | Guztizko biztanleriaren adierazleak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **Taldeko EPen %a** | | **EAEko EPen %a** | | | **Taldeko kide guztien %a** | | **EAEko biztanle guztien %a** | | |
| | | >65 urte | >80 urte | GUZTIRA | >65 urte | >80 urte | >65 urte | >80 urte | GUZTIRA | >65 urte | >80 urte |
| | | % | % | % ber. | % ber. | % ber. | % | % | % ber. | % ber. | % ber. |
| 2019 | Pertsona bakarrekoa | 48,5 | 20,6 | 18,2 | 28,0 | 39,7 | 48,5 | 20,6 | 12,0 | 26,0 | 35,7 |
| | Senideak ez diren pertsona anitzekoa | 36,4 | 29,3 | 1,0 | 1,2 | 3,2 | 20,4 | 15,9 | 1,4 | 1,2 | 3,1 |
| | Familiarra, nukleorik gabea | 55,8 | 28,1 | 1,0 | 1,8 | 3,0 | 37,8 | 18,0 | 1,5 | 2,5 | 3,8 |
| | **GUZTIRA, FAMILIA-NUKLEORIK GABE** | **48,2** | **21,5** | **20,2** | **31,0** | **45,9** | **44,9** | **19,9** | **14,8** | **29,7** | **42,6** |
| | **GUZTIRA, FAMILIA-NUKLEOAREKIN** | **27,2** | **6,4** | **79,8** | **69,0** | **54,1** | **18,4** | **4,7** | **85,2** | **70,3** | **57,4** |
| | **GUZTIRA** | **31,5** | **9,4** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **22,3** | **6,9** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| 2015 | PERTSONA BAKARREKOA | 44,2 | 19,6 | 15,6 | 23,9 | 34,4 | 44,2 | 19,6 | 10,1 | 22,1 | 30,4 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 39,4 | 24,9 | 1,1 | 1,6 | 3,2 | 20,6 | 12,3 | 1,8 | 1,8 | 3,4 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 45,2 | 21,6 | 1,1 | 1,8 | 2,8 | 35,4 | 12,6 | 1,6 | 2,9 | 3,2 |
| | **GUZTIRA, FAMILIA-NUKLEORIK GABE** | **44,0** | **20,0** | **17,9** | **27,2** | **40,4** | **40,0** | **17,7** | **13,5** | **26,8** | **37,0** |
| | **GUZTIRA, FAMILIA-NUKLEOAREKIN** | **25,6** | **6,4** | **82,1** | **72,8** | **59,6** | **17,1** | **4,7** | **86,5** | **73,2** | **63,0** |
| | **GUZTIRA** | **28,9** | **8,9** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **20,2** | **6,5** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: Familia-etxeko edo familiako erreferentziazko pertsonetan (EP), etxeko erreferentziazko pertsona eta bere ezkontidea/bikotekidea sartzen dira..
Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Ikusi ahal izan denez, familia-etxe edo familia motaren arabera, erreferentziazko pertsonen barruan, pertsona bakarreko etxeetan eta nukleorik gabeko etxeetan igo da gehien adinekoen pisu erlatiboa. 6. taulan familia-nukleo baten inguruan egituratzen ez diren etxeen multzoari begiratuz gero (aurrekoak, gehi senideak ez diren pertsona anitzekoak), 2015-2019 aldian 65 urtetik gorakoek etxe mota horietan duten proportzioa % 44,0tik % 48,2ra igo dela ikusiko dugu (+4,3 portzentaje-puntu). Gainera, etxe mota horietan, erreferentziazko pertsonen % 21,5ek 80 urte baino gehiago dauzkate, 2015ean baino 1,4 portzentaje-puntu gehiago (% 20,0).

65 urtetik gorako herritar guztiek familia edo familia-etxeetan duten banaketari erreparatuta, 2019an pertsona horien % 26 bakarrik bizi dira, 2015eko % 22,1etik gora (+3,9 portzentaje-puntu). Familia-nukleo baten inguruan egituratzen ez diren gainerako etxe motetan, berriz, proportzioa % 29,7ra iristen da; hau da, 2015etik, goranzko joera argia dago, urte hartan ehunekoa % 26,8koa izan baitzen.

Erabakigarriena zera da, ordea, 80 urtetik gorako herritarrak etxe mota horietan kontzentratzen direla batez ere. Hala, 2019an, herritar horien % 35,7 bakarrik bizi dira, pertsona bakarreko etxeetan; 2015arekin alderatuta, aurrerapen argia egon da, orduan % 30,4 bizi baitziren bakarrik. Senideak ez diren pertsona anitzeko etxeak eta nukleorik gabeko senideak sartuz gero, proportzioa % 42,6ra iristen da 2019an, 2015ean baino 5,6 portzentaje-puntu gehiagorekin (% 37,0). Proportzio horiek familia mota horiek biztanleria osoan duten pisuarekin alderatu behar dira: % 14,8 2019an (% 13,5 2015ean).

### *1.2.4. Aldi berean, adingabekoek familia-etxe eta familietan duten pisua murriztu egin da*

Euskadiko biztanleria zahartzearekin batera, adingabeek EAEko familia-etxea eta familietan duten presentzia are gehiago murriztu da. Hala, 5. taulan jasotzen den informazioa berrartuz egiaztatu denez, 16 urtetik beherako kideren bat duten familia-etxe edo familien ehunekoak behera egin du: 2015ean, % 24 ziren, eta, 2019an, % 21,5. Murrizketa are nabarmenagoa da 6 urtetik beherako kideren bat duten familiei dagokienez: % 11tik % 8,1era. Halaber, 2015etik 2019ra bitartean, behera egin du 16 eta 44 urteko kideren bat duten familia-etxe edo familien kopuruak, % 54,6tik % 50,8ra[8].

2019an, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan dago 16 urtetik beherakoen presentziarik handiena, guztizkoaren % 67,4; hala ere, 6 urtetik beherako seme-alabak dauzkaten etxeak aintzat hartuta, ehuneko hori % 26,3ra jaisten da. 16 urte baino gutxiagoko herritarren presentzia % 50etik gorakoa da, halaber, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familien artean (% 55,3), eta nukleo anitzeko etxeetan duten presentzia atalase horretatik hurbil dago (% 49,9). Dena dela, 6 urtetik beherakoen presentziak ez du % 25 gainditzen familia edo familia-etxe horietan (% 15,0 eta % 23,7, hurrenez hurren).

16 urtetik beherako herritarrei dagokienez nukleo anitzeko etxeetan prozesu bera ikusten bada ere, 2015etik 2019ra bitartean, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeen dinamikarekin lotzen da, batez ere, adingabeek euskal familietan duten presentziaren beheranzko lerroa. Kasu horretan, 16 urtetik beherako kideak dauzkaten etxeen proportzioak izan duen beherakada nahiko neurritsua izan da (2015ean % 69,1ekoa izatetik 2019an % 67,4koa izatera pasa da), baina askoz ere deigarriagoa da 6 urtetik beherakoen presentzia kontuan hartzen bada. Zentzu horretan, 6 urtetik beherako kideak dauzkaten etxeen ehunekoak -7,9 portzentaje-puntu egin ditu behera: 2015ean, % 34,2 ziren, eta, 2019an, % 26,3. Beherakada deigarri horrek argi erakusten du EAEn ugalkortasunak behera egin duela azken urteetan.

*Halere, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, gora egin du 16 eta 29 urte bitarteko ikasleak dauzkatenen ehunekoak*

Aurretik aipatu ditugun hiru familia mota horietan dago, hain zuzen ere, 16 eta 29 urte arteko ikasleen presentziarik handiena. Mendeko seme-alabak dauzkaten etxe nuklearretan, proportzioa % 35etik hurbil dago (gurasoen etxeetan, % 37,5ekoa da, eta, guraso bakarreko etxeetan, % 32,6koa). Zertxobait txikiagoa da nukleo anitzeko etxeetan (% 20,4). Multzoan hartuta, euskal etxeen % 12,0k bakarrik dauzkate 16 eta 29 urte arteko ikasleak; 2015arekin alderatuta, joera beheranzkoa da, nahiz eta aldea handia izan ez (2015ean, % 12,6koa zen proportzioa).

---

8 Ikusi A.2 taula, taula osagarrien eranskinean.

Ikusitako beherakada hori mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiei (% 36,2tik % 32,6ra) eta nukleo anitzeko etxeei (% 26,8tik % 20,4ra) dagokie. Mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, 2015etik 2019ra bitartean gora egin du 16 eta 29 urte arteko ikasleren bat duten etxeen ehunekoak, % 34,4tik % 37,5era. Familia horietan, 16 urtetik beherakoen presentzia erlatiboa txikitu izanarekin lotzen da igoera.

### 1.2.5. *Jatorri atzerritarreko herritarrek gero eta presentzia handiagoa daukate familia eta familia-etxe mota jakin batzuetan*

5. taulan, era berean, estatutik kanpoko nazionalitatea eduki zutenek erreferentziazko pertsonen artean duten ehunekoari buruzko informazioa jasotzen da, nazionalizatzeko prozesuak hasi dituzten ala ez gorabehera. Datuek erakusten dutenez, euskal familietako erreferentziazko pertsonen % 8,8k espainiarra ez zen nazionalitatea eduki zuten jatorrian. Proportzio horrek 1,3 portzentaje-puntu egin ditu gora, 2015eko % 7,5ekin alderatuz gero.

Errealitate sozial horren inpaktua, baina, oso ezberdina da familia eta familia-etxe motei begiratuz gero; izan ere, familia mota batzuetan, jatorri atzerritarreko erreferentziazko pertsonen ehunekoa % 20 ingurukoa edo hortik gorakoa da. Bada, ehunekorik altuena nukleo anitzeko etxeei dagokie (% 35,8). Ehunekoa altua da, halaber, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan (% 26,5) eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan (% 18,5). Jatorri atzerritarreko pertsonen presentziak % 10 gainditzen du guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (% 16,1), nukleorik gabeko familia-etxeetan (% 11,9) eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 12,8).

7. taulan, erreferentziazko pertsonei buruzko datuak eta biztanleria guztiari buruzkoak alderatzen dira.

**7. taula**
**Jatorrian beste nazionalitate bat eduki zuten pertsonek familia-etxeetan/familietan duten proportzioa, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(erreferentziazko pertsonen eta guztizko biztanleriaren %a)**

| | 2015 | 2019 | 2015 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| | Erreferentziazko pertsonak | Erreferentziazko pertsonak | Biztanleria, guztira | Biztanleria, guztira |
| | Jatorrizko beste nazionalitate bat | Jatorrizko beste nazionalitate bat | Jatorrizko beste nazionalitate bat | Jatorrizko beste nazionalitate bat |
| Motak | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan |
| **GUZTIRA** | **7,5** | **8,8** | **9,2** | **10,5** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 4,0 | 3,4 | 4,0 | 3,4 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 37,1 | 26,5 | 50,2 | 42,5 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 11,7 | 11,9 | 13,8 | 15,3 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 4,6 | 6,0 | 5,7 | 7,0 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 12,9 | 16,1 | 15,4 | 18,5 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 2,2 | 2,3 | 2,8 | 2,8 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 8,4 | 10,3 | 8,2 | 9,8 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 10,2 | 12,8 | 9,8 | 11,9 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 1,5 | 2,2 | 1,1 | 1,5 |
| GURASO BAKARREKOA | 11,4 | 12,0 | 12,4 | 12,4 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 19,9 | 18,5 | 20,3 | 16,8 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 2,3 | 2,9 | 2,7 | 5,3 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 23,7 | 35,8 | 24,9 | 35,6 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Taulan egiaztatu denaren arabera, jatorrian beste nazionalitate bat zuten herritarrek EAEko familia-etxe eta familietan duten pisu erlatiboaren goranzko joera guztizko biztanlerian ere ikus daiteke, 2015etik 2019ra bitartean % 9,2tik % 10,5era egin baitu gora. Atzerritar jatorria duten herritarrak guztizko biztanlerian duten % 10,5eko pisu horrek, bestalde, 2019an etxeetako erreferentziazko pertsonen artean ikusitako % 8,8 gainditzen du.

Familia-etxe edo familia motaren araberako azterketa eginda ikusi denez, 2019an, jatorri atzerritarra duten pertsonek mendeko seme-alabak dauzkaten etxeetan duten proportzioa % 11,9ra iritsi da gurasoen etxeetan eta % 16,8ra guraso bakarreko etxeetan, erreferentziazko pertsonei dagozkien proportzioetatik zertxobait behera (% 12,8 eta % 18,5). 2015arekin alderatuta, ehunekoak gora egin du mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 9,8tik % 11,9ra), baina seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan nabarmen egin du behera (% 20,3tik % 16,8ra).

Adierazleak goranzko joera dauka, ordea, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetako biztanleen artean, 2019ko % 18,5ek argi eta garbi gainditzen baitu 2015eko % 15,4.

Nuklearrak ez diren etxeetan, jatorrizko beste nazionalitate bat dutenen proportzioa % 15,3koa da, 2019an, nukleorik gabeko familietan, 2015eko % 13,8tik gora. Alabaina, proportziorik altuena senideak ez diren pertsona anitzeko etxeei dagokie oraindik ere, 2019an kideen % 42,5ek beste nazionalitate bat zutelako jatorrian, 2015ean behatutako % 50,2tik behera, ordea.

2015etik 2019ra, nukleo anitzeko etxeei dagokie goranzko lerro deigarriena. Kasu horretan, jatorrian beste nazionalitate bat zuten pertsonen ehunekoak gora egin du 2015aren (% 24,9) eta 2019aren (% 35,6) artean.

8. taulan, informazio osagarria jasotzen da, jatorrian estatutik kanpoko nazionalitatea zuten kideren bat daukaten familia-etxeen edo familien proportzioari buruzkoa. 2019an, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeen % 64,2 daude egoera horretan, nahiz eta 2015etik beheranzko joera egon (2015ean, % 72,0 ziren). Proportzioa % 49,1era iristen da nukleo anitzeko etxeetan, eta, kasu horretan, proportzioak gora egin du nabarmen, 2015ean % 35,1ekoa zelako. Zifra horietan ikus daitekeen moduan, jatorri atzerritarreko immigrazioaren dinamikak asko eragiten die bi familia horiei.

Hain ehuneko altua izan ez arren, jatorrizko beste nazionalitate bat duten pertsonen presentzia oso deigarria da beste familia edo familia-etxe batzuetan. Hala, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeen % 25,2k ezaugarri hori daukate. Proportzioa % 20koa da nukleorik gabeko familia-etxeetan, eta % 16,9koa mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan.

2015etik 2019rako bilakaera ikusita, familia-etxe edo familia mota horietan guztietan, jatorri atzerritarra duten pertsonen presentzia gero eta handiagoa da, argi eta garbi: guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan, +5,0 portzentaje-puntuko igoera egon da (% 20,2tik % 25,2ra); nukleorik gabeko familietan, +3,3 portzentaje-puntuko igoera egon da (% 16,8tik % 20,0ra), eta, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, +3,1 portzentaje-puntuko igoera egon da (% 13,8tik % 16,9ra).

Bilakaera horrek ez du bat egiten 2015etik 2019ra bitartean mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan ikusitako beherakadarekin (% 22,0tik % 18,5era), espainiarra ez den nazionalitatea izan duen kideren bat duten familia-talde garrantzitsua izaki hori.

**8. taula**
**Jatorrian beste nazionalitate bat eduki zuen pertsonaren bat duten familia-etxeen/familien proportzioa, etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(etxeen %a)**

| | 2015 | 2019 |
|---|---|---|
| | Beste nazionalitate bat zuen pertsonaren bat | Beste nazionalitate bat zuen pertsonaren bat |
| Motak | %-tan | %-tan |
| **GUZTIRA** | **10,7** | **11,8** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 4,0 | 3,4 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 72,0 | 64,2 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 16,8 | 20,0 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 8,1 | 10,4 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 20,2 | 25,2 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 4,6 | 5,0 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 11,6 | 13,7 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 13,8 | 16,9 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 3,0 | 3,2 |
| GURASO BAKARREKOA | 13,4 | 14,1 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 22,0 | 18,5 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 4,2 | 8,0 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 35,1 | 49,1 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

# 2. Familien eta familia-etxeen ezaugarri sozial nagusiak

Atal honetan, EAEko familia-etxeen eta familien 2019ko adierazle sozioekonomiko nagusiak aurkezten dira, 2015etik izandako bilakaerari erreferentzia berezia eginez.

## 2.1. Jarduerarekiko harremana

### *2.1.1. Alderdi orokorrak*

9. taulan, EAEko familia-etxeek eta familiek lan-jarduerarekin duten harremanaren adierazle nagusiak aurkezten dira.

Jarduerarekiko harremanean, 2019an bi ezaugarrik jarraitzen dute nagusi izaten EAEko familia-etxe eta familietan. Batetik, zahartze-prozesuak azaltzen du jardueraren eta okupazioaren pisua nahiko mugatua izatea. Izan ere, etxeko erreferentziazko pertsonen % 54,0 baino ez dabiltza lanean. Alabaina, lanean dabilen norbait duten etxeen ehunekoa askoz handiagoa da, eta 2019an % 63,9ra iritsi da. Gainera, familia-etxe eta familien % 57,4k daukate prekariotzat jo ezin daitekeen lanpostu batean lan egiten ari den norbait.

Bestetik, 2008ko ekonomia-krisiak eta hainbat sektoretan (hala nola, industrian eta eraikuntzan) urte horietan izandako dinamikak azal dezakete prekarietate-egoeren inpaktuak hain handia izaten jarraitzea, bai lan motari dagokionez, bai langabeziari dagokionez. Hala, aztertutako familia-unitate nagusien % 16,3n, lan prekarioa daukan norbait dago, eta unitateen % 12,2k langabezian dagoen norbait daukate. Etxeko erreferentziazko pertsonak bakarrik aintzat hartuz gero, ordea, pertsona horien % 5,8 bakarrik dago langabezian.

Edonola ere, etxeen % 26,8n langabezian dagoen edo lan prekarioa duen pertsona aktibo bat dute gutxienez. Pertsona aktibo guztiak landun prekarioak diren edo langabezia-egoeran dauden unitateen proportzioa % 12,8ra iristen da.

### *2.1.2. Familien okupazio-egoerak hobera egin du 2015aren eta 2019aren artean, nabarmen*

Ikuspegi sozial orokor batetik begiratuta oraindik ere 2008ko krisiaren eraginpean jarraitzen duen egoera hau kaskarra izan arren, euskal familia-etxe eta familiek lan-merkatuaren aurrean duten egoerak nabarmen egin du hobera 2015etik 2019ra bitartean.

Aldaketa hori hainbat dimentsiotan ikus daiteke, bai lan-merkatuan nahiz okupazioan dagoen integrazioa neurtzen duten adierazleen bilakaerari dagokionez, bai langabeziaren adierazleen hobekuntzari dagokionez.

**9. taula Lanarekiko harremanaren oinarrizko adierazleak, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019 arteko aldia**

| | | Per. aktiboren bat (UN) | Landunak (EP) | Langabetuak (EP) | Landun bat (UN) | Landun prekario bat (UN) | Aktibo guztiak landun prekarioak (UN) | Aktiboren bat langabezian (UN) | Aktibo guztiak langabezian (UN) | Aktibo guztiak iraupen luzeko langabetuak (UN) | Aktiboren bat ez prekarioa (UN) | Aktiboren bat prekarioa (UN) (langabezia edo lan prekarioa) | Aktibo guztiak prekarioak (UN) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan |
| 2019 | **GUZTIRA** | **70,2** | **54,0** | **5,8** | **63,9** | **16,3** | **5,3** | **12,2** | **6,3** | **2,6** | **57,4** | **26,8** | **12,8** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 44,6 | 37,3 | 7,4 | 37,3 | 3,9 | 3,9 | 7,4 | 7,4 | 3,4 | 33,4 | 11,3 | 11,3 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 59,0 | 50,4 | 8,6 | 50,4 | 17,1 | 17,1 | 8,6 | 8,6 | 3,0 | 33,3 | 25,7 | 25,7 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 51,2 | 20,8 | 7,7 | 37,8 | 19,0 | 9,2 | 18,1 | 13,4 | 2,3 | 26,0 | 34,5 | 25,2 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 52,6 | 41,3 | 4,0 | 49,3 | 11,4 | 2,8 | 7,6 | 3,3 | 0,8 | 45,3 | 17,9 | 7,3 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 100,0 | 90,0 | 7,6 | 97,1 | 33,4 | 7,4 | 13,0 | 2,9 | 0,8 | 86,8 | 43,4 | 13,2 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 35,4 | 23,7 | 2,8 | 32,0 | 3,5 | 1,2 | 5,7 | 3,5 | 0,8 | 30,3 | 8,7 | 5,1 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 98,3 | 72,1 | 5,6 | 93,4 | 26,9 | 4,9 | 16,0 | 4,9 | 2,2 | 86,7 | 39,5 | 11,6 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 98,0 | 82,3 | 6,4 | 94,0 | 21,3 | 2,3 | 15,1 | 4,0 | 1,8 | 90,0 | 33,4 | 8,0 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 99,5 | 38,0 | 3,1 | 91,5 | 45,5 | 13,4 | 19,1 | 8,0 | 3,6 | 75,7 | 59,8 | 23,8 |
| | GURASO BAKARREKOA | 90,1 | 51,4 | 7,4 | 77,0 | 23,6 | 15,1 | 20,7 | 13,2 | 5,9 | 60,4 | 42,8 | 29,7 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 88,1 | 68,2 | 12,8 | 71,6 | 21,4 | 15,9 | 21,9 | 16,5 | 7,5 | 53,8 | 41,4 | 34,4 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 92,9 | 27,9 | 0,0 | 84,5 | 26,6 | 14,0 | 18,9 | 8,5 | 3,8 | 69,8 | 44,8 | 23,2 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 98,6 | 40,3 | 12,4 | 88,0 | 35,7 | 4,3 | 28,9 | 10,6 | 0,9 | 80,4 | 57,1 | 18,2 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **72,0** | **51,0** | **9,2** | **62,7** | **16,7** | **5,9** | **19,5** | **9,3** | **5,3** | **55,2** | **33,6** | **16,8** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 47,6 | 35,2 | 12,4 | 35,2 | 6,7 | 6,7 | 12,4 | 12,4 | 7,8 | 28,5 | 19,1 | 19,1 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 54,6 | 35,8 | 18,8 | 35,8 | 14,9 | 14,9 | 18,8 | 18,8 | 13,8 | 20,9 | 33,7 | 33,7 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 67,8 | 35,3 | 7,5 | 52,2 | 16,5 | 9,7 | 27,3 | 15,6 | 12,7 | 35,7 | 37,0 | 32,1 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 47,5 | 33,7 | 6,4 | 43,7 | 10,7 | 3,1 | 10,8 | 3,8 | 2,7 | 39,4 | 20,3 | 8,1 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 100,0 | 80,5 | 16,4 | 92,8 | 35,6 | 8,5 | 25,6 | 7,2 | 5,1 | 82,3 | 59,2 | 17,7 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 32,0 | 19,9 | 3,4 | 29,2 | 3,3 | 1,5 | 6,4 | 2,8 | 2,1 | 26,8 | 8,8 | 5,2 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 98,8 | 70,0 | 9,1 | 92,5 | 26,2 | 5,0 | 24,7 | 6,4 | 2,5 | 85,1 | 46,2 | 13,8 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 98,8 | 79,0 | 10,5 | 93,9 | 23,8 | 4,2 | 24,8 | 5,0 | 1,5 | 87,0 | 44,1 | 11,8 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 98,9 | 34,8 | 3,5 | 86,9 | 35,3 | 8,2 | 23,9 | 11,9 | 6,4 | 77,3 | 54,5 | 21,5 |
| | GURASO BAKARREKOA | 91,0 | 45,3 | 13,1 | 70,8 | 19,5 | 11,9 | 30,6 | 20,2 | 11,9 | 57,0 | 48,2 | 34,0 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 92,9 | 62,1 | 22,0 | 65,5 | 15,4 | 14,1 | 36,7 | 27,3 | 15,4 | 51,2 | 51,9 | 41,7 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 88,9 | 27,2 | 3,5 | 76,5 | 23,8 | 9,5 | 24,0 | 12,4 | 8,1 | 63,3 | 44,2 | 25,7 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 97,3 | 35,8 | 10,3 | 87,6 | 30,9 | 1,2 | 55,8 | 9,6 | 2,0 | 76,5 | 66,1 | 20,7 |

Oharrak: Familia-etxeko edo familiako erreferentziazko pertsonetan (EP), etxeko erreferentziazko pertsona eta bere ezkontidea/bikotekidea sartzen dira. Etxeko unitate nagusiko (UN) pertsona aktiboak hartu dira kontuan.
Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

*Okupazioaren igoera*

Okupazioaren adierazleei dagokienez, 2015etik 2019ra bitartean % 40tik % 43,2ra igo da guztizko biztanlerian lanean dabiltzanen proportzioa[9]. 9. taulak erakusten duenez, igoera % 51,0tik % 54,0rakoa izan da etxeko erreferentziazko pertsonengan (+3,0 portzentaje-puntu).

Azken kolektibo horretan, 2015-2019 aldiko hobekuntza bereziki deigarria da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetako erreferentziazko pertsonengan, okupazioaren ehunekoak % 80,5etik % 90era igaro baitira (+9,6 portzentaje-puntuko igoera). Halaber, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan ere igoera erraz hauteman daiteke, erreferentziazko pertsonen artean lanean dabiltzanen proportzioak % 62,1etik % 68,2ra egin baitu gora 2015aren eta 2019aren artean (+6,1 portzentaje-puntu).

Nolanahi ere, irabazitako portzentaje-puntuetan izan den aurrerapen handiena, +14,7ko igoerarekin, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeei dagokie. Hala ere, igoera hori enpleguarekin eta okupazioarekin lotura mugatua duen familia mota bati dagokio. Hala, kasu horretan, lanean dabiltzan erreferentziazko pertsonen proportzioa % 35,8tik % 50,4ra igo da, okupazioaren % 50eko atalasearen gainetik hamarren batzuk besterik ez.

Erreferentziazko pertsonen artean 3 portzentaje-puntuko igoera gainditzen duten familia-etxe eta familia moten artean, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen familiak aipatu behar dira. Kasu horretan, lanean dabiltzan erreferentziazko pertsonen proportzioa % 79,0tik % 82,3ra aldatu da 2015-2019 aldian. Bada, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeen atzetik okupazio-maila handiena duen bigarren familia-etxe edo familia mota da hori.

2015etik 2019ra bitartean, lanean dabiltzanen proportzioak behera egin du familia mota batean, nukleorik gabeko etxe familiarretan, hain zuzen ere (% 35,3tik % 20,8ra). Hala ere, kolektiboa zahartu izanak azal dezake aldaketa hori, ez-aktiboen pisuak gora egin baitu. Etxeko unitate nagusian kide aktiboak dauzkaten familien proportzioa % 67,8tik (2015) % 51,2ra jaitsi da 2019an. Dinamika hori pertsona bakarreko etxeetan ere ikus daiteke, proportzioa % 47,6tik % 44,6ra jaitsi baita. Dena dela, lanean dabiltzanen proportzioak % 35,2tik % 37,3ra egin du gora 2015-2019 aldian.

Zahartzearekin lotzen ez bada ere, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiek ere pertsona aktibo gutxiago dauzkate etxeko unitate nagusian, familia mota horretan proportzioa % 92,9tik % 88,1era jaitsi baita 2015-2019 aldian. Askoz ere leunago, egonkortze-testuinguru batean, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan ere dinamika hori ikusi dugu, 2015etik 2019ra % 98,8tik % 98ra jaitsi baita ehunekoa. Multzoan hartuta, halere, mendeko seme-alabak dauzkaten familien baterako bilakaera hori aipatu beharra daukagu, lan-jardueraren mailak nolabait behera egin baitu.

Bada, aipaturiko bi dinamika paraleloen ondorioz (hots, mendeko seme-alabak dauzkaten familien jarduera-maila murriztearen eta biztanleria zahartzearen ondorioz), adierazleak beste familia mota

---

[9] Ikusi A.3 taula, taula osagarrien eranskinean.

batzuetan goranzko joera badu ere, EAEko familia-etxe eta familia guztiak aintzat hartuta pertsona aktiboak dauzkaten etxeen proportzioak nolabait behera egin du: 2015ean, % 72,0koa zen proportzioa, eta, 2019an, % 70,2koa.

Bilakaera horrek, baina, ez du okupazioaren adierazleen bilakaera positiboa asaldatu, loturiko beste adierazle batzuekin egiaztatu den bezala. Zentzu horretan, adibidez, lanean dabilen norbait daukaten familia-etxe edo familien proportzioa % 62,7tik % 63,9ra igaro da 2015-2019 aldian. Igoerarik handiena, ordea, pertsona aktibo guztiak lanean dituzten etxeei dagokie, 10. taulan ikus daitekeenez.

Taula horretan, halaber, honako hau beha daiteke: pertsona aktibo guztiak lanean dituzten familien proportzioak modu are deigarriagoan egin du aurrera, eta 2015ean % 52,5ekoa izatetik 2019an % 58koa izatera igaro baita (+5,5 portzentaje-puntu). Zalantzarik gabe, euskal gizartearen ongizatea hobetu duen prozesua ulertzeko funtsezko faktorea da hori.

**10. taula**
**Lanean kideren bat duten eta pertsona aktibo guztiak lanean dauzkaten familia-etxe edo familien proportzioa, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(etxeen %a)**

| | 2015 | 2019 | 2015 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| | Baten bat lanean | Baten bat lanean | Guztiak lanean | Guztiak lanean |
| Motak | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan |
| **GUZTIRA** | **62,7** | **63,9** | **52,5** | **58,0** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 35,2 | 37,3 | 35,2 | 37,3 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 35,8 | 50,4 | 35,8 | 50,4 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 52,2 | 37,8 | 40,4 | 33,1 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 43,7 | 49,3 | 36,7 | 44,9 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 92,8 | 97,1 | 74,4 | 87,0 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 29,2 | 32,0 | 25,6 | 29,7 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 92,5 | 93,4 | 74,2 | 82,3 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 93,9 | 94,0 | 74,0 | 82,9 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 86,9 | 91,5 | 74,9 | 80,4 |
| GURASO BAKARREKOA | 70,8 | 77,0 | 60,3 | 69,5 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 65,5 | 71,6 | 56,1 | 66,2 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 76,5 | 84,5 | 64,9 | 74,1 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 87,6 | 88,0 | 41,4 | 69,7 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

2015-2019 aldian izandako igoera 12,6 portzentaje-puntura iritsi da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan; talde horretan, pertsona aktiboen % 87 lanean ari dira 2019an, eta, 2015ean, % 74,4 ziren.

Igoera oso handia izan da, baita ere, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, +10,1 portzentaje-puntukoa (% 56,1etik % 66,2ra), eta hobekuntza hori mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten familietara ere iritsi da (% 64,9tik % 74,1era). Adierazle horren igoera 8,9 portzentaje-puntukoa izan da mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen familietan (% 74,0tik % 82,9ra).

Datuek erakusten dutenez, familia-nukleo baten inguruan eratutako familien barruan, okupazio-mailek hobekuntza handia izan dute, bai guraso izan aurreko etxeetan, bai mendeko seme-alabak dauzkatenetan.

Beste familia mota batzuetan ere, pertsona aktibo guztiak lanean dauzkaten familien proportzioari buruzko adierazleak hobera egin du 2015-2019 aldian: senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan (% 35,8tik % 50,4ra) eta nukleo anitzekoetan (% 41,4tik % 69,7ra).

*Langabeziaren jaitsiera*

Okupazioak 2015etik 2019ra bitartean izandako bilakaera ona langabeziaren dinamikan ere ikus daiteke, bere inpaktuak behera egin baitu. Hala, aldi horretan, langabezian zeuden lagunen proportzioa % 9,0tik % 5,9ra jaitsi da guztizko biztanlerian[10]. 9. taulan ikus daitekeenez, beherakada oso antzekoa izan da etxeko erreferentziazko pertsonen artean: % 9,2tik % 5,8ra.

Ildo berean, taulan ikus daitekeenez, etxeko unitate nagusiaren barruan langabeturen bat duten etxeen proportzioa % 19,5etik % 12,2ra jaitsi da 2015-2019 aldian. Joera beheranzkoa da, halaber, etxeko kide aktibo guztiak langabezian dauzkaten etxeetan: % 9,3tik % 6,3ra jaitsi da proportzioa.

Aztertutako aldian, lana lortzeko inpaktu kualitatibo eta kuantitatibo handiagoa duten taldeen barruan, etxeko unitate nagusian langabeturen bat duten etxeen ehunekoak -9,7 portzentaje-puntu egin ditu behera mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen familietan (% 24,8tik % 15,1era); -12,6 portzentaje-puntu guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (% 25,6tik % 13ra), eta -14,8 puntu mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan (% 36,7tik % 21,9ra).

Beherakada handia izan da, baita ere, beste familia-etxe eta familia batzuetan: -10,3 portzentaje-puntukoa senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan (% 18,8tik % 8,6ra) eta -9,3koa nukleorik gabeko etxe familiarretan (% 27,3tik % 18,1era). Adierazleak, baina, -26,9 portzentaje-puntuko beherakadarekin, nukleo anitzeko etxeetako unitate nagusietan izan du murrizketarik handiena, langabeturen bat duten etxeak 2015ean % 55,8 izatetik % 28,9 izatera igaro baitira 2019an.

Testuinguru on horretan, iraupen luzeko langabeziaren intzidentziari buruzko adierazleek ere nabarmen egin dute hobera. Zentzu horretan, 11. taulak jasotzen duen moduan, pertsona aktibo guztiak iraupen luzeko langabetu dauzkaten etxeen proportzioak % 5,3tik % 2,6ra egin du behera.

Ildo berean, urtebete baino gehiago langabezian daraman kideren bat duten familia-etxe edo familien proportzioa % 10,5etik % 5,4ra igaro da 2015-2019 aldian.

[10] Ikusi A.4 taula, taula osagarrien eranskinean.

**11. taula**

**Iraupen luzeko edo oso luzeko (>urte 1 eta >2 urte) langabezia-egoeran dagoen kideren bat duten familia-etxe/familien proportzioa eta pertsona aktibo guztiak iraupen luzeko edo oso luzeko langabezia-egoeran dauzkaten familia-etxe/familien proportzioa, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**

**(etxeen %a)**

| | Iraupen luzeko langabeziaren inpaktua (>urte 1) | | | | Iraupen luzeko langabeziaren inpaktua (>2 urte) | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2015 | 2019 | 2015 | 2019 | 2015 | 2019 | 2015 | 2019 |
| | Baten bat ILLan | Baten bat ILLan | Guztiak ILLan | Guztiak ILLan | Baten bat IOLLan | Baten bat IOLLan | Guztiak IOLLan | Guztiak IOLLan |
| Motak | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan |
| **GUZTIRA** | **10,5** | **5,4** | **5,3** | **2,6** | **7,5** | **3,1** | **3,9** | **1,6** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 7,8 | 3,4 | 7,8 | 3,4 | 6,6 | 2,5 | 6,6 | 2,5 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 13,8 | 3,0 | 13,8 | 3,0 | 6,5 | 3,0 | 6,5 | 3,0 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 15,1 | 4,3 | 12,7 | 2,3 | 9,7 | 2,3 | 7,6 | 2,3 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 5,7 | 2,6 | 2,7 | 0,8 | 3,6 | 1,5 | 1,8 | 0,6 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 10,4 | 4,2 | 5,1 | 0,8 | 5,2 | 2,8 | 2,5 | 0,8 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 4,3 | 2,0 | 2,1 | 0,8 | 3,2 | 1,1 | 1,6 | 0,5 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 12,0 | 7,4 | 2,5 | 2,2 | 8,0 | 3,8 | 1,5 | 0,9 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 11,7 | 7,1 | 1,5 | 1,8 | 7,5 | 3,9 | 0,8 | 0,9 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 13,1 | 8,2 | 6,4 | 3,6 | 10,1 | 3,2 | 4,2 | 0,9 |
| GURASO BAKARREKOA | 16,9 | 9,2 | 11,9 | 5,9 | 12,7 | 4,9 | 8,9 | 3,3 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 19,0 | 9,0 | 15,4 | 7,5 | 13,6 | 4,7 | 11,5 | 3,8 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 14,6 | 9,4 | 8,1 | 3,8 | 11,7 | 5,3 | 6,1 | 2,6 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 34,3 | 16,8 | 2,0 | 0,9 | 25,2 | 10,7 | 2,0 | 0,9 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Hobekuntza are biziagoa izan da iraupen oso luzeko langabeziari dagokionean (bi urte baino gehiagoz langabezian). Kasu horretan, bi urtez baino gehiagoz langabezia-egoeran dagoen kideren bat daukaten etxeen proportzioa % 7,5etik % 3,1era jaitsi da 2015-2019 aldian, eta murrizketa % 3,9tik % 1,6rakoa izan da pertsona aktibo guztiak iraupen oso luzeko langabezia-egoeran dauzkaten etxeen kasuan.

Hobekuntza orokorra bada ere, iraupen luzeko langabeziaren inpaktua familia-etxeen eta familien arabera aztertuz gero, bilakaera bereziki ona ikusi da familia mota batzuetan; hobekuntza hori, gainera, zertxobait ezberdina da familia motaren arabera.

Batetik, egiturazko langabeziaren inpaktuaren adierazleetan beherakada handia izan duten familia-etxe edo familia motak nabarmentzen dira, iraupen luzeko nahiz oso luzeko langabeziari dagokionez. Bilakaera hori izan dute senideak ez diren pertsona anitzeko etxeek, nukleo anitzeko etxeek eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeek.

Familia horietan, iraupen luzeko langabeturen bat duten etxeen proportzioak -10 portzentaje-puntu egin ditu behera 2015-2019 aldian, eta beherakada -7,5 portzentaje-puntukoa edo handiagoa da iraupen oso luzeko langabeziari begiratuz gero.

Familia-etxe edo familia mota horien barruan, nukleo anitzeko etxeek izan dute langabetuen beherakada handiena: jaitsiera % 34,3tik % 16,8rakoa izan da 2015-2019 aldian, iraupen luzeko langabeturen bat duten etxeen proportzioan, eta % 25,2tik % 10,7rakoa iraupen oso luzeko langabeturen bat dutenen kasuan. Nukleorik gabeko etxe familiarretan, iraupen luzeko langabeziaren beherakada % 15,1etik % 4,3rakoa izan da 2015-2019 aldian, eta % 9,7tik % 2,3rakoa iraupen oso luzeko langabezia aintzat hartzean. Ildo berean, iraupen luzeko langabeturen bat duten etxeen ehunekoak % 19,0tik % 9,0ra egin du behera mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, eta % 13,6tik % 4,7ra iraupen oso luzeko langabetuei erreparatuz gero.

Bilakaera hobea izan dutenen barruan, bigarren familia mota bat bereiz dezakegu, non adierazleek egiturazko langabeziaren bi denbora-dimentsioetan egin baitute hobera, nahiz eta EAEko maila orokorretatik hurbilago egon eta iraupen luzeagoko langabezia-egoeran hobekuntza handiagoa izan.

Bilakaera hori ikus dezakegu mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten familietan. Gurasoen familietan, iraupen luzeko langabeturen bat duten etxeen proportzioa murriztu egin 2015-2019 aldian, % 13,1etik % 8,2ra, eta, iraupen oso luzeko langabeturen bat dutenei begiratuz gero, beherakada % 10,1etik % 3,2rakoa izan da. Mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, adierazleak % 14,6tik % 9,4ra egin du behera iraupen luzeko langabeturen bat duten etxeei dagokienez, eta % 11,7tik % 5,3ra iraupen oso luzeko langabeturen bat duten etxeei dagokienez.

Kontrako zentzuan, familia mota batzuetan (senideak ez diren pertsona anitzekoetan eta guraso izan aurreko ezkontzazkoetan), iraupen luzeko langabeziaren inpaktuari buruzko adierazleak izandako beherakada orokorra gainditu du dinamikak, baina ez da hala gertatu iraupen oso luzeko langabeziari dagokionean.

Hala, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeen kasuan, 2015-2019 aldian, % 13,8tik % 3,0ra jaitsi da iraupen luzeko langabeturen bat duten etxeen proportzioa, eta % 6,5etik % 3,0ra iraupen oso luzeko

langabeturen bat dutenena. Guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan, datuek esaten dute beherakada % 10,4tik % 4,2rakoa eta % 5,2tik % 2,8rakoa izan dela, hurrenez hurrenez.

*Enplegu prekarioenen dinamikan dauden desberdintasunak, familia-etxe eta familia motaren arabera*

Halaber, 2015-2019 aldian hobekuntzak ikusi dira enplegu-modu prekarioenekiko mendekotasunari dagokionez (kontratu ezegonkorrak, kontraturik eza edo lan irregularra). Alabaina, hobekuntza horiek ez dira langabeziaren inpaktuaren bilakaeran ikusten direnak bezain argiak. Are, ez dira ikusten ez oro har, ez familia-etxe edo familia mota guztietan edo gehienetan ere.

12. taulan gaiari buruz jasotzen diren adierazle nagusiei erreparatuta egiaztatu denez, enplegu prekarioaren inpaktua % 7,8tik (2015) % 7,2ra (2019) jaitsi da etxeko erreferentziazko pertsonen artean. Alabaina, inpaktuak zertxobait gora egin du, % 7,7tik % 7,9ra, familia-etxeetan bizi diren guztizko biztanleen multzoan.

**12. taula**
**Enplegu prekarioa dutenen proportzioa, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(erreferentziazko pertsonen eta guztizko biztanleriaren %a)**

| | 2015 | 2019 | 2015 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| | Erreferentziazko pertsonak | Erreferentziazko pertsonak | Biztanleria, guztira | Biztanleria, guztira |
| | Enplegu prekarioa | Enplegu prekarioa | Enplegu prekarioa | Enplegu prekarioa |
| Motak | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan |
| **GUZTIRA** | **7,8** | **7,2** | **7,7** | **7,9** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 6,7 | 3,9 | 6,7 | 3,9 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 14,9 | 17,1 | 6,0 | 8,6 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 6,0 | 4,4 | 7,4 | 8,6 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 6,2 | 6,3 | 6,1 | 6,3 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 21,6 | 19,3 | 21,2 | 18,5 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 1,7 | 1,5 | 1,7 | 1,8 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 9,2 | 8,4 | 8,3 | 8,6 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 10,9 | 9,1 | 7,3 | 6,4 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 2,3 | 6,0 | 12,7 | 17,3 |
| GURASO BAKARREKOA | 8,0 | 12,0 | 8,6 | 10,8 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 12,4 | 17,1 | 6,1 | 8,9 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 3,1 | 4,9 | 11,5 | 13,7 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 4,8 | 6,9 | 7,4 | 11,3 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

13. taulan ere ikus daitekeen moduan, hobekuntza-lerroa arina da enplegu prekarioa duen kideren bat duten etxeetan, murrizketa % 16,7tik % 16,3rakoa izan baita 2015-2019 aldian. Gauza bera gertatzen da pertsona aktibo guztiak egoera prekarioan lanean dituzten etxeetan, beherakada % 5,9tik % 5,3rakoa izan baita 2015-2019 aldian.

**13. taula**
**Enplegu prekarioa duen kideren bat daukaten eta pertsona aktibo guztiak enplegu prekarioa batean lanean dauzkaten familia-etxe edo familien proportzioa, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(etxeen %a)**

| Motak | 2015 | 2019 | 2015 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| | Baten bat enplegu prekarioan | Baten bat enplegu prekarioan | Guztiak enplegu prekarioan | Guztiak enplegu prekarioan |
| | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan |
| **GUZTIRA** | **16,7** | **16,3** | **5,9** | **5,3** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 6,7 | 3,9 | 6,7 | 3,9 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 14,9 | 17,1 | 14,9 | 17,1 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 16,5 | 19,0 | 9,7 | 9,2 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 10,7 | 11,4 | 3,1 | 2,8 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 35,6 | 33,4 | 8,5 | 7,4 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 3,3 | 3,5 | 1,5 | 1,2 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 26,2 | 26,9 | 5,0 | 4,9 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 23,8 | 21,3 | 4,2 | 2,3 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 35,3 | 45,5 | 8,2 | 13,4 |
| GURASO BAKARREKOA | 19,5 | 23,6 | 11,9 | 15,1 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 15,4 | 21,4 | 14,1 | 15,9 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 23,8 | 26,6 | 9,5 | 14,0 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 30,9 | 35,7 | 1,2 | 4,3 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Bestalde, adierazleen bilakaera familia-etxe eta familia motaren arabera aztertzean ikusi denez, adierazleotan izan diren hobekuntzak pertsona bakarreko etxeetara, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetara eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetara mugatzen dira.

Enplegu prekarioa duen kideren bat egoteari dagokionez, eragindako etxeen proportzioa % 6,7tik % 3,9ra murriztu da pertsona bakarreko etxeetan. Aintzat hartutako familia moten artean, beherakada handiena izan da hori, baina lan-jardueratik urrunduta dauden adinekoen pisu handia duen taldea da. Murrizketa ez da hain handia izan adierazlean behera egin duten beste etxe batzuetan, zeinek, gainera, enplegu prekarioa zutenen inpaktu handia eduki baitzuten 2015ean. Hala, 2015-2019 aldian, enplegu prekarioa duen kideren bat daukaten etxeen proportzioak % 35,6tik % 33,4ra egin du behera guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan, eta % 23,8tik % 21,3ra mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan.

Guraso izan ondoko ezkontzazko familiak kenduta, adierazlea maila baxuetan egonkortzen baita horietan (2019an, % 3,5), enplegu prekarioan kideren bat daukaten etxeen proportzioak nabarmen egin du gora gainerako familia motetan. 2015etik 2019ra bitartean, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeek (% 35,3tik % 45,5era), mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeek (% 15,4tik % 21,4ra) eta nukleo anitzeko etxeek (% 30,9tik % 35,7ra) izan dituzte igoera deigarrienak.

2015-2019 aldian, igoera neurritsuagoa izan da mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan (% 23,8tik % 26,6ra), baina 2015ean EAEko adierazle orokorra argi eta garbi gainditzen zuten taldeetako bati eragin dio igoera horrek. Igoerak, halaber, senideak ez diren pertsona ugariko etxeei (% 14,9tik % 17,1era) eta nukleorik gabeko familiei (% 16,5etik % 19,0ra) eragin die.

### *2.1.3. Langabeziaren eta/edo enplegu prekarioaren inpaktua murriztu egin da, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan izan ezik*

Langabeziak bilakaera ona izan duenez, langabeziaren eta/edo enplegu prekarioaren inpaktu orokorra 2015etik 2019ra bitartean nabarmen murriztu dela egiaztatu dugu. Hala, familia-etxeetan bizi diren biztanleen artean, % 16,7tik % 13,8ra jaitsi da, eta beherakada hori % 17,0tik % 13,0rakoa izan da erreferentziazko pertsonen artean[11]. 9. taulan ikus daitekeenez, aintzat hartutako egoera prekarioren bat duten etxeek behera egin dute 2015-2019 aldian, % 33,6tik % 26,8ra. Eta pertsona aktibo guztiak langabezian edo enplegu prekario batean dauzkaten etxeek % 16,8tik % 12,8ra egin dute behera aldi horretan.

Hobekuntza-lerroak familia eta familia-etxe mota gehienei eragin die, baina modu berezian ukitu ditu guraso izan aurreko ezkontzazko familiak. Etxe horietan, lan prekarioa duen kideren bat duten etxeen kopurua % 59,2tik % 43,4ra jaitsi da (-15,7 portzentaje-puntu). Murrizketa oso nabarmena izan da, baita ere, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 44,1etik % 33,4ra) eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan (% 51,9tik % 41,4ra), -10 puntukoa baino zertxobait handiagoa.

Adierazlearen murrizketa-lerroa -7,9 eta -9,0 portzentaje-puntu artekoa izan da pertsona bakarreko etxeetan (% 19,1etik % 11,3ra), senideak ez diren pertsona anitzekoetan (% 33,7tik % 25,7ra) eta nukleo anitzekoetan (% 66,1etik % 57,1era). -2,5 portzentaje-puntukoa izan da nukleorik gabeko etxe familiarretan (% 37,0tik % 34,5era).

Hala ere, adierazi beharra dago joera askoz txarragoa dela beste familia mota batzuetan. Guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan, adibidez, egoera prekarioen presentzia egonkortu edo, are, areagotu ere egin dela ikusi dugu (% 8,8tik % 8,7ra eta % 44,2tik % 44,8ra, hurrenez hurren).

Beste kasu batzuetan, besteak beste mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, problematikak goranzko joera dauka argi eta garbi. Familia mota horretan, langabeziak edo enplegu prekarioak familien % 54,5ari eragiten zien 2015ean, eta, 2019an, % 59,8ri. Gainera, familia mota hori da aztertutako aldian pertsona aktibo guztiak langabezian edo enplegu prekario batean lanean dauzkaten etxeen proportzioa handitu duen bakarra (2015ean % 21,5ekoa izatetik 2019an % 23,8koa izatera pasa da).

Mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxe horietan bizi diren herritarrak eragindako guztien % 12,4 ziren 2015ean, eta, 2019an, % 17,5[12].

---

[11] Ikusi A.5 taula, taula osagarrien eranskinean.

[12] Ikusi A.6 taula, taula osagarrien eranskinean.

### 2.1.4. Familien eta familia-etxeen tipologia, okupazioari dagokionez, 2019an

Ikusi dugunez, lan-jarduerarekiko harremana oso ezberdina da familia-etxe eta familia motaren arabera. 9. taulatik 13. taulara jasotzen den informazio guztia aintzat hartuta, hurbilketa sintetiko batean, hainbat egoera adieraz daitezke 2019ari dagokionez.

*Lan-jarduerara orientatuago dauden eta prekarietate-egoera gutxiago dauzkaten familia-etxeak, oro har, guraso izan aurreko ezkontzazkoak eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoenak dira.*

2019an, okupaziora eta enplegura orientatuago daudela erakutsi dute guraso izan aurreko ezkontzazko familiek eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen familiek. Kasu horretan, etxeko erreferentziazko pertsonen % 80 baino gehiago lanean ari dira (% 90,0 eta % 82,3, hurrenez hurren). Familia mota horien % 94n gutxienez (% 97,1 eta % 94,0), familia-unitateko pertsona aktibo bat edo gehiago lanean ari da/dira.

Lan prekariorik ez duen kideren bat duten etxeen proportzioa oso altua da honako familia mota hauetan: mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeen % 90 eta guraso izan aurreko ezkontzazko etxeen % 86,8 (29,4 eta 32,6 portzentaje-puntu artean, EAEko % 57,4ren gainetik).

Horrek ez du esan nahi etxeetan lan-prekarietaterik ez dagoenik (langabezia edo prekarietatea enpleguan), baizik eta prekarietateak ez diela kide aktibo guztiei eragiten. Hala, familia-unitatean langabeturen bat edo lan prekarioren batean dabilen norbait daukaten etxeen proportzioa % 33,4koa da mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, eta % 43,4koa guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan. Dena dela, zifra horiek 10 portzentaje-puntu baino gehiagotan egin dute behera, 2015ekoekin alderatuz gero (% 59,2 eta % 44,1, hurrenez hurren).

Etxeetan prekarietate-arazoen presentzia handia badago ere, familia-unitateko kideren batek prekarioa ez den lana lortu ahal izan duenez, prekarietateak markatutako egoeren presentziak EAEko adierazlearen antzeko inpaktua edo inpaktu txikiagoa dauka kide aktiboengan. Azken hori bereziki agerikoa da mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, familia-unitateen % 8,0k baitauzkate kide aktibo guztiak langabezian edo lan prekarioan 2019an; beraz, EAEn baino -4,8 portzentaje-puntu gutxiago, % 12,8koa baita proportzio hori. Proportzioa zertxobait handiagoa da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan, % 13,2koa, batezbestekoa baino lau hamarren gehiago.

*Tarteko tokian dauden mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten etxe nuklearrak, nukleo anitzeko etxeak eta pertsona bakarreko etxeak*

Mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten askotariko familia motetan ere, lanean ari diren biztanle ugari daude. Hala, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeen % 91,5ek lanean ari den norbait daukate unitate nagusian, eta ehuneko hori % 84,5ekoa da mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan.

Mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten etxe mota horietan, ordea, prekarietate-egoera konplexuen presentziak EAEko maila orokorrak gainditzen ditu. Kasuen % 23,2n, familia-unitateko kide aktibo guztiak langabezian daude edo lan-egoera prekarioa dute aztertutako guraso bakarreko familietan, eta proportzioa hori % 23,8ra iristen da mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan. Adierazle horri buruz esan beharra dago 2015-2019an aldaketa handia hauteman

dela; izan ere, 2015ean, inpaktua txikiagoa zen azken talde horretan, % 21,5ekoa; hots, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiei dagokien % 25,7tik 4 portzentaje-puntu behera. Arrazoia honako hau da: mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeak dira familia mota bakarra non 2015-2019 aldian hazi egin baita familia-unitateko kide aktibo guztiak langabezian edo lan-egoera prekarioan dauzkaten etxeen proportzioa (% 21,5etik % 23,8ra).

Prekarietate-egoera hedatuen presentzia handia bada ere, gutxienez kide batek lan ez-prekarioa dauka mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten familia mota horietan: gurasoen etxeen % 75,7k (2015eko % 77,3tik jaitsi bada ere) eta guraso bakarreko familien % 69,8k (2015eko % 63,3tik 6,5 portzentaje-puntu gora).

Nukleo anitzeko etxeetan, adierazitako familia motek dutenaren antzeko egoera dago: etxe horien % 88,0k kideren bat lanean daukate, eta % 80,4k kideren bat enplegu ez-prekario batean daukate lanean (kasuen % 18,2k langabezian edo lan-egoera prekarioan dauzkate kide aktibo guztiak).

Nukleo anitzeko etxeetan, aldiz, arazo pertsonalen presentzia handiagoa da, langabeziari dagokionez behintzat. Hala, etxe horien % 28,9k gutxienez langabetu bat daukate unitate nagusian, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten familia nuklearren % 19tik nahiko hurbil. Proportzio hori nabarmen murriztu da, baina, 2015eko % 55,8tik.

2015ean, bestalde, lan-jarduerarekiko harremanari dagokionez, pertsona bakarreko etxeak etxerik prekarioenen taldekoak ziren, zalantzarik gabe. Kide aktiboak zeuzkaten etxeen % 40,1ek langabezian edo lan prekario batean lanean zituzten kide aktibo guztiak (% 19,1, kide aktiboak zeuzkaten etxeen % 47,6ren gainean). Adierazlea, ordea, nabarmen jaitsi da 2019an, % 25,2raino (% 11,3, % 44,6ren gainean). Zertxobait gainetik egon arren, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten etxeetarako balioesten diren % 23,9-24,9ko zifretara hurbildu da 2019an.

Pertsona bakarreko etxeetan, langabeziaren inguruko adierazleak modu deigarrian murriztu dira 2015-2019 aldian. Hala, pertsonaren bat langabezian edo lan-egoera prekarioan duten etxeen pisua % 11,3koa da, 2015eko % 19,1etik oso behera. Halaber, iraupen luzeko langabeziaren inpaktua ere gutxitu egin da pertsona aktibo guztien artean: etxeen % 7,8tik % 3,4ra.

Edonola ere, gogoratu beharra dago pertsona bakarreko etxeek badutela ezaugarri bat: biztanleria ez-aktiboaren pisua oso handia da (2019an, % 55,4koa, eta, 2015ean, % 52,4koa).

*Familia-nukleo batean oinarrituta ez dauden etxeak eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiak prekarioagoak dira*

Datuek erakusten dutenez, lan-egoera prekario nagusiek senideak ez diren pertsona anitzeko etxeei eta nukleorik gabeko etxe familiarrei eragiten diete. Familia-nukleoan oinarritzen direnetatik prekarietate handi-handia duen familia mota bakarra mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarrena da.

Honako hau da talde horien ezaugarri komuna: kide aktiboak dauzkaten etxeen % 35ek langabezian edo lan prekarioan dauzkate kide aktibo guztiak. Gehieneko proportzioa, % 49,2koa, nukleorik gabeko familia-etxeetan dago (% 25,2 daude egoera horretan, pertsona aktiboak dauzkaten etxeen % 51,2ren gainean). Senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, adierazle hori % 43,5ekoa da (% 25,7

% 59,0ren gainean), eta, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, % 39,0koa (% 34,4 % 88,1en gainean).

**Senideak ez diren pertsona anitzeko etxeak edo nukleorik gabeko etxe familiarrak**

Prekarietate-egoerek gehien ukitzen dituzten taldeetako bat da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeek eta nukleorik gabeko etxe familiarrek elkarrekin osatzen dutena. Kasu horretan, prekarietatearen edo langabeziaren pisuak oso altua izaten jarraitzen du 2019an, % 25eko atalasea gainditzen du-eta. Hala, kide aktibo guztiak edo langabezian edo lan prekario batean dauzkaten etxeen proportzioa % 25,7koa da senideak ez diren pertsona anitzeko familietan, eta % 25,2koa nukleorik gabeko etxe familiarretan.

Egiazki, arazoa are deigarriagoa da talde horietan, kontuan hartzen badugu gainerako taldeekin alderatuta dauzkaten kide aktiboen kopurua askoz ere txikiagoa dela. Kide aktiboak dauzkaten etxeetan, gainera, kide aktibo guztiak langabezian edo lan prekarioren batean dauzkatenen pisua ez da gehiegi urruntzen enplegu ez-prekario batean lanean dabilen norbait daukaten etxeen pisutik (% 25,2 nukleorik gabeko etxe familiarren % 26,0ren aurrean; % 25,7 senideak ez diren pertsona anitzeko etxeen % 33,3ren aurrean).

Azken laurtekoan behatutako aldaketa, baina, handia izan da familia-talde horretan, kide aktibo guztiak langabezian edo lan prekario batean dauzkaten etxeen proportzioak nabarmen egin baitu behera: senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, % 33,7tik % 25,7ra 2015-2019 aldian, eta, nukleorik gabeko etxe familiarretan, % 32,1etik % 25,2ra.

Hobekuntza nagusia iraupen luzeko langabezia-egoeren inpaktuan ikusi da, familia-unitateko kide aktibo guztiei eragiten dien arazo gisara. Hala, 2015etik 2019ra bitartean, eragindako etxeen proportzioa % 13,8tik % 3,0ra jaitsi da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan. Beherakada % 12,7tik % 2,3rakoa izan da, berriz, nukleorik gabeko etxe familiarretan.

**Mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiak**

Mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiek eratzen dute sozialki prekarioenetakoak diren taldeetako bat. Familia-unitateen % 71,6k lanean dabilen kideren bat eduki arren eta unitateen % 53,8k enplegu ez-prekario batean dabilen norbait eduki arren 2019an, familia horien % 41,4k langabezian edo enplegu prekario batean daukate kide aktiboren bat. Proportzioa % 34,4koa da, etxeko kide aktibo guztiak egoera horretan daudenean. Familia motaren arabera, horixe da ehunekorik altuena, eta EAEko adierazle orokorraren gainetik 21,6 portzentaje-puntura dago.

Langabeziaren inpaktua oso altua da guraso bakarreko familia mota horietan, % 21,9k langabezian baitaukate kideren bat. Kasuen % 16,5en, kide aktibo guztiak langabezian daude, eta proportzioa % 7,5ekoa da iraupen luzeko langabezia-egoeraren bat dutenak aintzat hartuz gero. Azken bi adierazle horiek EAEko batezbestekoa halako hiru dira.

2015-2019 aldiaren bilakaera, halere, ona izan da talde horretan. Hala, langabezia-egoeren presentziak % 36,7tik % 21,9ra egin du behera, eta kide aktibo guztiak langabezian dauzkaten egoeren inpaktua % 27,3tik % 16,5era jaitsi da. Halere, kide aktibo guztiak iraupen luzeko langabezian dauzkaten kasuek

izan dute beherakada handiena: mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familien % 15,4ri eragiten zien egoera horrek 2015ean, eta, 2019an, % 7,5i.

*Laneko prekarietatearen inpakturik txikiena guraso izan ondoko ezkontzazko etxeek daukate*

Laneko prekarietaterik txikiena, nolanahi ere, guraso izan ondoko ezkontzazko etxeei dagokie. Etxe horietako erreferentziazko pertsonen % 23,7 bakarrik dabiltza lanean; halere, biztanle ez-aktiboen pisua handia denez (etxe horien % 64,6n ez dago biztanle aktiborik), prekarietate-egoera konplexuen presentzia oso mugatua da. Etxe horien % 5,1ek soilik dauzkate kide guztiak langabezian edo lan prekario batean lanean: EAEko zifrarik baxuena da. Proportzioa % 8,7ra igotzen da, norbait inguruabar horretan duten etxeak aintzat hartzean.

## 2.2. Prekarietate ekonomikoa eta pobrezia

Atal honetan, prekarietate ekonomikoaren eta pobreziaren adierazle nagusiak aztertzen dira, FFEItik abiatuta.

### *2.2.1. Diru-sarrerak edukitzeko arazoak eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) edota etxebizitzarako prestazio osagarriaren (EPO) premia*

14. taulan, diru-sarrerak edukitzeari buruzko oinarrizko adierazleak jasotzen dira, EAEko familia-etxe edo familia motaren arabera.

**14. taula**
**Diru-sarrerak edukitzeari buruzko oinarrizko adierazleak, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019 arteko aldia**

| | 2015 | 2019 | 2015 | 2019 | 2015 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Diru-sarrerarik gabeko pertsonak (EP) | Diru-sarrerarik gabeko pertsonak (EP) | Inor ere ez diru-sarrerekin | Inor ere ez diru-sarrerekin | Etxean DSBE/EPO jaso | Etxean DSBE/EPO jaso |
| Motak | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan |
| **GUZTIRA** | **13,1** | **10,1** | **0,9** | **0,7** | **5,9** | **4,9** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 1,9 | 1,2 | 1,9 | 1,3 | 9,2 | 7,4 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 3,2 | 4,2 | 3,2 | 4,2 | 18,1 | 13,0 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 3,9 | 0,0 | 3,9 | 0,0 | 13,2 | 10,7 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 21,3 | 15,3 | 0,3 | 0,4 | 1,7 | 0,9 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 12,7 | 6,3 | 1,5 | 0,7 | 1,8 | 1,1 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 23,9 | 18,5 | 0,0 | 0,2 | 1,7 | 0,8 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 13,6 | 11,6 | 0,1 | 0,1 | 2,6 | 3,5 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 11,3 | 10,0 | 0,0 | 0,1 | 3,1 | 4,5 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 22,5 | 16,9 | 0,1 | 0,0 | 0,6 | 0,0 |
| GURASO BAKARREKOA | 2,3 | 1,5 | 1,8 | 0,6 | 15,5 | 10,1 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 3,5 | 2,1 | 3,5 | 1,0 | 24,5 | 16,8 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 1,0 | 0,7 | 0,0 | 0,0 | 5,9 | 0,7 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 20,9 | 15,9 | 0,0 | 2,0 | 0,0 | 5,8 |

Oharrak:
Familia-etxeko edo familiako erreferentziazko pertsonetan (EP), etxeko erreferentziazko pertsona eta bere ezkontidea/bikotekidea sartzen dira.
Diru-sarrerarik gabeko pertsonen adierazleak 25 urtetik gorakoei aplikatzen zaizkie (edo ikasleak ez diren 18 urtetik gorakoei).
Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

2019an EAEko biztanleriaren lan-egoera hobetu izanaren ondorioz, diru-sarrerarik gabeko 25 urtetik gorako (edo ikasleak ez diren 18 urtetik gorako) pertsonen proportzioak behera egin du. Aintzat hartu den biztanlerian, 2015eko % 11,8tik 2019ko % 9,2ra jaitsi da[13]. 14. taulan ikus daitekeenez, jaitsiera % 13,1etik % 10,1erakoa izan da etxeko erreferentziazko pertsonen artean.

Azken adierazle hori aintzat hartuta, honako hauek dira egoera hobea duten familiak, beherakadak -5 portzentaje-puntukoak edo handiagoak izan baitira beti: ezkontzazko etxeak (guraso izan aurrekoak eta guraso izan ondokoak), mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeak eta nukleo anitzeko etxeak. Kontrako tokian, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan bakarrik ikusi da gainbehera, diru-sarrerarik ez duten erreferentziazko pertsonen proportzioa % 3,2tik % 4,2ra igo baita.

Multzoan hartuta, aintzat hartutako pertsona guztiak diru-sarrerarik gabe dauzkaten etxeak guztizkoaren % 0,7 dira 2019an, 2015ean baino zertxobait gutxiago (% 0,9). Dena dela, bi taldetan, jatorri atzerritarreko biztanleen barne-pisu handiena dutenetan, diru-sarrera gabeziaren inpaktuak gora egin du 2015-2019 aldian. Nukleo anitzeko etxeak (2019an, pertsonen % 2k ez daukate diru-sarrerarik) eta senideak ez diren pertsona anitzeko etxeak (% 4,2 daude egoera horretan) dira taldeok.

DSBE/EPO sistemara sartzeko betekizunek eta zehapen-neurri edo antzekoen aplikazioak dinamika horri eragiten dioten arren, egoera ekonomikoa hobetu egin denez, murriztu egin da sistema horretara jo behar duten familien proportzioa. Hala, proportzioa % 5,9tik % 4,9ra jaitsi da 2015-2019 aldian.

Kasu honetan, sistemara sartzeko adierazlea nabarmen jaitsi da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, DSBE/EPO sistemara sartzen direnen proportzioak %18,1etik % 13,0ra egin baitu behera 2015-2019 aldian. Murrizketa hori deigarria da, baita ere, guraso bakarreko etxeen multzoan, aldi horretan % 15,5etik % 10,1era jaitsi baita proportzioa.

Alabaina, DSBE/EPO sisteman dauden nukleo anitzeko etxeen proportzioa % 5,8ra igo da. Era berean, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, DSBE/EPO sisteman daudenen proportzioak gora egin du (% 3,1etik % 4,5era).

### *2.2.2. Pobreziaren eta prekarietate ekonomikoaren adierazleak*

FFEIk pobrezia neurtzeko adierazle espezifiko batzuk sartu ditu 2019an lehen aldiz. Emaitza nagusiek diotenez, adierazleek hobera egin dute, Gizarte Premien Inkestaren 2018ko PGDI moduluan lortutakoekin alderatuz gero. Adierazleen hobekuntza-lerro hori honako puntu hauetan laburbil daiteke:

---

[13] Ikusi A.7 taula, taula osagarrien eranskinean.

*1 eta 15 urte arteko adingabeen prekarietate-adierazleak*

FFEIk 1 eta 15 urte arteko adingabeentzako prekarietate-adierazle batzuk eman ditu 2019an. Informazio hori 15. taulan jasotzen da.

**15. taula**
**Adingabeen gabeziak. 2016-2019**
**Familia-etxeetan bizi diren 1 eta 15 urte arteko biztanleak**
**(talde bakoitzeko biztanleen %a)**

| Adierazleak | Azterketa-urtea | | |
|---|---|---|---|
| | 2016 | 2018 | 2019 |
| | % | % | % |
| Proteinadun janaririk ez egunero | 2,3 | 1,9 | 1,9 |
| Frutarik edo barazkirik ez egunero | 1,5 | 1,0 | 1,2 |
| Ez dauzka bi zapata-pare (edo urteko garai bakoitzerako bat) | 1,6 | 4,0 | 2,1 |
| Ez dauka arropa berririk | 5,5 | 8,7 | 5,0 |
| Aisialdirako ekipamendurik ez (aire zabalerako) | 3,7 | 5,6 | 3,8 |
| Ezin ditzakete une bereziak ospatu | 5,6 | 7,5 | 4,7 |
| **Oinarrizko arazo oso larriak** | **3,5** | **5,4** | **3,0** |
| **Oinarrizko beste arazo batzuk** | **5,9** | **6,3** | **4,7** |
| **OINARRIZKO ARAZO NAGUSIAK** | **9,4** | **11,8** | **7,8** |

Iturria: PGDI 2016 eta GZEE-GPI 2018 eta FFEI 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Adierazle horien dinamikak honako joera positibo hauek islatzen ditu 2018-2019 aldirako:

- Bi zapata-pare (edo urteko garai bakoitzerako bat) ez dauzkaten adingabeen proportzioa % 4tik % 2,1era jaitsi da.

- Arropa berririk ez dutenen proportzioa % 8,7tik % 5era aldatu da.

- Halaber, aire zabaleko aisialdirako ekipamendurik ez daukatenen proportzioa murriztu egin da (% 5,6tik % 3,8ra).

- Une bereziak ospatu ezin ditzaketen adingabeen proportzioa % 7,5etik % 4,7ra jaitsi da.

Behatutako dinamika on hori adierazle orokorragoetara hedatu da. Hala, 2018-2019 aldian, oinarrizko arazo oso larriak dauzkaten adingabeen proportzioa % 5,4tik % 3ra jaitsi da, eta oinarrizko beste arazo batzuen intzidentziak % 6,3tik % 4,7ra egin du behera. Multzoan hartuta, oinarrizko arazo guztiak aintzat hartuz, 1 eta 15 urte arteko biztanle kaltetuen ehunekoa % 11,8tik % 7,8ra murriztu da.

Halere, adierazi beharra dago adierazle batzuk egonkor daudela edo zertxobait okertu direla. Halaxe gertatu da egunero proteinadun janaririk ez duten adingabeekin (% 1,9 2018an nahiz 2019an), eta egunero frutak edo barazkiak jateko aukerarik ez dutenen proportzioak pixka bat gora egin du (2018ko % 1etik 2019ko % 1,2ra). Dena dela, adierazi beharra dago 2019ko adierazlea 2016koaren azpitik dagoela (% 2,3 eta % 1,5, hurrenez hurren). Besteak beste, alderdi horietan ikusi da argien 2016-2018 aldian kolektiborik pobreenen egoera sozioekonomikoak hobera egin duela.

*Bizi-baldintzei eta etxebizitzetako ekipamenduari buruzko adierazleak*

16. taulan, etxebizitzako bizi-baldintzei buruzko adierazle nagusien inguruko informazioa jasotzen da.

**16. taula**

**Pilaketa-dimentsioko (ondarea eta bizi-baldintzak) gabeziaren adierazle espezifiko batzuen bilakaera. Etxebizitzaren instalazioak eta bizigarritasun-baldintzak. 1986-2019**

**Intzidentzia %-tan**

**Familia-etxeetako biztanleak**

| | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | 2014 | 2016 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adierazleak | % | % | % | % | % | % | % | % | % | % |
| Ur berorik gabe | 3,6 | 0,6 | 0,3 | 0,9 | 0,1 | 0,0 | 0,1 | 0,0 | 0,4 | 0,2 |
| Instalazio elektrikorik gabe | . | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,2 |
| Bainuontzi edo dutxarik gabe | 4,7 | 0,4 | 0,3 | 0,9 | 0,4 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,1 |
| Komun-ontzirik edo bainuontzi/dutxarik gabe | . | 0,4 | 0,3 | 0,9 | 0,4 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,1 |
| Hezetasun-arazoak etxebizitzan | 29,9 | 5,1 | 8,9 | 9,6 | 7,7 | 8,8 | 11,8 | 12,3 | 14,2 | 11,6 |
| Azalera < 20 metro karratu/pertsona | 44,1 | 32,5 | 28,5 | 21,3 | 15,0 | 14,9 | 13,3 | 12,7 | 13,1 | 13,1 |
| Zaraten/kutsaduraren eraginpean | . | 20,2 | 20,2 | 16,0 | 11,0 | 13,9 | 8,5 | 9,2 | 9,2 | 6,3 |
| Argiztapenik edo argi nahikorik ez | . | . | . | 8,8 | 5,7 | 12,2 | 3,3 | 5,4 | 4,0 | 4,4 |
| Baldintzarik gabeko etxebizitza | . | 1,0 | 1,1 | 2,1 | 0,8 | 0,5 | 0,5 | 1,2 | 0,5 | 0,2 |
| Baldintzarik gabeko etxebizitza edo ez-nahikoa | . | 8,7 | 8,1 | 6,6 | 3,7 | 3,2 | 2,5 | 4,4 | 2,7 | 1,7 |

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016, GZEE-GPI 2014-2018 eta FFEI 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE/

Taula horretan ikus daitekeenez, adierazleak 2018-2019 aldian oro har egonkor mantendu dira, edo hainbat alderditan hobetu.

Zentzu horretan, nabarmen jaitsi da hezetasun-arazoak dauzkaten etxebizitzetan bizi diren herritarren ehunekoa: % 14,2tik (2015) % 11,6ra (2019). Aintzat hartutako arazoen inpaktua nabarmen jaitsi da, baita ere, zaraten edo kutsaduraren eraginpean egoteari buruzko adierazlean, % 9,2tik % 6,3ra. Bestalde, ez dago goranzko aldaketa adierazgarririk: gaizki argiztatutako edo argi nahikorik gabeko etxebizitzen proportzioa % 4,0tik % 4,4ra igo dela aipa dezakegu, ez besterik.

Muturreko gabeziak (ura, elektrizitatea eta abar) desagertu egin diren testuinguru honetan, etxebizitzaren balditzen inguruko pertzepzioa hobetu egin da. Hala, bizigarritasun-baldintzarik gabeko etxebizitzen proportzioa % 0,5etik % 0,2ra jaitsi da 2015-2019 aldian. Baldintzarik gabeko edo baldintza nahikorik gabeko etxebizitzen proportzioa, bestalde, % 2,7tik % 1,7ra murriztu da. Beraz, etxebizitzetako bizi-baldintza larrienek oso inpaktu txikia daukate euskal familietan.

17. taulan, etxebizitzaren barruko oinarrizko ekipamenduak lortzeari buruzko informazioa jasotzen da.

Dimentsio horretan ere, datuek dinamika ona erakusten dute. Hala, ekipamendu espezifikoen inguruko gabeziak oso maila baxuetan daude, eta labea edo mikrouhin laberik ez duten familiak % 0,6 dira (gabezia baliabide ekonomikoen faltari lotu ala ez). Oro har, arrazoi ekonomikoak tarteko direla, ekipamendu oso oinarrizko baten gabezia % 0,9tik % 0,4ra jaitsi da 2018-2019 aldian.

**17. taula**
**Pilaketa-dimentsioko ondarea eta bizi-baldintzak) gabeziaren adierazle espezifiko batzuen bilakaera. Etxebizitzako ekipamendua. 1986-2019**
**Intzidentzia %-tan**
**Familia-etxeetako biztanleak**

| Adierazleak | 1986 % | 1996 % | 2000 % | 2004 % | 2008 % | 2012 % | 2014 % | 2016 % | 2018 % | 2019 % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hozkailua | | 0,1 | 0,1 | 0,8 | 0,1 | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 0,0 | 0,0 |
| Sukaldeko ekipamendua | 5,8 | 0,1 | 0,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Garbigailua | 6,0 | 0,6 | 0,3 | 0,3 | 0,1 | 0,1 | 0,0 | 0,1 | 0,4 | 0,2 |
| Labea edo mikrouhin labea | . | 4,6 | 5,2 | 5,1 | 1,8 | 0,9 | 0,6 | 1,0 | 0,6 | 0,6 |
| Koloretako TB | 26,4 | 0,7 | 0,4 | 1,2 | 0,4 | 0,1 | 0,1 | 0,5 | 0,5 | 0,1 |
| Telefonoa | . | . | . | 1,9 | 0,6 | 0,2 | 0,2 | 0,3 | 2,0 | 0,5 |
| Interneteko konexioa | | | | | | | | 18,7 | 14,2 | 12,6 |
| Bi gabezia edo gehiago ekipamendu oso oinarrizkoetan | . | 0,4 | 0,2 | 0,9 | 0,1 | 0,0 | 0,1 | 0,0 | 0,1 | 0,1 |
| Gabezia bat ekipamendu oso oinarrizkoetan | . | 2,2 | 1,7 | 2,1 | 1,1 | 0,6 | 0,7 | 0,3 | 0,9 | 0,3 |
| Gabeziaren bat ekipamendu oso oinarrizkoetan | . | 2,5 | 1,9 | 3,0 | 1,2 | 0,6 | 0,8 | 0,4 | 0,9 | 0,4 |
| Gabeziaren bat ekipamendu oso oinarrizkoetan edo Interneteko konexioan | . | 2,5 | 1,9 | 3,0 | 1,2 | 0,6 | 0,8 | 4,8 | 3,6 | 2,4 |

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016, GZEE-GPI 2014-2018 eta FFEI 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE
Oharrak: Oinarrizko gabeziaren adierazle sintetikoak baliabide ekonomikorik ez edukitzearen ondorioz ez izateari baino ez daude lotuta. Gainerakoek bestelako edozein arrazoi biltzen dute, ekonomikoa izan zein ez.

Interneteko konexioan, halakorik ez duten etxeetan bizi diren herritarren proportzioak ere beherantz egiten jarraitzen du: % 18,7 2016an, % 14,2 2018an eta % 12,6 2019an. Ekipamendu oso oinarrizko baten edo Interneteko konexioaren gabezia oro har hartuta, arrazoi ekonomikoengatik beti, agerikoa da bilakaera ona dela. Hala, gabezia-egoera horretan dauden pertsonen proportzioa 2016ko % 4,8tik 2018ko % 3,6ra jaitsi da, eta hortik 2020ko % 2,4ra.

*Pobreziaren pertzepzio subjektiboa*

18. taulan, EAEko familia-etxe eta familietako herritarrek pobrezia-egoeren inguruan duten pertzepzioari buruzko informazioa jasotzen da.

**18. taula**
**Benetako pobreziaren adierazleak. Pertzepzio subjektiboa. 1986-2019**
**Familia-etxeetako biztanleak**
**(Intzidentzia %-tan)**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | 2014 | 2016 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Pobreak edo oso pobreak | 17,6 | 2,1 | 2,2 | 3,2 | 2,1 | 3,0 | 2,6 | 3,0 | 2,7 | 1,1 |
| Gutxienez, pobre samarra | | 7,8 | 6,5 | 7,6 | 6,5 | 7,9 | 7,2 | 6,2 | 6,0 | 3,5 |

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016, GZEE-GPI 2014-2018 eta FFEI 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Taulan ikus daitekeenaren arabera, pobreziaren pertzepzio subjektiboaren dinamikak bat egiten du pobrezia-adierazleen joera oro har onarekin. Bada, beren burua pobretzat edo oso pobretzat daukaten familietako herritarren ehunekoa % 2,7tik (2018) % 1,1era (2019) jaitsi da. Bere burua pobre samartzat jotzen duen kolektiboa ere aintzat hartuz gero, murrizketa % 6tik % 3,5erakoa izan da 2018-2019 aldian.

### 2.2.3. Prekarietate ekonomikoaren mailetan dauden desberdintasunak, familia eta familia-etxe moten arabera

2018tik 2019ra bitartean bilakaera ona izan bada ere, familia motaren araberako desberdintasunak deigarriak dira prekarietate ekonomikoaren adierazleei dagokienez, 14. taulan edo 19. taulan beha daitekeen bezala; 19. taulan, pobreziaren pertzepzio subjektiboari buruzko informazioa jasotzen da (gutxienez, pobre samarra), familia-etxe edo familia motaren arabera.

**19. taula**
**Pobreziaren pertzepzio subjektiboa, familia-etxe edo familia motaren arabera. 2019**
**Familia-etxeetako biztanleak**
**(Intzidentzia %-tan)**

| Familia-etxe edo familia mota | Gutxienez, pobre samarra |
|---|---|
| **GUZTIRA** | **3,5** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 5,8 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 16,6 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 4,1 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 2,3 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 4,3 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 1,6 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 2,3 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 2,5 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 1,8 |
| GURASO BAKARREKOA | 9,6 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 14,7 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 1,4 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 1,7 |

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016, GZEE-GPI 2014-2018 eta FFEI 2019.
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

*DSBE/EPO sistemarekiko mendekotasun handiagoa dago pertsona bakarreko etxeetan, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, nukleorik gabeko etxe familiarretan eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan*

Gutxieneko baliabide ekonomikoak jasotzeko helburuz DSBE/EPO sistemaren mende dauden familiei begiratuz gero, euskal etxeetan banaketa argia dagoela ikus daiteke.

Batetik, DSBE/EPO sistemara jotzen dute seme-alabarik gabeko familia nuklearren % 1ek edo gutxiagok (% 1,1ek guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan, eta % 0,8k guraso izan ondokoetan) eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familien % 0,7k; mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, zifrak ia-ia ezdeusak dira.

Talde horietan, pobreziaren pertzepzioa (gutxienez, pobre samarra) maila baxuetan egon ohi da, % 1,4ren eta % 1,8ren artean. Alabaina, proportzioa % 4,3ra iristen da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetako herritarrengan.

DSBE/EPO sistemara sartzeari dagokionez, tarteko tokian daude mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeak (% 4,5) eta nukleo anitzeko etxeak (% 5,8), EAEko adierazle orokorretik hurbil. Eta, batezbestekoa baino pixka bat gorago, pertsona bakarreko etxeak daude, % 7,4rekin. Hain zuzen ere, familia eta familia-etxe mota horien artean, horixe da EAEko adierazle orokorra gainditzen duen

bakarra, pobreziaren pertzepzioa % 5,8koa baita. Beste familia motetan, proportzioa txikiagoa da, % 2,5ekoa mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, eta % 1,7koa nukleo anitzekoetan.

Bestalde, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan eta nukleorik gabeko etxe familiarretan, DSBE/EPO sistemarako sarbideak argi eta garbi gainditu du EAEko erregistro orokorra, eta eragindako familien % 10eko atalasea sobera gainditu da (% 13,0 eta % 10,7, hurrenez hurren). Familia-nukleo batean oinarritutako etxeetan, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiak bakarrik daude egoera horretan, 2019an familia horien % 16,8k jo dutelako prestazioen sistemara: familia-etxe eta familia moten arabera, horixe da mailarik altuena.

Pobreziaren pertzepzio subjektiboa oso altua da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan (% 16,6) eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan (% 14,7). Nukleorik gabeko etxe familiarrak, aldiz, EAEko adierazle orokorra baino zertxobait gorago daude (% 4,1).

Nukleorik gabeko etxe familiarrak kenduta, horien artean ez baita diru-sarrerarik gabeko etxerik detektatu, aipaturikoak dira etxean inolako diru-sarrerarik ez daukaten familia motetako batzuk: % 1 mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan, eta % 4,2 senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan (azken hori 2019ko proportziorik altuena da). Antzeko mailetan, pertsona bakarreko etxeak eta nukleo anitzekoak aipatu behar dira (% 1,3 eta % 2, hurrenez hurren). Guraso izan aurreko ezkontzazko etxeen % 0,7 salbu, gainerako familia-etxe eta familia motetan, nukleorik gabeko etxe familiarrak barne hartuta, diru-sarreren erabateko gabeziaren inpaktua % 0,0ren eta % 0,2ren artean dago; beraz, etxe mota horietan, bazterreko kontua da ia-ia.

*Ezkontzan edo bikotean oinarritzen diren familietako erreferentziazko pertsonen artean, diru-sarreren gabeziaren proportzioa handia da, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeak kenduta*

DSBE/EPO sistema egoteak berak nolabaiteko paradoxa dakar berekin; izan ere, inolako diru-sarrerarik ez duten lagunen proportzioa EAEko adierazle orokorra baino askoz txikiagoa da prestazio horretara gehien jotzen duten etxeetan. Hala, pertsona bakarreko etxeetan, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, nukleorik gabeko etxe familiarretan eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan, diru-sarrerarik ez duten erreferentziazko pertsonen proportzioa EAEko % 10,1 baino askoz ere txikiagoa da. Familia-etxe edo familia mota horietan, gehieneko proportzioa % 4,2koa da, eta senideak ez diren pertsona anitzeko etxeei dagokie.

DSBE/EPO sistemara hainbeste jotzen ez duten taldeetan edo EAEko adierazle orokorretik hurbil daudenetan, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan bakarrik ikus daiteke antzeko proportzioa, diru-sarrerarik ez duten erreferentziazko pertsonen % 5 baino txikiagoa beti. Guraso bakarreko familia horietan, erreferentziazko proportzioa % 0,7koa baino ez da.

Alabaina, etxerako laguntza osagarrien premia konparazio batera baxua bada ere, DSBE/EPO sistemarako sarbide mugatua duten gainerako etxe motetan, diru-sarrerarik ez duten erreferentziazko pertsonen proportzioa adierazgarria da, eta, normalean, EAEko % 10,1 orokorretik hurbil dago, edo handiagoa da. Hala, diru-sarrerarik ez duten erreferentziazko pertsonen proportzio handiagoa duten taldeetan, honako hauek aipatu behar dira: guraso izan ondoko ezkontzazko etxeen % 18,5, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeen % 16,9, nukleo anitzeko etxeen % 15,9 eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeen % 10,0. Halere, kasu guztietan ikus daitezke beherakadak 2015etik hona, oro har -5 portzentaje-puntutik gorakoak, mendeko seme-alabak

dauzkaten gurasoen etxeen salbuespenarekin, 2015-2019 aldian -1,3 portzentaje-puntuko murrizketa egon baita (2015eko % 11,3tik 2019ko % 10,0ra).

Diru-sarrerarik gabeko erreferentziazko pertsonen proportzioak beheranzko joera indartsua duela ikus daiteke, halaber, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan, 2015-2019 aldian % 12,7tik % 6,3ra jaitsi baita. Beherakada horrekin, DSBE/EPO sistemara gutxi jotzen duen familia mota horrek EAEko % 10,1 orokorraren azpian kokatzea lortu du argi eta garbi, 2015ean ez bezala.

## 2.3. Etxebizitza eskuratzearen inguruko alderdiak

20. taulak etxebizitzaren edukitze-erregimenaren banaketa aurkezten du, etxe edo familia motaren arabera. Taulan azaltzen denez, etxebizitza eskuratzeko prozesuetan, EAEn jabetza da nagusi 2019an. Hala, familien % 84,8k edukitze-modu horren bidez eskuratu dute etxebizitza; % 12,1ek alokairuaren bidez, % 3,0k erabiltzeko lagapenaren bidez, eta % 0,1ek okupazioaren bidez.

2015ean ikusitako egoerari dagokionez, ez da aldaketa handirik hauteman. Ikuspegi horretan, dinamikarik azpimarragarrienak alokairuaren beherakadarekin dauka zerikusia: 2015etik 2019ra bitartean, % 13,0tik % 12,1era egin du behera. Jabetzaren pisuak eta erabiltzeko lagapenak zertxobait gora egin dute: % 84,3tik % 84,8ra eta % 2,7tik % 3,0ra, hurrenez hurren.

### *2.3.1. Etxebizitza eskuratzeko moduak, familia-etxe eta familia moten arabera*

Askotariko familia-etxe eta familia motetan etxebizitza eskuratzeko orduan nagusi diren moduak ezberdinak dira 2019an.

*Jabekidetza seme-alabak dauzkaten ezkontzazko eta gurasoen etxe gehienetan*

Ezkontza- edo bikote-nukleo batean oinarrituta dauden etxe gehienetan, bi egoiliar edo gehiagoren jabekidetza da modu nagusia. Guraso izan aurreko ezkontzazko etxeak izaki salbuespen bakarra, etxebizitza eskuratzeko modu horrek ezaugarritzen ditu seme-alabak dauzkaten ezkontzazko edo gurasoen etxeetako familien % 60 baino gehiago: proportzioa % 60,1ekoa da mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen familietan, %65,8koa guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan eta gehienez ere % 70,3koa mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan.

Pertsona bakarraren jabetza % 23,4ren eta % 29ren artean dabil kasu horietan, eta, oro har, alokairuak oso zifra txikiak dauzka (% 2,2 mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, eta % 3,1 guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan). Hala ere, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, proportzioa % 14koa da.

*Pertsona bakarrera mugatutako jabetza pertsona bakarreko etxeetan eta guraso bakarreko familietan*

Pertsona bakarreko etxeetan eta guraso bakarreko askotariko familia motetan, jabetzaren pisua (kasu honetan, pertsona bakarrera mugatua) erabakigarria da. Hala, edukitze-erregimen horrek ezaugarritzen ditu pertsona bakarreko etxeen % 72,6, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familien % 66 eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familien % 52,7. Mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, egoiliar biren edo gehiagoren jabekidetza adierazgarria da, % 17,4rekin.

Etxe mota horietako batzuetan, halaber, etxean bizi direnen eta bertan bizi ez direnen arteko jabekidetzak garrantzitsuak dira, baita senideen etxebizitza-lagapenak ere: % 18,2 mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan (% 6,7 mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten etxeetan), eta % 16,7 pertsona bakarreko etxeetan.

Gehiengoa ez bada ere, alokairua dezente nabarmentzen da mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, % 26,3rekin (% 7,3 alokairu sozialaren araubidean, horixe izaki familia-etxe edo familia moten arabera proportziorik altuena). Proportzioa % 9,7koa da pertsona bakarreko etxeetan, eta % 9,9koa mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan.

*Alokairuaren pisua, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan*

Aurreko taldeetan ikusitakoaren kontrara, alokairuaren pisua nabarmena da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan; are, horixe da etxebizitza eskuratzeko araubiderik erabiliena: kasuen % 48,2, etxeko kide baten jabetzari loturiko % 40,9ren aurrean. Alokairuari dagokionez, nabarmentzekoa da kasuen % 25,9n etxeko hainbat kidek alokairukidetzara jo dutela (% 19,7 alokairu librean eta % 2,5 alokairu sozialean).

*Jabekidetza murritza da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan*

Guraso izan aurreko etxeena da errealitaterik konplexuena. Kasu horretan, beste familia mota batzuekin alderatuz gero, alokairuaren pisua altua da, familien % 23,7 egoera horretan baitaude (% 3,5 alokairu sozialean). EAEko maila orokorretik gora baita ere, senideen lagapenak familia horien % 5,7 ezaugarritzen ditu.

Alabaina, jabetza da familia horiek etxebizitza eskuratzeko orduan gehien erabiltzen duten metodoa (% 70,4). Bizikide biren edo gehiagoren jabekidetza, baina, oso baxua da, ezkontzan edo bikotean oinarritutako nukleoek egin ohi dutenarekin alderatuz gero: % 26,4k jotzen dute bide horretara, etxeko kide bakarraren jabetzari dagokion % 41,8ren azpitik. Bikotekide bakarraren jabetzaren pisua da, beraz, familia mota horien ezaugarririk deigarriena.

Etxebizitza eskuratzeko erregimenak antzeko ezaugarriak dauzka nukleorik gabeko etxe familiarretan: etxebizitzako kide bakarraren jabetzak % 40,4ko proportzioa dauka, eta beste egoiliar batzuekin partekatutako jabetzak % 24,9koa.

Nukleorik gabeko etxe familiarretan, halaber, bizikideak ez direnekin partekatutako jabetza mistoa adierazgarria da (% 17,8). Multzoan hartuta, etxebizitza eskuratzeko bi modu horiek biztanleen %42,8 ezaugarritzen dituzte, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeen % 28,6ren gainetik. Alokairuaren pisua, ordea, % 16,3koa da, guraso izan aurreko ezkontzako etxeetan ikusitakotik behera.

**20. taula Familia-etxeak/Familiak: Etxebizitzaren edukitze-erregimenaren banaketa, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(% horizontalak, familia-etxe edo familia guztien gainean)**

| | | Familia-etxeak | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Etxeko kide bakarraren jabetza | Biren edo gehiagoren jabekidetza | Jabekidetza mistoa | Senide baten lagapena | Administrazio baten lagapena | Enpresak erabiltzeko lagatakoa | Alokairu soziala | Alokairu librea | Etxeko hainbat kideren alokairukidetza | Okupazioa |
| Motak | | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan |
| 2019 | **GUZTIRA** | **43,9** | **35,7** | **5,1** | **3,0** | **0,1** | **0,0** | **2,6** | **9,1** | **0,4** | **0,1** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 72,6 | 0,8 | 10,7 | 5,9 | 0,0 | 0,0 | 3,6 | 6,1 | 0,0 | 0,3 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 40,9 | 0,0 | 11,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 2,5 | 19,7 | 25,9 | 0,0 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 40,4 | 24,9 | 17,8 | 0,5 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 16,3 | 0,0 | 0,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 32,4 | 55,3 | 1,7 | 1,9 | 0,1 | 0,0 | 1,7 | 6,8 | 0,0 | 0,1 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 41,8 | 26,4 | 2,2 | 5,7 | 0,0 | 0,0 | 3,5 | 20,2 | 0,0 | 0,3 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 29,0 | 65,8 | 1,5 | 0,6 | 0,1 | 0,0 | 1,1 | 2,0 | 0,0 | 0,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 23,9 | 62,4 | 0,4 | 1,9 | 0,0 | 0,0 | 1,9 | 9,3 | 0,0 | 0,0 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 23,4 | 60,1 | 0,4 | 2,2 | 0,0 | 0,0 | 2,5 | 11,5 | 0,0 | 0,0 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 25,8 | 70,3 | 0,6 | 1,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 2,2 | 0,0 | 0,0 |
| | GURASO BAKARREKOA | 58,2 | 8,6 | 11,5 | 1,8 | 0,0 | 0,0 | 4,2 | 15,2 | 0,0 | 0,3 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 52,7 | 2,3 | 15,7 | 2,4 | 0,0 | 0,0 | 7,3 | 19,0 | 0,0 | 0,6 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 66,0 | 17,4 | 5,7 | 1,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 9,9 | 0,0 | 0,0 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 37,5 | 31,4 | 0,0 | 0,0 | 2,0 | 0,0 | 2,5 | 26,3 | 0,3 | 0,0 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **38,7** | **42,5** | **3,1** | **2,5** | **0,0** | **0,2** | **3,3** | **9,7** | **0,0** | **0,0** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 75,5 | 0,3 | 6,0 | 3,7 | 0,1 | 0,2 | 6,3 | 8,1 | 0,0 | 0,0 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 45,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 2,6 | 0,0 | 49,6 | 2,6 | 0,0 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 40,2 | 25,6 | 9,1 | 4,4 | 0,0 | 0,5 | 0,0 | 20,1 | 0,0 | 0,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 20,8 | 67,0 | 1,0 | 1,8 | 0,0 | 0,0 | 1,1 | 8,2 | 0,0 | 0,0 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 34,8 | 30,9 | 1,4 | 4,1 | 0,0 | 0,0 | 1,4 | 27,3 | 0,0 | 0,0 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 16,6 | 77,7 | 0,9 | 1,2 | 0,0 | 0,1 | 1,0 | 2,6 | 0,0 | 0,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 17,5 | 70,3 | 1,0 | 2,3 | 0,0 | 0,1 | 2,0 | 6,8 | 0,0 | 0,0 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 18,2 | 68,1 | 1,1 | 2,5 | 0,0 | 0,1 | 1,8 | 8,1 | 0,0 | 0,0 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 15,1 | 78,7 | 0,7 | 1,5 | 0,0 | 0,0 | 2,4 | 1,6 | 0,0 | 0,0 |
| | GURASO BAKARREKOA | 63,2 | 4,1 | 7,5 | 2,4 | 0,0 | 0,5 | 6,8 | 15,5 | 0,0 | 0,0 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 44,9 | 4,9 | 11,0 | 4,7 | 0,0 | 0,0 | 10,9 | 23,5 | 0,0 | 0,0 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 82,8 | 3,2 | 3,7 | 0,0 | 0,0 | 0,9 | 2,4 | 6,9 | 0,0 | 0,0 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 18,5 | 57,3 | 0,5 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1,4 | 22,3 | 0,0 | 0,0 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

### *2.3.2. 2015etik 2019ra bitartean ikusitako aldaketa nagusiak*

*Pertsona bakarreko jabetzak aurrera egin du*

Etxebizitza eskuratzeko erregimenak 2015-2019 aldian izandako bilakaerari erreparatuta, etxebizitza edukitzeko moduetan pertsona bakarreko jabetza pixkanaka sendotu izana da azpimarragarriena. Hala, etxeko kide bakarraren jabetza, zeina pertsona bi edo gehiagoren jabekidetzaren azpitik baitzegoen 2015ean (% 38,7, % 42,5en aurrean), 2019an lehen tokian jarri da argi eta garbi, jabekidetzaren % 35,7 gainditzen duen % 43,9rekin.

Pertsona bakarreko jabetzaren goranzko pisua ezaugarri nagusia da pertsona anitzeko etxeetan, baita seme-alabak dauzkaten etxeetan ere, horiek mendekoak izan ala ez. Are, 2015-2019 aldiko igoerarik handienak ezkontzan edo bikotean oinarritutako bi etxe motari dagozkie: guraso izan ondoko ezkontzazko etxeei (% 16,6tik % 29,0ra, +12,4 portzentaje-puntu) eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeei (% 15,1etik % 25,8ra, +10,7 portzentaje-punturekin).

Txikiagoak izan arren, igoera horiek garrantzitsuak dira ezkontzan edo bikotean oinarritutako gainerako motetan ere: 2015-2019 aldian, % 18,2tik % 23,4ra mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (+5,2 portzentaje-puntu), eta % 34,8tik % 41,8ra guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (+6,9 portzentaje-puntu).

Ezkontzan edo bikotean oinarritutako etxeetan, baina, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan bakarrik da nagusi jabetza izateko modu hori 2019an (% 41,8, bi pertsonaren jabekidetzaren % 26,4ren aurrean). Edonola ere, agerikoa da guraso izan aurreko bikote berrietan jabetza bakarraren eredua indartu egin dela; hala, igoera horrek bat egiten du bi pertsonaren jabekidetzaren beherakadarekin (% 30,9tik 26,4ra 2015-2019 aldian).

Familia-etxeak eta familiak oro har hartuta, etxeko egoiliar biren edo gehiagoren jabekidetza % 42,5etik % 35,7ra jaitsi da 2015-2019 aldian. Beherakada handienak ezkontza edo bikote baten inguruan eratutako etxeei eta nukleo anitzeko etxeei dagozkie.

*Jabekidetza mistoak ere aurrera egin du*

Inpaktu txikiagoa izan arren, 2015-2019 aldian aurrera egin du etxean bizi direnen eta bertan bizi ez direnen arteko jabekidetza mistoaren pisuak. Eredu horrek etxebizitza eskuratzeko edukitze-erregimenaren banaketan daukan pisua, kasu honetan, % 3,1etik %5,1era igo da 2015-2019 aldian.

Igoera-lerro horrek ezaugarritzen ditu mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeak (% 11tik % 15,7ra, 2015etik 2019ra). Halaber, oinarri nuklearra ez daukaten askotariko familia motetan ere adierazgarria da, horietan ere % 10eko atalasea gainditu baitu edukitze-erregimenaren banaketan (2015-2019 aldia). Hala, pertsona bakarreko etxeetan, % 6tik % 10,7ra igo da; senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, berriz, 2015ean maila ia ezdeusa edukitzetik % 11,0ra igo da, eta, nukleorik gabeko etxe familiarretan, % 9,1etik % 17,8ra igo da.

*Alokairua atzerantz*

Dagoeneko aipatu dugun moduan, alokairuak garrantzi erlatiboa galdu du 2015etik 2019ra bitartean, EAEko familia-etxe eta familiek etxebizitza eskuratzeko erregimenean % 13tik % 12,1era jaitsi baita.

Beherakada bereziki deigarria da, -3,8 eta -5,0 portzentaje-puntu arteko murrizketekin, nukleorik gabeko etxeetan (pertsona bakarrekoetan, senideak ez diren pertsona anitzekoetan eta nukleorik gabeko familiarretan) eta guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan. Alokairuak pisu handiagoa duen taldeetan, etxebizitza eskuratzeko bide hori % 52,2tik % 48,2ra jaitsi da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, eta % 28,7tik % 23,7ra guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (% 14,4tik % 9,7ra pertsona bakarreko etxeetan eta % 20,1etik % 16,3ra nukleorik gabeko etxe familiarretan). Beherakada handiena, ordea, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiei dagokie (% 34,5etik % 26,3ra 2015-2019 aldian, -8,2 portzentaje-puntu).

Alokairuaren murrizketa-lerroa nabariagoa da, baina, bi talde espezifiko hauetan: mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan eta nukleo anitzekoetan. Lehenengo kasuan, askotariko alokairu moten pisua % 9,9tik % 14ra igo da 2015-2019 aldian, eta, bigarren kasuan, % 23,7tik % 29,1era.

# 3. Familietan eta familia-etxeetan hautemandako gizarte-arazoak

Txostenaren kapitulu honetan, EAEko askotariko familia eta familia-etxe motei eragiten dieten gizarte-arazoen zenbait talde handiren inpaktu espezifikoa aztertzen da[14].

Kapituluaren lehenengo atalean, arazo-talde bakoitzaren intzidentziaren emaitza orokorrak, arazo bakoitzaren garrantziaren indizea eta arazo bakoitzari lotutako larritasun-indizea aurkezten dira. 2015-2019 aldiari buruzko datuak ematen diren arren, analisiaren zati honek 2019ko egoerari heltzen dio, eta familia-etxe eta familia mota kaltetuenei buruzko aipamenak egiten. Intzidentziari buruzko zatian, intzidentzia orokorrean eta intzidentzia larrian zentratzen da azterketa.

Bigarren atalean, berriz, familiek lehentasunezkotzat jo dituzten arazoek 2015-2019 aldian izandako bilakaera aztertzen da, xehe. Atal horretan, sakontasun handiagoz jorratzen da familia-etxe eta familia motek adierazitako arazoen inpaktu diferentziala.

## 3.1. Familia eta familia-etxeen arazo orokorrak

### *3.1.1. Etxebizitza-arazoak*

FFEIk familia-etxeetako eta familien honako etxebizitza-arazo hauek hartu ditu aintzat:

* Etxebizitzaren egoera kaskarra izatea.
* Etxebizitzan toki nahikorik ez egotea.
* Etxebizitzako ekipamendua nahikoa ez izatea.
* Etxebizitzan konponketak egin behar izatea.
* Etxebizitza aldatu behar izatea.
* Etxebizitzaren hipotekaren epeak ordaintzeko zailtasunak edukitzea.
* Etxebizitzako obren ondoriozko zorrak ordaintzeko zailtasunak edukitzea.
* Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko zailtasunak edukitzea.
* Lehenengo etxebizitza ezin erosi izatea

[14] Helburua emaitza nagusiak aurkeztea denez, txostenean ez dira xehetasun handiz jorratzen arazo-talde bakoitzaren barruan egon daitezkeen arazo zehatzak. Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoak (EOE) argitaratzen dituen estatistika-taulek, ordea, txostenean hautemandako arazo nagusien eremu espezifiko guzti-guztiak xehe aztertzeko behar den informazioa eskaintzen dute.

* Etxetik botatzeko edo hipoteka betearazteko arriskuan edo prozesuan egotea

* Familiako kideren bat etxebizitza-arazoengatik itzultzea

21. taulan, etxebizitza-arazo horien inpaktua, intzidentzia motak eta lotutako indizeak aurkezten dira.

**21. taula**
**Etxebizitza-arazoak dauzkaten familia-etxe edo familietako kideak, familia-etxe edo familia motaren arabera**
**Arazoaren inpaktuaren adierazleak. EAE. 2015 eta 2019**
**Intzidentzia-tasak guztizko biztanlerian eta arazoak dauzkaten familietako biztanleriaren indizeak**
**(%-tan, larritasun-indizea izan ezik, 0-10 eskalan baitago)**

| Motak | | Erabateko intzidentzia % | Intzidentzia larria % | Lehentasunezko intzidentzia % | Garrantziaren indizea 1-10 eskala | Larritasun-indizea % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | **GUZTIRA** | **22,7** | **13,5** | **7,2** | **7,57** | **59,5** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 19,4 | 10,7 | 6,8 | 7,31 | 55,1 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 46,9 | 34,4 | 14,3 | 8,26 | 73,3 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 26,5 | 20,0 | 8,6 | 8,50 | 75,5 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 16,7 | 8,5 | 6,9 | 7,01 | 50,8 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 28,4 | 14,8 | 11,7 | 7,34 | 52,2 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 12,4 | 6,2 | 5,2 | 6,74 | 49,6 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 22,8 | 12,9 | 7,4 | 7,43 | 56,7 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 23,2 | 13,5 | 7,7 | 7,52 | 58,3 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 21,1 | 10,5 | 6,3 | 7,02 | 49,7 |
| | GURASO BAKARREKOA | 27,7 | 22,5 | 7,7 | 8,54 | 81,4 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 33,4 | 26,6 | 8,1 | 8,46 | 79,4 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 18,4 | 16,0 | 7,1 | 8,78 | 87,4 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 39,5 | 24,5 | 4,3 | 8,04 | 62,0 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **27,1** | **15,4** | **5,8** | **7,36** | **57,0** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 20,8 | 10,1 | 6,8 | 7,11 | 48,6 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 43,0 | 23,6 | 7,1 | 7,29 | 54,8 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 33,8 | 18,9 | 12,7 | 7,31 | 55,8 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 14,6 | 6,5 | 4,5 | 6,74 | 44,5 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 25,8 | 12,1 | 7,3 | 6,89 | 46,7 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 11,3 | 4,9 | 3,7 | 6,63 | 43,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 29,8 | 16,1 | 5,9 | 7,23 | 54,1 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 30,6 | 16,6 | 5,9 | 7,28 | 54,4 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 26,4 | 14,0 | 6,1 | 6,95 | 52,8 |
| | GURASO BAKARREKOA | 33,7 | 25,5 | 6,1 | 8,20 | 75,7 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 41,6 | 34,6 | 5,1 | 8,52 | 83,2 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 24,1 | 14,5 | 7,2 | 7,54 | 60,2 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 46,0 | 35,0 | 3,5 | 8,16 | 76,1 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Euskal biztanleen % 22,7 etxebizitzarekin zerikusia duen arazoren bat aipatu duten familietan bizi dira, eta biztanleen % 13,5 dimentsio horretan egoera larriak aipatu dituzten familiekin lotzen dira. Garrantziaren indizean, arazo horiek 7,57 puntu dauzkate (10etik), eta larritasun-indizea % 59,5ekoa da.

2015ean ikusitako egoerarekin alderatuta, etxebizitza-arazoen erabateko intzidentziak nabarmen egin du behera, % 27,1etik % 22,7ra (-4,4 portzentaje-puntu). Beherakada handia izan da, baita ere, nahiz eta hainbestekoa izan ez, intzidentzia larriari dagokionez (% 15,4tik % 13,5era 2015-2019 aldian, -1,9 portzentaje-puntu).

Alabaina, etxebizitza-arazoei egotzitako garrantziaren indizeak zertxobait gora egin du (7,36tik 7,57ra), baita larritasun-indizeak ere (% 57,0tik % 59,5era).

*Talderik kaltetuenak: senideak ez diren pertsona anitzekoak, nukleorik gabeko familiarrak, guraso bakarreko familiak eta nukleo anitzeko etxeak*

2019an, etxebizitza-arazoek gutxien ukitzen dituzten taldeak guraso izan ondoko ezkontzazkoak dira, etxe horietan bizi diren biztanleen % 12,4k baino ez baitute arazo hori aipatu. EAEko adierazlearen azpitik baita ere, proportzioa % 19,4koa da pertsona bakarreko etxeetan, eta % 18,4ren eta % 21,1en artekoa mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten askotariko etxe nuklearretan.

Etxebizitza-arazoen inpaktua EAEko adierazle orokorra baino handiagoa da nukleorik gabeko etxe familiarretan (% 26,5), guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (% 28,4) eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen familietan (% 23,2). Inpakturik handiena, ordea, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiei (% 33,4), nukleo anitzeko familia-etxeei (% 39,5) eta senideak ez diren pertsona anitzeko etxeei (% 46,9) dagokie; ikusi den bezala, azken talde horrek dauka gehienekoa.

Halaber, azken hiru familia-etxe eta familia motetan etxebizitza-arazoen intzidentzia larria batezbestekoa baino handiagoa dela ikusi da: % 20ko atalasea gainditzen du. Hala, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetako biztanleen % 34,4 etxebizitza-arazo larriak dituztela dioten etxeetan bizi dira, eta, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, % 26,6 daude egoera horretan; nukleo anitzeko etxeetan, berriz, biztanleen % 24,5.

Hiru familia mota horietan, etxebizitza-arazoen garrantziaren indizeak 8 puntuko maila gainditzen du (8,04 eta 8,46 artean). Halaber, larritasun-indizean, EAEko maila orokorra gainditzen da. Nukleo anitzeko etxeetan maila horretatik hurbil egon arren (% 62,0), beste familia mota batzuetan oso maila altuetara iristen da, konparazioan: % 79,4 mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, eta % 73,3 senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan.

Etxebizitza-arazoen garrantziaren eta larritasunaren indizeetan, baina, nukleorik gabeko etxe familiarrak eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiak aipatu behar dira. Are, etxebizitza-arazoen garrantziaren indizean 2019an erregistrorik altuenak izan dituzten bi familia motak dira horiek (8,50 eta 8,78). Larritasun-indizean, proportzioa % 75,5era iristen da nukleorik gabeko etxe familiarretan, eta gehieneko % 87,4ra mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan. Gainera, talde horietan, etxebizitza-arazoen intzidentzia larriak gainditu egiten du EAEko erregistro orokorra: nukleorik gabeko etxe familiarretan, % 20,0koa da, eta, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso

bakarreko etxeetan, % 16,0koa. Hala ere, hiru talde kaltetuenetan ikusitako inpaktuaren azpitik daude.

### *3.1.2. Diru-sarrerekin zerikusia daukaten arazoak*

FFEIk honako arazo hauek hartu ditu aintzat, EAEko familia-etxe eta familien diru-sarrerei dagokienez:

* Diru-sarrerarik ez edukitzea

* Oinarrizko premiak (janaria, arropa eta oinetakoak) estaltzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea

* Etxeko energia-gastuei (argia, gasa, berogailua) aurre egiteko adina diru-sarrerarik ez edukitzea

* Etxeko beste gastu batzuei (telefonoa, zaborrak, ura, erkidegoko gastuak) aurre egiteko adina diru-sarrerarik ez edukitzea

* Seme-alabek egin nahi dituzten ikasketak ordaintzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea

* Gastu bereziei (etxetresna elektrikoak aldatu, seme edo alaba baten ezkontza, kotxea erosi edo aldatu eta abar) aurre egiteko adina diru-sarrerarik ez edukitzea

* Oporrak ordaintzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea

* Haurrak zainduko dituen norbait kontratatzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea

* Adinekoak zainduko dituen norbait kontratatzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea

* Adinekoentzako egoitza bat ordaintzeko (edo ordaintzen laguntzeko) adina diru-sarrerarik ez edukitzea

22. taulan, diru-sarrerekin zerikusia daukaten arazoen baterako inpaktua, intzidentzia motak eta lotutako indizeak aurkezten dira.

2019an, euskal biztanleen % 25,1 diru-sarrerekin zerikusia duen arazoren bat aipatu duten familietan bizi dira, eta biztanleen % 14,7 dimentsio horretan egoera larriak aipatu dituzten familiekin lotzen dira. Garrantziaren indizean, arazo horiek 7,57 puntu dauzkate. Larritasun-indizea % 58,6ra iristen da.

2015ean ikusitako egoerarekin alderatuta, erabateko intzidentziak nabarmen egin du behera, % 30,7tik % 25,1era (-5,7 portzentaje-puntu). Beherakada handia da, baita ere, intzidentzia larriari dagokionez (% 19,9tik % 14,7ra 2015-2019 aldian, -5,2 portzentaje-puntu).

Etxebizitza-arazoekin ez bezala, diru-sarrerekin zerikusia daukaten arazoei egotzitako garrantziaren indizeak behera egin du zertxobait (7,70etik 7,57ra). Beherakada bereziki deigarria da larritasun-indizearen bilakaerari dagokionez (% 64,7tik % 58,6ra).

**22. taula**
**Diru-sarrerekin arazoak dauzkaten familia-etxe edo familietako kideak, familia-etxe edo familia motaren arabera**
**Arazoaren inpaktuaren adierazleak. EAE. 2015 eta 2019**
**Intzidentzia-tasak guztizko biztanlerian eta arazoak dauzkaten familietako biztanleriaren indizeak**
**(%-tan, larritasun-indizea izan ezik, 0-10 eskalan baitago)**

| Motak | | Erabateko intzidentzia % | Intzidentzia larria % | Lehentasunezko intzidentzia % | Garrantziaren indizea 1-10 eskala | Larritasun-indizea % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | **GUZTIRA** | **25,1** | **14,7** | **8,4** | **7,57** | **58,6** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 28,0 | 16,9 | 13,6 | 7,70 | 60,2 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 58,3 | 49,6 | 29,7 | 8,95 | 85,1 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 29,6 | 19,0 | 6,6 | 7,92 | 64,2 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 18,6 | 11,8 | 6,3 | 7,60 | 63,2 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 21,9 | 13,1 | 3,8 | 7,26 | 59,8 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 17,4 | 11,3 | 7,3 | 7,76 | 64,7 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 21,7 | 11,6 | 6,5 | 7,34 | 53,5 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 23,1 | 12,7 | 7,4 | 7,45 | 54,9 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 16,1 | 7,3 | 3,2 | 6,74 | 45,2 |
| | GURASO BAKARREKOA | 45,0 | 29,3 | 14,1 | 7,73 | 65,2 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 56,8 | 36,8 | 19,4 | 7,74 | 64,8 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 25,9 | 17,3 | 5,5 | 7,66 | 66,6 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 34,8 | 18,9 | 9,9 | 7,86 | 54,3 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **30,7** | **19,9** | **7,7** | **7,70** | **64,7** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 34,1 | 20,7 | 13,8 | 7,62 | 60,8 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 50,2 | 31,8 | 19,4 | 7,54 | 63,3 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 35,8 | 20,1 | 17,0 | 7,55 | 56,2 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 20,8 | 12,2 | 5,2 | 7,14 | 58,8 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 29,9 | 16,5 | 3,2 | 7,10 | 55,3 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 18,1 | 10,9 | 5,8 | 7,16 | 60,4 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 28,2 | 17,5 | 5,7 | 7,62 | 62,0 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 30,3 | 19,0 | 6,5 | 7,63 | 62,6 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 18,8 | 10,9 | 1,9 | 7,50 | 57,9 |
| | GURASO BAKARREKOA | 49,9 | 38,3 | 14,3 | 8,20 | 76,7 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 62,5 | 48,0 | 21,7 | 8,34 | 76,9 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 34,7 | 26,6 | 5,3 | 7,90 | 76,5 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 48,2 | 36,0 | 8,3 | 8,39 | 74,7 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

*Talderik kaltetuenak: senideak ez diren pertsona anitzekoak, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarrekoak eta nukleo anitzekoak (halere, arazoak alderdi garrantzitsuak dauzka, baita ere, pertsona bakarreko etxeetan edo nukleorik gabeko etxe familiarretan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan)*

2019an, diru-sarrerekin zerikusia daukaten arazoek ez diete hainbeste eragin guraso izan ondoko ezkontzazko etxeei (horien % 17,4k aipatu dute problematika hori) eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeei (% 16,1). Diru-sarrerekin zerikusia daukaten

arazoek inpaktu handiagoa daukate, nahiz eta oraindik batezbestekotik behera egon, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (% 21,9) eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 23,1).

Tarteko tokian, diru-sarrerekin zerikusia daukaten arazoen erabateko intzidentzia EAEko adierazle orokorretik hurbil edo pixka bat gorago dago pertsona bakarreko etxeetan (% 28,0), nukleorik gabeko familiarretan (% 29,6) eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan (% 25,9).

Talderik kaltetuenak ez badira ere, familia-etxe edo familia mota horietan, diru-sarreren inguruko arazoen intzidentzia larriaren inpaktuak gainditu egiten du % 15eko atalasea: % 16,9koa da pertsona bakarreko etxeetan, % 17,3koa mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, eta % 19,0koa nukleorik gabeko etxe familiarretan. Intzidentzia larriaren maila horiek nukleo anitzeko etxeetan ere ikus daitezke, % 18,9koa baitaukate. Etxe mota horietan, halere, diru-sarreren inguruko arazoen erabateko intzidentzia handiagoa da, % 34,8koa.

Diru-sarreren inguruko arazoen inpakturik handiena, nolanahi ere, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeei eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiei dagokie, arazoon intzidentzia orokorra gehiengoa baita talde horietan. Horrela, bada, familia kaltetuetako pertsonen proportzioa % 58,3ra iristen da senideak ez diren pertsona ugariko etxeetan, eta % 56,8ra mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan.

Bi talde horietan, diru-sarrerekin zerikusia daukaten arazo larrien inpaktua oso handia da. Intzidentzia larriak pertsonen % 49,6ri eragiten die senideak ez diren pertsona ugariko etxeetan, eta % 36,8ri mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan. Horren ondorioz, etxe mota horietan detektatu dira zifrarik altuenetako batzuk garrantziaren eta larritasunaren indizeetan: hurrenez hurren,8,95eko eta % 85,1eko gehieneko indizeak hauteman dira senideak ez diren pertsona ugariko etxeetan, eta 7,74ko eta % 64,8ko zifrak mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan.

Diru-sarren inguruko arazoek badute ezaugarri adierazgarririk ere, askotariko familia-etxe eta familia motak antzeko tokia baitute EAEko erregistro orokorraren inguruan, garrantziaren eta larritasunaren indizeei dagokienez. Hala, ikus daitekeenez, garrantziaren indizea 7,45ren eta 7,92ren artean dabil etxe gehienetan, eta larritasun-indizea % 59,8ren eta % 66,6ren artean. Mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiak tarte horretan daude.

Maila horietatik behera, diru-sarren inguruko arazoen garrantziaren indizeari dagokionean, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeak (7,26) eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeak (6,74) baino ez daude. Larritasun-indizeari dagokionez, berriz, seme-alabak dauzkaten etxe nuklearren multzoa (% 54,9 mendeko seme-alabak badaude, eta % 45,2 mendekoak ez diren seme-alabak badaude) eta nukleo anitzeko etxeak (% 54,3) tarte nagusiaren azpitik daude.

### *3.1.3. Lanarekin zerikusia daukaten arazoak*

FFEIk honako arazo hauek hartu ditu aintzat, EAEko familia-etxe eta familien lanari dagokionez:

* Lan egiteko adinean dagoen inork lanik ez egitea (16-64 urte)

* Etxeko kideren bat langabezian egotea

* Enplegu prekarioa edukitzea: behin-behinekoa, kontraturik gabea, denbora partzialean, orduka

* Lanean ordutegi txarra edukitzea: txandaka, ordutegi irregularrak

* Kalitate baxuko enplegua edo titulazioarekin bat ez datorrena edukitzea

* Enplegua gaizki ordainduta egotea

* Lantokia familiaren bizilekutik oso urrun egotea

* Familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunak dituen enplegua edukitzea

* Sexuagatiko edo adinagatiko diskriminazio-arazoak dituen enplegua edukitzea

* Jatorrizko herrialdeagatiko, arrazagatiko eta/edo erlijioagatiko diskriminazio-arazoak dituen enplegua edukitzea.

23. taulan, lanarekin eta enpleguarekin zerikusia daukaten arazoen baterako inpaktua, intzidentzia motak eta lotutako indizeak aurkezten dira.

Lanarekin eta enpleguarekin zerikusia daukaten arazoak dira 2019an euskal biztanleen artean hedatuen daudenak. Biztanleen % 34,9 lanaren dimentsioarekin zerikusia duen arazoren bat aipatu duten etxeetan bizi dira. Gainera, biztanleen % 23,6 lanarekin eta enpleguarekin zerikusia daukaten egoera larriak aipatu dituzten etxeekin lotzen dira. Garrantziaren indizean, arazo horiek 7,87 puntu dauzkate, eta larritasun-indizea % 67,4koa da. Datu horiek guztiak agerian jartzen dute lanaren eta enpleguaren problematika nagusia dela euskal familietan.

2015-2019 aldiaren bilakaeran, baina, aintzat hartutako arazoen intzidentziak nabarmen egin du behera. Hala, 2015ean ikusitako egoerarekin alderatuta, erabateko intzidentzia nabarmen murriztu da, % 44,0tik % 34,9ra; hots, aintzat hartu diren arazoen erabateko intzidentzian, -9,1 portzentaje-puntu jaitsi dira.

Beherakada are nabarmenagoa da, ordea, lanari eta enpleguari lotutako arazoen intzidentzia larriari dagokionez. Bada, dimentsio honetan arazo larriak dauzkaten etxeen proportzioa % 33,0tik (2015) % 23,6ra (2019) jaitsi da. Murrizketa -9,4 portzentaje-puntukoa da.

**23. taula**
**Lanarekin arazoak dauzkaten familia-etxe edo familietako kideak, familia-etxe edo familia motaren arabera**
**Arazoaren inpaktuaren adierazleak. EAE. 2015 eta 2019**
**Intzidentzia-tasak guztizko biztanlerian eta arazoak dauzkaten familietako biztanleriaren indizeak**
**(%-tan, larritasun-indizea izan ezik, 0-10 eskalan baitago)**

| | | Erabateko intzidentzia | Intzidentzia larria | Lehentasunezko intzidentzia | Garrantziaren indizea 1-10 eskala | Larritasun-indizea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % | % | % | | % |
| 2019 | **GUZTIRA** | **34,9** | **23,6** | **18,3** | **7,87** | **67,4** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 15,2 | 11,5 | 7,5 | 8,01 | 75,9 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 34,2 | 31,2 | 19,1 | 9,03 | 91,2 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 28,9 | 14,4 | 15,1 | 7,22 | 49,8 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 21,1 | 13,0 | 13,2 | 7,64 | 61,7 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 44,2 | 30,5 | 34,1 | 8,11 | 69,0 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 12,7 | 6,7 | 5,6 | 7,04 | 52,5 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 41,1 | 28,4 | 21,9 | 7,97 | 69,2 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 40,1 | 27,9 | 21,5 | 8,00 | 69,5 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 45,1 | 30,6 | 23,5 | 7,87 | 68,0 |
| | GURASO BAKARREKOA | 49,6 | 32,1 | 22,4 | 7,87 | 64,8 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 55,2 | 36,6 | 21,5 | 7,91 | 66,3 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 40,6 | 25,0 | 23,8 | 7,78 | 61,5 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 48,6 | 29,6 | 20,2 | 7,28 | 60,9 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **44,0** | **33,0** | **25,0** | **8,24** | **75,0** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 21,4 | 17,1 | 14,4 | 8,51 | 80,0 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 44,4 | 34,3 | 27,3 | 8,74 | 77,4 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 37,5 | 33,9 | 16,0 | 8,96 | 90,3 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 22,5 | 14,5 | 15,4 | 7,80 | 64,5 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 58,5 | 41,8 | 42,9 | 8,19 | 71,5 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 12,0 | 6,5 | 7,3 | 7,23 | 54,5 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 52,9 | 39,5 | 29,0 | 8,17 | 74,8 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 53,3 | 39,3 | 29,1 | 8,11 | 73,8 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 51,2 | 40,5 | 28,8 | 8,42 | 79,1 |
| | GURASO BAKARREKOA | 54,8 | 44,5 | 31,0 | 8,64 | 81,1 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 63,4 | 51,0 | 32,3 | 8,64 | 80,5 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 44,5 | 36,6 | 29,4 | 8,65 | 82,2 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 63,0 | 45,6 | 31,9 | 8,43 | 72,4 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

*Talderik kaltetuenen artean, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeak, gurasoen etxeak, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeak eta nukleo anitzeko etxeak daude. Intzidentzia larria altua da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan ere*

Dimentsio sozial honetan, bi familia-etxe edo familia mota geratu dira EAEko intzidentzia orokorretik behera 2019an, argi eta garbi. Batetik, guraso izan ondoko ezkontzazko familiak dauzkagu, etxe horietan bizi diren herritarren % 12,7k bakarrik aipatu baitituzte lanarekin eta enpleguarekin zerikusia daukaten arazoak; bestetik, pertsona bakarreko etxeak dauzkagu, % 15,2 baitaude egoera horretan.

Azken talde horretan lan-arazoen intzidentziaren adierazleak EAEko balio orokorretatik behera badaude ere, arazoak daudenean, arazook garrantzitsutzat edo larritzat jotzen dituzte, eta, gainera, EAEko batez besteko zifrak gainditzen dira (garrantziaren indizean, 8,01, batez besteko 7,87ren aurrean, eta, larritasun-indizean, % 75,9, % 67,4ren aurrean). Ez da gauza bera gertatzen guraso izan ondoko ezkontzazko familietan, adierazle horiek gutxieneko balioak baitauzkate (7,04 eta % 52,5). Beraz, intzidentzia larria apenas iristen da % 6,7ra familia horietan, pertsona bakarreko etxeen % 11,5en aurrean.

Lanari eta enpleguari lotutako erabateko intzidentziaren inpaktua handiagoa bada ere, nukleorik gabeko etxe familiarrek EAEko adierazle orokorretik behera egoten jarraitzen dute 2019an (% 28,9). Intzidentzia larria ere, konparatuz gero, baxua da, % 14,4rekin. Are, larritasunaren eta garrantziaren indizerik baxuenetakoa duten taldeetako bat da (% 49,8 eta 7,22).

Kontrako tokian, lanarekin zerikusia daukaten arazoen inpaktu handiena guraso izan aurreko ezkontzazko etxeei, gurasoen etxeei (mendeko seme-alabekin nahiz mendekoak ez diren seme-alabekin), mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeei eta nukleo anitzeko etxeei dagokie.

Horien barruan, lan- eta enplegu-arazoen erabateko intzidentzia % 40,1en eta % 45,1en artean dabil guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan eta gurasoen askotariko etxe motetan, eta intzidentzia larria % 27,9ren eta % 30,6ren artean dabil. Garrantziaren indizea 7,87ren eta 8,11ren artean dago, eta larritasun-indizea % 68,0ren eta % 69,5en artean.

Nukleo anitzeko etxeetan, erabateko intzidentzia % 48,6ra iristen da, baina intzidentzia larria aurreko taldekoarenaren antzekoa da, % 29,6rekin. Garrantziaren eta larritasunaren indizeak, gainera, lehen aipatutako familia motenak baino maila baxuagoan daude (7,28 eta % 60,9).

Intzidentziarik altuenak mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiei dagozkie 2019an, erabateko intzidentzia % 55,2koa baita eta intzidentzia larria % 36,6koa, familia-etxe edo familia motetan altuenak horiek. Garrantziaren indizea 7,91koa da, eta larritasun-indizea % 66,3koa.

Aztertutako testuinguruan, pertsona anitzeko etxeek eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiek egoera bereziak dauzkate. Lehenengo kasuan, erabateko intzidentzia EAEko erregistro orokorretik hurbil dago, % 34,2rekin. Intzidentzia larriaren inpaktua, ordea, % 31,2ra iristen da; mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familien atzetik, bigarren altuena da. Are, garrantziaren eta larritasunaren indizerik altuenak dituen taldea da lan- eta enplegu-arazoei dagokienez (9,03 eta % 91,2).

Kontrako zentzuan, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, erabateko intzidentzia altuagoa da, % 40,6rekin; alabaina, % 25,0rekin, intzidentzia larria EAEko adierazle orokorretik hurbil dago. Arazoen garrantziaren indizea 7,78 puntukoa da, eta larritasun-indizea % 61,5ekoa.

### *3.1.4. Seme-alabekin zerikusia daukaten arazoak*

FFEIk honako arazo hauek hartu ditu aintzat, EAEko familia-etxe eta familien seme-alabei dagokienez:

* Seme-alabarik eduki ezin izatea (arrazoi biologikoengatik)
* Seme-alabarik eduki ezin izatea, baliabide ekonomikorik ez edukitzeagatik (adopzioa barne)
* Seme-alabarik eduki ezin izatea, lan-arazoengatik edo laneko prekarietate-arazoengatik
* Seme-alabarik eduki ezin izatea, familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunak edukitzeagatik
* Adingabeko seme-alabak zaintzea
* Haur-eskolan adingabeko seme-alabentzako tokirik ez edukitzea
* Seme-alabak ondo ez moldatzea edo eskola-porrota
* Ikasketak goiz uztea
* Seme-alaben etorkizunaren inguruan ziurgabetasuna sentitzea
* Seme-alabek bizimodu independentea edukitzeko zailtasunak edukitzea
* Seme-alabek bazterketa-arazoak edo eskola-jazarpena jasatea

24. taulan, seme-alabekin zerikusia daukaten arazoen baterako inpaktua, intzidentzia motak eta lotutako indizeak aurkezten dira.

2019an, seme-alabekin zerikusia daukaten arazoak adierazgarriak dira euskal biztanleen artean. Hala, biztanleen % 20,1 faktore horrekin zerikusia duen arazoren bat aipatu duten etxeetara lotuta daude. Dimentsio honetan, biztanleen % 13,8k aipatu dituzte arazo larriak, eta proportzio hori adierazgarria da oraindik ere. Garrantziaren indizean, aintzat hartutako arazoek 8,12 puntu dauzkate, eta larritasun-indizea % 68,7koa da. Hortaz, zifra garrantzitsuak dira (maila handienekoa, garrantziaren indizean), eta familiek kontu horiei garrantzi handia ematen dietela esan nahi du horrek.

2015-2019 aldian, baina, adierazleek hobera egin dute, argi. Hala, erabateko intzidentzia % 30,2tik % 20,1era jaitsi da, -10,1 portzentaje-puntuko beherakada handiarekin. Beherakada handia da, baita ere, intzidentzia larriari dagokionez (% 21,9tik % 13,8ra 2015-2019 aldian, -8,1 portzentaje-puntu).

Hobekuntza-lerroa garrantziaren eta larritasunaren indizeetan ere ikus daiteke, baina ez intzidentzian bezain nabarmen. Beraz, beheranzko joera eduki arren, garrantziaren indizeak nolabaiteko egonkortasuna dauka: 8,12 2019an, eta 8,21 2015ean. Beherakada adierazgarriagoa da larritasun-indizeari dagokionez: 2015eko % 72,6tik 2019ko % 68,7ra jaitsi da.

**24. taula**
**Seme-alabekin arazoak dauzkaten familia-etxe edo familietako kideak, familia-etxe edo familia motaren arabera**
**Arazoaren inpaktuaren adierazleak. EAE. 2015 eta 2019**
**Intzidentzia-tasak guztizko biztanlerian eta arazoak dauzkaten familietako biztanleriaren indizeak**
**(%-tan, larritasun-indizea izan ezik, 0-10 eskalan baitago)**

| | | Erabateko intzidentzia | Intzidentzia larria | Lehentasunezko intzidentzia | Garrantziaren indizea 1-10 eskala | Larritasun-indizea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % | % | % | | % |
| 2019 | **GUZTIRA** | **20,1** | **13,8** | **9,5** | **8,12** | **68,7** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 7,8 | 5,0 | 2,7 | 7,95 | 63,7 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 10,8 | 3,4 | 3,4 | 6,19 | 31,1 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 3,6 | 1,6 | 3,6 | 7,81 | 45,2 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 8,7 | 6,1 | 3,7 | 7,85 | 70,7 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 12,1 | 6,9 | 2,1 | 7,11 | 56,8 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 7,5 | 5,9 | 4,3 | 8,29 | 78,9 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 25,9 | 17,3 | 12,7 | 8,05 | 66,8 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 25,2 | 16,5 | 12,7 | 8,02 | 65,5 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 28,6 | 20,5 | 12,5 | 8,12 | 71,7 |
| | GURASO BAKARREKOA | 27,9 | 22,1 | 12,2 | 8,59 | 79,1 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 35,0 | 27,7 | 13,6 | 8,57 | 79,1 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 16,5 | 13,0 | 10,1 | 8,64 | 78,8 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 25,9 | 18,2 | 13,6 | 8,59 | 70,2 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **30,2** | **21,9** | **15,6** | **8,21** | **72,6** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 6,1 | 4,1 | 3,7 | 7,86 | 67,6 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 7,8 | 7,8 | 3,0 | 9,58 | 100,0 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 4,2 | 0,0 | 0,0 | 5,40 | 0,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 9,2 | 6,7 | 6,4 | 8,10 | 72,7 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 5,2 | 2,8 | 1,6 | 7,40 | 54,4 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 10,4 | 7,8 | 7,8 | 8,20 | 75,3 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 42,4 | 30,2 | 22,3 | 8,12 | 71,2 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 43,8 | 31,1 | 22,8 | 8,12 | 70,9 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 36,0 | 26,3 | 20,4 | 8,12 | 73,0 |
| | GURASO BAKARREKOA | 32,1 | 26,6 | 12,7 | 8,78 | 82,9 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 41,2 | 35,3 | 14,9 | 8,92 | 85,7 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 21,2 | 16,1 | 10,1 | 8,45 | 76,3 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 41,3 | 30,7 | 17,6 | 8,63 | 74,3 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

*Arazo horiek seme-alabak dauzkaten askotariko familia motetan duten intzidentzia*

Zentzuzkoa denez, seme-alabekin lotutako arazoek intzidentzia mugatua dute nuklearrak ez diren etxeetan (pertsona bakarrekoetan, senideak ez diren pertsona anitzekoetan eta nukleorik gabeko familiarretan) eta seme-alabarik gabeko nuklearretan. Oro har, problematika hori aipatzen duten etxeek talde horietako biztanleen % 3,6tik % 10,8ra bitartean hartzen dituzte, eta guraso izan aurreko ezkontzazko etxeek daukate gehienekoa, % 12,1ekin. Intzidentzia larriak guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan eta guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan bakarrik gainditzen du % 5.

Seme-alabekin zerikusia daukaten arazoen inpakturik handiena, zentzuzkoa den bezala, seme-alabak dauzkaten etxeetara lotuta dago. Horien barruan, inpakturik txikiena mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeei dagokie. Familia mota horietan, biztanleen % 16,5 arazo horiek aipatu dituzten familietara lotuta daude, eta intzidentzia larria % 13,0koa da. Zenbaki horiek EAEko adierazle orokorra baino beherago badaude ere, talde horretan dago arazoen garrantziaren indizerik altuena (8,64). % 78,8rekin, larritasun-indizea ere altuenen artean dago.

Bestalde, gurasoen etxeetan, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan eta nukleo anitzeko etxeetan, seme-alabekin zerikusia daukaten arazoen intzidentziak beti gainditzen ditu EAEko batez besteko mailak. Kasu horretan, aintzat hartutako arazoen intzidentzia orokorra % 25,2ren eta % 28,6ren artean dago oro har, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan izan ezik, hor % 35,0ko maximoa baita.

Intzidentzia larria, halaber, maila gorenera iristen da mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, % 27,7rekin. Bada, ehuneko horrek gainditu egiten ditu aintzat hartutako beste etxe motetako % 16,5eko eta % 20,5eko proportzioak (% 20,5ekoa da mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen familietan; % 18,2koa da nukleo anitzeko etxeetan, eta % 16,5ekoa da mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen familietan).

Aintzat hartutako familia-etxeetan, arazoen garrantziaren indizea zertxobait txikiagoa da gurasoen etxeetan, 8,02ren eta 8,12ren artean, zeinak guraso bakarreko familien eta nukleo anitzeko etxeen 8,57-8,64 puntuetatik behera baitaude. Larritasun-indizeari dagokionez, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan maila txikiagoa ikusi da (% 65,5), nukleo anitzeko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan % 70,2ko eta % 71,7ko zifrak baitauzkate. Guraso bakarreko askotariko familia motetan, ehunekoa % 78,8ren eta % 79,1en artean dago.

### *3.1.5. Adinekoei ematen zaien arretarekin zerikusia daukaten arazoak*

FFEIk honako arazo hauek hartu ditu aintzat, EAEko familia-etxe eta familietan adinekoei ematen zaien arretari dagokionez:

* Adinekoak etxean artatzeagatik lan-gainkarga edukitzea.
* Adinekoak etxetik kanpo artatzeagatik lan-gainkarga edukitzea.
* Adineko gurasoak etxean artatu ezin izatea, lanagatik
* Adineko gurasoak etxetik kanpo artatu ezin izatea, lanagatik
* Adineko gurasoak etxean artatu ezin izatea, toki faltagatik
* Egoitzetan tokirik ez aurkitzea
* Kontratatzeko zaintzaile egokirik ez aurkitzea

25. taulan, adinekoei ematen zaien arretarekin zerikusia daukaten arazoen baterako inpaktua, intzidentzia motak eta lotutako indizeak aurkezten dira.

Adinekoei ematen zaien arretarekin zerikusia daukaten arazoek, konparazioz, inpaktu mugatuagoa daukate 2019ko euskal biztanlerian. Hala, biztanleen % 9,3 problematika horrekin zerikusia duen arazoren bat aipatu duten etxeetara lotuta daude. Dimentsio honetan, biztanleen % 5,1ek aipatu dituzte egoera larriak. Garrantziaren indizean, arazo horiek 7,39 puntu dauzkate, eta larritasun-indizea % 55,2koa da.

**25. taula**
**Adinekoei ematen zaien arretarekin arazoak dauzkaten familia-etxe edo familietako kideak, familia-etxe edo familia motaren arabera**
**Arazoaren inpaktuaren adierazleak. EAE. 2015 eta 2019**
**Intzidentzia-tasak guztizko biztanlerian eta arazoak dauzkaten familietako biztanleriaren indizeak**
**(%-tan, larritasun-indizea izan ezik, 0-10 eskalan baitago)**

| Motak | | Erabateko intzidentzia % | Intzidentzia larria % | Lehentasunezko intzidentzia % | Garrantziaren indizea 1-10 eskala | Larritasun-indizea % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | **GUZTIRA** | **9,3** | **5,1** | **3,7** | **7,39** | **55,2** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 4,4 | 2,6 | 2,1 | 7,15 | 60,1 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 4,6 | 1,4 | 1,4 | 7,22 | 30,5 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 6,4 | 2,5 | 0,2 | 7,42 | 38,3 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 10,0 | 5,8 | 4,6 | 7,33 | 57,8 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 8,5 | 3,0 | 1,6 | 6,18 | 35,4 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 10,5 | 6,8 | 5,7 | 7,67 | 64,4 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 10,7 | 5,5 | 4,1 | 7,31 | 50,9 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 10,4 | 5,8 | 4,0 | 7,55 | 55,9 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 12,0 | 4,0 | 4,4 | 6,47 | 33,5 |
| | GURASO BAKARREKOA | 9,6 | 6,2 | 4,4 | 7,80 | 64,0 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 6,2 | 3,3 | 2,2 | 7,29 | 53,4 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 15,2 | 10,8 | 7,9 | 8,14 | 71,0 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 4,9 | 4,9 | 0,0 | 8,89 | 100,0 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **9,9** | **6,5** | **3,0** | **7,57** | **65,4** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 3,5 | 1,7 | 1,6 | 7,16 | 48,8 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 2,7 | 0,4 | 0,0 | 4,92 | 15,4 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 6,3 | 2,5 | 2,7 | 7,15 | 38,7 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 10,1 | 6,1 | 3,0 | 7,45 | 60,5 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 3,7 | 3,2 | 2,3 | 7,83 | 85,8 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 12,0 | 7,0 | 3,3 | 7,42 | 58,3 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 11,2 | 7,6 | 3,7 | 7,65 | 68,1 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 10,1 | 6,9 | 3,5 | 7,67 | 68,3 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 15,9 | 10,7 | 4,8 | 7,60 | 67,4 |
| | GURASO BAKARREKOA | 10,6 | 6,7 | 1,6 | 7,34 | 62,9 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 6,6 | 4,2 | 1,0 | 7,34 | 64,0 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 15,6 | 9,7 | 2,4 | 7,34 | 62,3 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 7,6 | 6,7 | 1,5 | 8,34 | 87,8 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Adinekoei ematen zaien arretarekin lotutako arazoen inguruko datu esanguratsua da honako hau: dimentsio sozial honetan, gizarte-arazoak murrizten ari dira. Hala, 2015eko egoerarekin alderatuta, erabateko intzidentziaren murrizketa % 9,9tik % 9,3rakoa izan da (-0,6 portzentaje-puntu). Murrizketa are handiagoa izan da, ordea, intzidentzia larrian. Kasu horretan, adierazlea % 6,5etik % 5,1era jaitsi da, -1,3 portzentaje-puntuko murrizketarekin.

Aintzat hartu diren indizeen bilakaeran, hobekuntza adierazgarria izan da larritasun-indizeari dagokionez, % 65,4tik % 55,2ra jaitsi baita. Garrantziaren indizea ere jaitsi bada ere, murrizketa neurritsuagoa izan da (7,57tik 7,39ra 2015-2019 aldian).

*Adinekoei ematen zaien arretaren inguruko arazoen intzidentziak mailarik altuenak dauzka gurasoen etxeetan, guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan*

Adinekoei ematen zaien arretaren inguruko arazoek intzidentzia mugatua dute, batezbestekotik beherakoa beti, nuklearrak ez diren etxeetan (pertsona bakarrekoetan, senideak ez diren pertsona anitzekoetan eta nukleorik gabeko familiarretan), guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan eta nukleo anitzeko etxeetan. Oro har, familia mota horietan, problematika aipatu duten etxeek talde horietako biztanleen % 4,4ren eta % 6,4ren artean hartzen dituzte, nahiz eta 2019an guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetako biztanleen % 8,5 hartu. Familia-etxe edo familia mota horietan, intzidentzia larria % 3,5etik hurbil dago, edo hortik behera, eta nukleo anitzeko etxeetan bakarrik hurbiltzen da % 5era (% 4,9).

Adinekoei ematen zaien arretaren inguruko arazoen inpaktua zertxobait altuagoa da mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan eta guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan. Problematika hau aipatu duten etxeetara lotutako biztanleak guztizkoaren % 10,4-10,5 dira, eta, arazo larriei dagokienez, zifrak % 5,8ren eta % 6,8ren artean daude.

Adinekoei ematen zaien arretarekin zerikusia daukaten arazoen inpaktu handiena mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetara lotuta dago, bi guraso nahiz guraso bakarra egon. Familia mota horietan, tartean diren etxeetako biztanleak guztizkoaren % 12,0 dira gurasoen etxeetan, eta % 15,2 guraso bakarreko etxeetan. Intzidentzia larriari dagokionez, konparazioz, tartean den biztanleria mugatua da: gurasoen etxeetan, % 4,0koa. Alabaina, guraso bakarreko familietan, % 10,8ko maximora iristen da.

Adinekoei ematen zaien arretaren inguruko arazoen intzidentzia handiena duten etxeetan, garrantziaren eta larritasunaren indizeek mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan daukate maila gorena (8,14 eta % 71,0). Alderatuz gero, indizeak altuak dira, baita ere, guraso izan ondoko ezkontzazko familietan (7,67 eta % 64,4). Bestalde, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, EAEko adierazle orokorraren inguruan daude (7,55 eta % 55,9). Alabaina, indize horiek balio baxuak dauzkate mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (6,47 eta % 33,5).

### *3.1.6. Osasunarekin zerikusia daukaten arazoak*

FFEIk honako arazo hauek hartu ditu aintzat, EAEko familia-etxe eta familien osasunari dagokionez:

* Etxeko kideren batek gaixotasun terminala edukitzea
* Beste senide batek gaixotasun terminala edukitzea
* Etxeko kideren batek gaixotasun kroniko larri bat edukitzea
* Beste senide batek gaixotasun kroniko larri bat edukitzea
* Etxeko kideren batek erabateko baliaezintasuna edo baliaezintasun iraunkorra edukitzea
* Etxeko kideren batek desgaitasunen bat edukitzea
* Etxeko kideren batek alkoholismoa edo toxikomania edukitzea
* Etxeko kideren batek mendekotasun psikologiko larriren bat edukitzea (ludopatia, Internet, bideo-jokoak eta abar)

26. taulan, osasunarekin zerikusia daukaten arazoen baterako inpaktua, intzidentzia motak eta lotutako indizeak aurkezten dira.

Taula horretan ikus daitekeen bezala, osasunarekin zerikusia daukaten arazoek inpaktu handia daukate euskal biztanlerian, 2019an. Biztanleen % 28,1 bizitza sozialaren dimentsio honekin zerikusia duen arazoren bat aipatu duten etxeetara lotuta daude. Dimentsio honetan, egoera larrien aipamenak esanguratsua izaten jarraitzen du, biztanleen % 17,8 baitaude inplikatuta. Garrantziaren indizean, arazo horiek 7,57 puntu dauzkate, eta larritasun-indizea % 63,2koa da.

Osasunaren inguruko arazoek, intzidentzia handia eduki ez ezik, erabateko intzidentziaz ari bagara, gorantz ere egin dute 2015-2019 aldian. Hala, aldi horretan, arazo horiek oro har aipatu dituzten etxeetan bizi diren biztanleen proportzioa % 23,9tik % 28,1era igo da, +4,3 portzentaje-puntuko igoerarekin. Alabaina, intzidentzia larriaren bilakaera egonkortu egin da, aintzat hartutako aldian zertxobait jaitsi bada ere: % 17,9tik % 17,8ra.

Bilakaera horrek erakusten duenez, osasun-arazoek 2015-2019 aldian gora egin badute ere, arazoak ez dira hain larriak. Hala, osasun-arazoen larritasun-indizea % 75,2tik % 63,2ra jaitsi da, -12,1 portzentaje-puntuko beherakada handi batekin. Arazoen garrantziaren indizeak ere nabarmen egin du behera: 2015eko 8,29tik 2019ko 7,57ra.

**26. taula**
**Osasunarekin arazoak dauzkaten familia-etxe edo familietako kideak, familia-etxe edo familia motaren arabera**
**Arazoaren inpaktuaren adierazleak. EAE. 2015 eta 2019**
**Intzidentzia-tasak guztizko biztanlerian eta arazoak dauzkaten familietako biztanleriaren indizeak**
**(%-tan, larritasun-indizea izan ezik, 0-10 eskalan baitago)**

| Motak | | Erabateko intzidentzia % | Intzidentzia larria % | Lehentasunezko intzidentzia % | Garrantziaren indizea 1-10 eskala | Larritasun-indizea % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | **GUZTIRA** | **28,1** | **17,8** | **16,4** | **7,57** | **63,2** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 28,8 | 17,6 | 18,8 | 7,29 | 61,1 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 30,9 | 16,6 | 13,5 | 7,30 | 53,8 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 54,8 | 45,6 | 44,9 | 8,46 | 83,2 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 32,0 | 21,0 | 19,7 | 7,49 | 65,7 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 18,2 | 13,9 | 5,4 | 8,50 | 76,4 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 37,1 | 23,6 | 24,9 | 7,31 | 63,8 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 24,3 | 13,8 | 13,3 | 7,38 | 56,9 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 21,9 | 11,7 | 11,4 | 7,16 | 53,1 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 33,5 | 22,3 | 20,9 | 7,95 | 66,7 |
| | GURASO BAKARREKOA | 34,3 | 24,8 | 18,2 | 8,14 | 72,1 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 33,9 | 22,6 | 16,7 | 7,85 | 66,7 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 35,0 | 28,2 | 20,6 | 8,61 | 80,5 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 31,7 | 25,6 | 19,7 | 8,57 | 80,8 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **23,9** | **17,9** | **14,8** | **8,29** | **75,2** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 23,2 | 17,1 | 17,8 | 8,08 | 73,8 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 28,5 | 26,2 | 25,4 | 8,86 | 91,9 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 43,3 | 33,1 | 28,1 | 8,75 | 76,4 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 32,3 | 24,1 | 25,5 | 8,24 | 74,5 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 18,1 | 13,8 | 12,6 | 8,49 | 76,5 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 36,5 | 27,1 | 29,3 | 8,20 | 74,3 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 18,1 | 13,3 | 8,9 | 8,23 | 73,9 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 15,7 | 11,4 | 7,3 | 8,20 | 73,0 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 28,7 | 21,8 | 15,9 | 8,31 | 76,1 |
| | GURASO BAKARREKOA | 30,4 | 24,3 | 16,9 | 8,45 | 79,7 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 24,8 | 19,8 | 11,6 | 8,49 | 79,6 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 37,2 | 29,7 | 23,3 | 8,42 | 79,8 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 37,5 | 28,5 | 22,6 | 8,60 | 75,8 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

*Osasun-arazoen intzidentzia altua da familia mota ia guztietan, eta guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan bakarrik mugatzen da*

Osasun-arazoek garrantzi handia daukate EAEko etxe ia guztietan. EAEko adierazle orokorretik behera daude, bakar-bakarrik, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeak eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeak, % 18,2ko eta % 21,9ko intzidentzia orokorra baitute hurrenez hurren. Intzidentzia larriari dagokionez, zifrak % 13,9koak eta % 11,7koak dira.

Osasun-arazoen erabateko intzidentzia EAEko maila orokorretatik oso hurbil dago pertsona bakarreko etxeetan eta senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan (% 28,8 eta % 30,9). Gauza bera gertatzen da intzidentzia larriarekin ere (% 17,6 eta % 16,6).

Erregistroak EAEko adierazle orokorretik gora daude dagoeneko mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan eta nukleo anitzeko etxeetan: intzidentzia orokorrean % 31,7ren eta % 33,9ren artean, eta intzidentzia larrian % 22,3ren eta % 25,6ren artean. % 23,6rekin, intzidentzia larria tartean dago guraso izan ondoko ezkontzazko familietan, baina erabateko intzidentzia % 37,1era iristen da familia mota horietan.

Mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan, erabateko intzidentzia aipatutako familia moten intzidentziara hurbiltzen da, % 35,0rekin. Alabaina, intzidentzia larria EAEko erregistro orokorra baino askoz ere gorago dago, eta % 28,2ra iristen da.

Osasunarekin zerikusia daukaten arazoen inpakturik handiena nukleorik gabeko etxe familiarrei dagokie. Etxe mota horietan, osasun-arazoak dauzkaten etxeetako biztanleak guztizkoaren % 54,8 dira. Intzidentzia larria % 45,6koa da.

EAEko erregistro orokorra gainditzen duen erabateko intzidentzia daukaten etxeetako garrantziaren eta larritasunaren indizeei erreparatuz gero, garrantziaren indizeak 8 puntuko maila gainditzen du, eta larritasun-indizea % 80koa baino handiagoa da, hiru motatan: nukleorik gabeko etxe familiarrak (8,46 eta % 83,2), mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeak (8,61 eta % 80,5) eta nukleo anitzeko etxeak (8,57 eta % 80,8).

### *3.1.7. Bizikidetza-arazoak*

FFEIk honako arazo hauek hartu ditu aintzat, EAEko familia-etxe eta familien bizikidetzari dagokionez:

* Bikote-arazoak edukitzea (tirabira handiak)

* Dibortziatu, banandu edo harremana haustea

* Laster dibortziatu edo banantzea

* Etxeko lanak etxeko kideen artean behar bezala ez banatzea

* Autoritatea behar ez bezala banatzea (menderakuntza, abusua)

* Seme-alabekin harreman txarra edukitzea

* Seme-alabei tratu txarrak ematea

* Seme-alabek familiako beste kide batzuei tratu txarrak ematea

* Bikote barruan tratu txarrak ematea

27. taulan, bizikidetza-arazo horien inpaktua, intzidentzia motak eta lotutako indizeak aurkezten dira.

2019an, bizikidetza-arazoek inpaktu txikia dute biztanleengan. Biztanleen % 5,8 baino ez dago lotuta bizikidetzarekin zerikusia duen arazoren bat aipatu duten etxeetara; halere, proportzio horrek portzentaje-puntu bat egin du gora 2015eko % 4,8arekin alderatuz gero. Dimentsio honetan, biztanleen % 2,2k aipatu dituzte egoera larriak. Nolabait goranzko joera eduki arren, proportzioa nahiko egonkor mantendu da 2015eko % 2,0ri dagokionez.

Garrantziaren indizean, konparazioz, problematika hauek puntuazio murritza dute, 5,78 puntukoa, 2015eko 6,50 puntuetatik behera, argi eta garbi. Halaber, larritasun-indizea ere txikia da, % 37,2koa, eta 2015etik behera egin du (% 40,8).

**27. taula**
**Bizikidetza-arazoak dauzkaten familia-etxe edo familietako kideak, familia-etxe edo familia motaren arabera**
**Arazoaren inpaktuaren adierazleak. EAE. 2015 eta 2019**
**Intzidentzia-tasak guztizko biztanlerian eta arazoak dauzkaten familietako biztanleriaren indizeak**
**(%-tan, larritasun-indizea izan ezik, 0-10 eskalan baitago)**

| Motak | | Erabateko intzidentzia | Intzidentzia larria | Lehentasunezko intzidentzia | Garrantziaren indizea 1-10 eskala | Larritasun-indizea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % | % | % | | % |
| 2019 | **GUZTIRA** | **5,8** | **2,2** | **0,9** | **5,78** | **37,2** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 2,5 | 0,5 | 0,6 | 4,23 | 20,2 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 5,8 | 5,8 | 1,9 | 10,00 | 100,0 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 4,5 | 0,0 | 0,0 | 6,00 | 0,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 3,7 | 1,2 | 0,8 | 5,36 | 33,4 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 6,1 | 3,1 | 0,8 | 6,10 | 51,3 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 2,8 | 0,6 | 0,8 | 4,78 | 19,6 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 7,4 | 2,8 | 0,9 | 5,74 | 37,2 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 8,2 | 3,0 | 0,9 | 5,79 | 36,4 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 4,1 | 1,8 | 0,8 | 5,33 | 43,6 |
| | GURASO BAKARREKOA | 9,0 | 4,1 | 2,5 | 6,67 | 46,0 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 12,5 | 6,7 | 4,0 | 6,94 | 53,4 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 3,3 | 0,0 | 0,0 | 5,05 | 0,0 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 0,0 | 0,0 | 0,0 | | . |
| 2015 | **GUZTIRA** | **4,8** | **2,0** | **1,1** | **6,50** | **40,8** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 4,7 | 1,5 | 2,4 | 5,69 | 30,9 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 0,0 | 0,0 | 0,0 | | . |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 7,5 | 0,0 | 0,0 | 3,43 | 0,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 2,7 | 1,2 | 1,0 | 6,75 | 45,3 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 2,8 | 2,0 | 0,5 | 8,57 | 73,6 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 2,7 | 1,0 | 1,1 | 6,20 | 36,9 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 3,2 | 1,4 | 0,6 | 6,70 | 42,1 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 3,8 | 1,6 | 0,7 | 6,70 | 41,8 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 0,8 | 0,4 | 0,0 | 6,76 | 48,2 |
| | GURASO BAKARREKOA | 15,3 | 6,0 | 3,3 | 6,44 | 39,3 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 22,4 | 8,3 | 4,5 | 6,27 | 37,2 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 6,8 | 3,2 | 1,9 | 7,13 | 47,6 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 7,3 | 5,2 | 0,0 | 8,03 | 71,0 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

*Bizikidetza-arazoen intzidentzia mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan bakarrik urruntzen da batez besteko zifretatik*

Bizikidetza-arazoen intzidentzia EAEko batez besteko zifretatik urruntzen den familia mota bakarra mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiena da. Kasu horretan, biztanleen % 12,5 bizi dira bizikidetza-arazoak aipatu dituzten etxeetan. Arazo larriek kolektiboko herritarren % 6,7ri eragiten diete. Garrantziaren indizea 6,94koa da talde horretan, eta larritasun-indizea % 53,4koa.

Honako talde hauetan, intzidentzia batezbestekotik hurbil edo gora dago: senideak ez diren pertsona anitzeko etxeak, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeak eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeak. Kasu horietan, bizikidetza-arazoen intzidentzia orokorra % 5,8ren eta % 8,2ren artean dago. Intzidentzia larriaren moduek % 3 gainditzen dute (% 5,8, % 3,1 eta % 3,0, hurrenez hurren).

### *3.1.8. Diskriminazio-arazoak*

Azkenik, diskriminazio-adierazleen multzo baten inpaktua jasotzen da 28. taulan, intzidentzia motekin eta lotutako indizeekin batera.

**28. taula**
**Harreman sozialetan diskriminazio-arazoak dauzkaten familia-etxe edo familietako kideak**
**Arazoaren inpaktuaren adierazleak. EAE. 2015 eta 2019**
**Intzidentzia-tasak guztizko biztanlerian eta arazoak dauzkaten familietako biztanleriaren indizeak**
**(%-tan, larritasun-indizea izan ezik, 0-10 eskalan baitago)**

| Motak | | Erabateko intzidentzia % | Intzidentzia larria % | Lehentasunezko intzidentzia % | Garrantziaren indizea 1-10 eskala | Larritasun-indizea % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | **GUZTIRA** | **0,8** | **0,5** | **0,4** | **6,78** | **54,6** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 0,1 | 0,1 | 0,1 | 9,43 | 92,8 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 9,5 | 6,4 | 1,3 | 6,68 | 66,9 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 0,0 | 0,0 | 0,0 | | . |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 0,1 | 0,1 | 0,0 | 8,00 | 100,0 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 0,2 | 0,2 | 0,0 | 8,00 | 100,0 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 0,0 | 0,0 | 0,0 | | . |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 1,1 | 0,5 | 0,5 | 6,48 | 49,5 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 1,4 | 0,7 | 0,7 | 6,48 | 49,5 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 0,0 | 0,0 | 0,0 | | . |
| | GURASO BAKARREKOA | 1,5 | 1,1 | 0,8 | 7,92 | 76,7 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 2,4 | 1,8 | 1,4 | 7,92 | 76,7 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 0,0 | 0,0 | 0,0 | | . |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 0,8 | 0,0 | 0,0 | 6,00 | 0,0 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Zentzu horretan, FFEIren 2019ko eragiketak diskriminazio-arazo espezifiko batzuk sartu ditu; zehazki, honako hauek:

* Arraza edo jatorri etnikoagatiko diskriminazioa

* Nazionalitateagatiko diskriminazioa

* Erlijioagatiko diskriminazioa

28. taulan ikus daitekeenez, 2019an euskal biztanleen % 0,8 baino ez da bizi aintzat hartutako diskriminazio-egoeraren bat aipatu duten etxeetan. Intzidentzia larria % 0,5era mugatzen da.

Garrantziaren indizean, arazo horiek 6,78 puntu dauzkate, eta larritasun-indizea % 54,6koa da.

Arazo hau adierazgarriagoa da bi familia-etxe edo familia mota hauetan: senideak ez diren pertsona anitzeko etxeak eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familiak. Lehenengo kasuan, erabateko intzidentzia eta intzidentzia larria nahiko handiak dira, % 9,5ekoa eta % 6,4koa, hurrenez hurren. Aintzat hartutako guraso bakarreko familietan, intzidentzia askoz ere txikiagoa da, nahiz eta konparazioa eginez adierazgarria izaten jarraitzen duen: erabateko intzidentzia % 2,4koa da, eta intzidentzia larria % 1,8koa.

Intzidentzia txikiagoa izan arren, garrantziaren eta larritasunaren indizeak altuagoak dira aintzat hartutako guraso bakarreko familietan (7,92 eta % 76,7, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeen 6,68tik eta % 66,9tik gora).

Intzidentzia askoz ere txikiagoa bada ere, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan ere EAEko erregistro orokorra gainditzen da. Erabateko intzidentzia % 1,4koa da eragindako etxeetan bizi diren biztanleengan, eta intzidentzia larria % 0,7koa. Garrantziaren indizeak 6,48 puntu dauzka, eta larritasun-indizea % 49,5ekoa da.

## 3.2. Familia eta familia-etxeetako lehentasunezko arazoak

Hona hemen EAEko familia-etxeei eta familiei eragiten dieten arazo nagusiak edo lehentasunezko arazoak, arazook ukitzen dituzten familiek eta biztanleek adierazitakoa aintzat hartuz.

3.1 atalean aintzat hartutako arazo motetan txertatu diren kontzeptuek, zenbaitetan, dimentsio bat baino gehiago estaltzen dituzte. Beraz, etxeek parez pare daukaten arazo nagusia aztertzeari begira, aintzat hartutako arazoen tipologia konplexu eta xeheagoa zehaztea komeni da. FFEIren jarduketa aitzindarien esperientziari jarraituz, arazo nagusien edo lehentasunezkoen tipologia hau ezartzen da:

**Aintzat hartutako arazo nagusien tipologia eta mota bakoitzean sartutako arazo espezifikoak**

| ARAZO MOTA NAGUSIA | SARTUTAKO ADIERAZLE ESPEZIFIKOAK |
|---|---|
| **Etxebizitzaren hutsuneak** | Egoera eskasean egotea<br>Toki gutxiegi edukitzea<br>Ekipamendu gutxiegi edukitzea<br>Konponketak egin behar izatea<br>Etxebizitza aldatu behar izatea |
| **Gabezia ekonomikoak** | Etxebizitzaren hipotekaren epeak ordaintzeko zailtasunak edukitzea<br>Etxebizitzako obren ondoriozko zorrak ordaintzeko zailtasunak edukitzea<br>Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko zailtasunak edukitzea<br>Etxetik botatzeko edo hipoteka betearazteko arriskuan edo prozesuan egotea<br>Diru-sarrerarik ez edukitzea<br>Oinarrizko premiak estaltzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea<br>Energia-gastuei aurre egiteko adina diru-sarrerarik ez edukitzea<br>Etxebizitzaren gastuei aurre egiteko adina diru-sarrerarik ez edukitzea<br>Seme-alabek egin nahi dituzten ikasketak ordaintzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea<br>Gastu bereziei aurre egiteko adina diru-sarrerarik ez edukitzea<br>Haurrak zainduko dituen norbait kontratatzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea<br>Adinekoak zainduko dituen norbait kontratatzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea<br>Adinekoentzako egoitza bat ordaintzeko (edo ordaintzen laguntzeko) adina diru-sarrerarik ez edukitzea<br>Kideren bat etxera itzuli da, etxebizitza-arazoengatik |
| **Bizitza independentea sendotzea** | Lehenengo etxebizitza ezin erosi izatea<br>Seme-alabarik eduki ezin izatea, baliabide ekonomikorik ez edukitzeagatik<br>Seme-alabarik eduki ezin izatea, familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunak edukitzeagatik<br>Seme-alabek bizimodu independentea edukitzeko zailtasunak edukitzea<br>Seme-alabarik eduki ezin izatea, lan-arazoengatik edo laneko prekarietate-arazoengatik |

**Aintzat hartutako arazo nagusien tipologia eta mota bakoitzean sartutako arazo espezifikoak (Jarraipena)**

| ARAZO MOTA NAGUSIA | SARTUTAKO ADIERAZLE ESPEZIFIKOAK |
|---|---|
| **Langabezia, enplegu prekarioa** | Lan egiteko adinean dagoen inork lanik ez egitea |
| | Etxeko kideren bat langabezian egotea |
| | Enplegu prekarioa edukitzea: behin-behinekoa, kontraturik gabea, denbora partzialean, orduka |
| **Enpleguaren kalitate baxua** | Lanean ordutegi txarra edukitzea: txandaka, ordutegi irregularrak |
| | Kalitate baxuko enplegua edo titulazioarekin bat ez datorrena edukitzea |
| | Enplegua gaizki ordainduta egotea |
| | Lantokia familiaren bizilekutik oso urrun egotea |
| | Familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunak dituen enplegua edukitzea |
| **Pertsonen zainketa** | Seme-alaba adingabeak zaintzea |
| | Haur-eskolan adingabeko seme-alabentzako tokirik ez edukitzea |
| | Adinekoak etxean artatzeagatik lan-gainkarga edukitzea. |
| | Adinekoak etxetik kanpo artatzeagatik lan-gainkarga edukitzea. |
| | Adineko gurasoak etxean artatu ezin izatea, lanagatik |
| | Adineko gurasoak etxetik kanpo artatu ezin izatea, lanagatik |
| | Adineko gurasoak etxean artatu ezin izatea, toki faltagatik |
| | Egoitzetan tokirik ez aurkitzea |
| | Kontratatzeko zaintzaile egokirik ez aurkitzea |
| **Gaixotasuna/Desgaitasuna** | Etxeko kideren batek gaixotasun terminala edukitzea |
| | Beste senide batek gaixotasun terminala edukitzea |
| | Etxeko kideren batek gaixotasun kroniko larri bat edukitzea |
| | Beste senide batek gaixotasun kroniko larri bat edukitzea |
| | Etxeko kideren batek erabateko baliaezintasuna edo baliaezintasun iraunkorra edukitzea |
| | Etxeko kideren batek desgaitasunen bat edukitzea |
| | Etxeko kideren batek mendekotasun psikologiko larriren bat edukitzea (ludopatia, Internet, bideo-jokoak eta abar) |
| | Etxeko kideren batek alkoholismoa edo toxikomania edukitzea |
| **Familia-egoera** | Seme-alabarik eduki ezin izatea (arrazoi biologikoengatik) |
| | Seme-alabak ondo ez moldatzea edo eskola-porrota |
| | Ikasketak goiz uztea |
| | Bikote-arazoak edukitzea (tirabira handiak) |
| | Dibortziatu, banandu edo harremana haustea |
| | Etxeko lanak etxeko kideen artean behar bezala ez banatzea |
| | Autoritatea behar ez bezala banatzea (menderakuntza, abusua) |
| | Seme-alabekin harreman txarra edukitzea |
| | Seme-alabek familiako beste kide batzuei tratu txarrak ematea |
| | Laster dibortziatu edo banantzea |
| | Seme-alabei tratu txarrak ematea |
| | Bikote barruan tratu txarrak ematea |

**Aintzat hartutako arazo nagusien tipologia eta mota bakoitzean sartutako arazo espezifikoak**

**(Jarraipena)**

| ARAZO MOTA NAGUSIA | SARTUTAKO ADIERAZLE ESPEZIFIKOAK |
|---|---|
| **Seme-alaben etorkizuna** | Seme-alaben etorkizunaren inguruan ziurgabetasuna sentitzea |
| **Beste batzuk** | Ingresos insuficientes para costearse unas vacaciones[15] |
| **Diskriminazioa/ Bazterketa** | Arraza edo jatorri etnikoagatiko diskriminazioa<br>Nazionalitateagatiko diskriminazioa<br>Erlijioagatiko diskriminazioa<br>Sexuagatiko edo adinagatiko diskriminazioa lanean<br>Jatorrizko herrialdeagatiko, arrazagatiko eta/edo erlijioagatiko diskriminazioa lanean<br>Bazterketa- edo bullying-arazoak |
| **Bat ere ez** | Ez dago aurreko arazorik |

29. taulan, emaitza nagusiak laburbiltzen dira. 3.2.1. azpiatalean, aintzat hartu diren askotariko gizarte-arazoen lehentasunezko intzidentziaren bilakaera aztertzen da, txostenaren kapitulu honetarako zehaztu den egiturarekin bat. 3.2.2. azpiatalean, arazo horien lehentasunezko intzidentzian dauden desberdintasun nagusiak zehazten dira, familia-etxe eta familia motaren arabera.

Familiek lehentasunezkotzat jo dituzten kontuak xehetasunez aztertu aurretik, ordea, hurbilketan gizarte-arazorik planteatzen ez duten egoerak aipatzea komeni da.

Zentzu horretan, 29. taulan ikus daitekeen moduan, 2015etik 2019ra murriztu egin da gizarte-arazo garrantzitsuren bat aipatu duten etxeetan bizi diren biztanleen proportzioa. Proportzioa % 73,1etik % 64,8ra igaro da 2015-2019 aldian.

Aintzat hartutako arazorik ez dutela adierazi duten biztanleen kopuruak, beraz, gora egin du (2015eko % 26,9tik 2019ko % 35,2ra), eta bilakaera hori bereziki esanguratsua da. Izan ere, aipatzea merezi duen gizarte-arazorik ez duen kolektiboaren pisua nabarmen igo da.

---

[15] Adierazle hau gabezia ekonomikoekin lotzen bada ere, bereizita aztertuko da, ez baitu loturarik gabezia ekonomiko horiei lotutako familia motan aztertzen diren oinarrizko premiak betetzeko zailtasunekin.

**29. taula Familia-etxe/Familietako biztanleak: Arazo mota nagusia, EAEko familia-etxe edo familia motaren arabera. 2015 eta 2019 (% horizontalak)**

| | | Etxebizitzaren hutsuneak | Gabezia ekonomikoak | Bizitza independentea sendotzea | Langabezia, enplegu prekarioa | Enpleguaren kalitate baxua | Pertsonen zainketa | Gaixotasuna/ Desgaitasuna | Familia-egoera | Seme-alaben etorkizuna | Beste batzuk | Diskriminazioa/ bazterketa | Adierazitako bat ere ez | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. | % hor. |
| 2019 | **GUZTIRA** | **4,5** | **8,9** | **3,4** | **10,7** | **7,3** | **3,8** | **16,4** | **1,3** | **6,6** | **0,7** | **1,2** | **35,2** | **100,0** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 5,3 | 13,5 | 1,2 | 4,0 | 3,5 | 2,1 | 18,8 | 0,6 | 2,4 | 0,8 | 0,1 | 47,8 | 100,0 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 9,7 | 31,3 | 3,1 | 17,4 | 1,7 | 1,4 | 13,5 | 1,9 | 3,4 | 0,0 | 1,3 | 15,5 | 100,0 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 2,8 | 5,0 | 5,7 | 13,5 | 1,6 | 0,2 | 44,9 | 0,0 | 3,6 | 1,6 | 0,0 | 21,0 | 100,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 4,4 | 7,3 | 2,1 | 6,7 | 6,1 | 4,6 | 19,7 | 0,8 | 2,9 | 0,3 | 0,4 | 44,6 | 100,0 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 4,8 | 6,4 | 5,7 | 16,4 | 16,2 | 1,6 | 5,4 | 0,8 | 0,7 | 0,0 | 1,5 | 40,5 | 100,0 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 4,3 | 7,6 | 0,8 | 3,2 | 2,4 | 5,7 | 24,9 | 0,8 | 3,7 | 0,5 | 0,0 | 46,1 | 100,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 4,8 | 7,0 | 3,6 | 12,8 | 8,7 | 4,2 | 13,3 | 1,5 | 9,2 | 0,4 | 1,6 | 32,8 | 100,0 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 4,8 | 8,3 | 2,9 | 11,1 | 10,0 | 4,2 | 11,4 | 1,7 | 9,6 | 0,2 | 2,0 | 33,9 | 100,0 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 5,2 | 1,9 | 6,3 | 19,7 | 3,8 | 4,4 | 20,9 | 0,8 | 7,3 | 1,3 | 0,0 | 28,5 | 100,0 |
| | GURASO BAKARREKOA | 2,4 | 15,4 | 4,9 | 15,5 | 6,7 | 4,6 | 18,2 | 3,2 | 7,6 | 1,8 | 2,1 | 17,6 | 100,0 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 2,4 | 22,4 | 3,9 | 12,1 | 9,4 | 2,5 | 16,7 | 5,2 | 7,3 | 2,0 | 3,0 | 13,1 | 100,0 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 2,3 | 4,1 | 6,5 | 20,9 | 2,4 | 7,9 | 20,6 | 0,0 | 8,1 | 1,6 | 0,5 | 25,0 | 100,0 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 3,6 | 8,2 | 7,9 | 10,0 | 10,2 | 0,0 | 19,7 | 0,0 | 4,8 | 1,7 | 1,6 | 32,3 | 100,0 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **3,8** | **8,2** | **2,0** | **18,8** | **6,2** | **3,4** | **14,8** | **1,4** | **13,8** | **0,8** | **0,0** | **26,9** | **100,0** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 4,6 | 13,9 | 1,0 | 9,9 | 4,5 | 1,6 | 17,8 | 2,4 | 3,4 | 1,3 | 0,0 | 39,5 | 100,0 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 0,0 | 19,9 | 4,0 | 23,0 | 4,3 | 0,0 | 25,4 | 0,0 | 3,0 | 2,6 | 0,0 | 17,9 | 100,0 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 10,0 | 16,1 | 0,0 | 14,9 | 1,0 | 2,7 | 28,1 | 0,0 | 0,0 | 3,6 | 0,0 | 23,6 | 100,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 3,4 | 5,0 | 1,1 | 11,0 | 4,4 | 3,0 | 25,5 | 1,3 | 5,3 | 1,0 | 0,0 | 39,0 | 100,0 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 3,9 | 3,0 | 1,7 | 29,1 | 13,8 | 2,3 | 12,6 | 2,2 | 0,0 | 1,9 | 0,0 | 29,5 | 100,0 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 3,2 | 5,5 | 0,9 | 5,7 | 1,6 | 3,3 | 29,3 | 1,1 | 6,9 | 0,7 | 0,0 | 41,7 | 100,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 3,7 | 6,4 | 2,7 | 21,1 | 7,9 | 4,3 | 8,9 | 0,9 | 19,6 | 0,5 | 0,0 | 23,8 | 100,0 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 4,0 | 7,6 | 1,5 | 20,4 | 8,7 | 4,2 | 7,3 | 1,2 | 20,5 | 0,4 | 0,0 | 24,2 | 100,0 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 2,5 | 1,0 | 7,9 | 24,1 | 4,7 | 4,8 | 15,9 | 0,0 | 15,8 | 1,2 | 0,0 | 22,1 | 100,0 |
| | GURASO BAKARREKOA | 3,6 | 15,2 | 0,8 | 26,3 | 4,7 | 1,7 | 16,9 | 3,3 | 12,5 | 0,8 | 0,0 | 14,1 | 100,0 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 2,6 | 22,6 | 0,3 | 26,2 | 6,1 | 1,2 | 11,6 | 4,5 | 14,7 | 1,3 | 0,0 | 9,0 | 100,0 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 4,8 | 6,4 | 1,4 | 26,4 | 3,0 | 2,4 | 23,3 | 1,9 | 9,9 | 0,2 | 0,0 | 20,3 | 100,0 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 3,5 | 8,3 | 4,3 | 31,1 | 0,8 | 1,5 | 22,6 | 0,0 | 13,3 | 0,0 | 0,0 | 14,5 | 100,0 |

Etxe barruko bigarren mailako familia-unitateak ez dira barruan sartu
Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

### 3.2.1. Behatutako lehentasunezko arazoen bilakaera

Atal honetan, EAEko familia-etxe eta familietan hautemandako lehentasunezko arazoak aztertzen dira.

*Enpleguarekin zerikusia daukaten arazoek garrantzitsuenak izaten jarraitzen dute euskal familientzat, baina arazoon inpaktua nabarmen murriztu da*

Lan-egoera 2015-2019 aldian nabarmen hobetu denez, enpleguaren inguruan hautemandako inpaktuak beherakada handia izan du, 30. taulan ikus daitekeen bezala.

**30. taula**

**Enplegu-arazoak dauzkaten familia-etxe/familietako biztanleak. EAE. 2015 eta 2019. Arazo mota bakoitzaren intzidentzia-tasak eta intzidentzia larria, guztizko biztanlerian (%-tan)**

| AINTZAT HARTUTAKO ADIERAZLEAK | Intzidentzia 2015 | | Intzidentzia 2019 | | 2015-2019 aldiko aldakuntza, portzentaje-puntutan | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Erabatekoa | Larria | Erabatekoa | Larria | Erabatekoa | Larria |
| LANGABEZIA, ENPLEGU PREKARIOA | | | | | | |
| Lan egiteko adinean dagoen inork lanik ez egitea | 8,0 | 6,9 | 4,2 | 3,1 | -3,8 | -3,8 |
| Etxeko kideren bat langabezian egotea | 23,2 | 18,5 | 14,8 | 9,4 | -8,4 | -9,1 |
| Enplegu prekarioa edukitzea: behin-behinekoa, kontraturik gabea, denbora partzialean, orduka | 14,3 | 11,2 | 10,7 | 6,8 | -3,7 | -4,4 |
| ENPLEGUAREN KALITATE BAXUA | | | | | | |
| Lanean ordutegi txarra edukitzea: txandaka, ordutegi irregularrak | 10,6 | 7,1 | 8,1 | 5,3 | -2,5 | -1,8 |
| Kalitate baxuko enplegua edo titulazioarekin bat ez datorrena edukitzea | 5,9 | 4,2 | 4,7 | 3,4 | -1,2 | -0,8 |
| Enplegua gaizki ordainduta egotea | 12,6 | 8,7 | 6,8 | 4,4 | -5,8 | -4,3 |
| Lantokia familiaren bizilekutik oso urrun egotea | 7,8 | 4,2 | 5,8 | 3,1 | -2,0 | -1,1 |
| Familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunak dituen enplegua edukitzea | 7,8 | 5,0 | 5,7 | 3,9 | -2,1 | -1,1 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

2015-2019 aldian ikusitako hobekuntza nagusiak, arazo bakoitzak eragindako etxeetan bizi diren biztanleei dagokien pisuan neurtuta, alderdi batzuekin lotzen dira. Hona hemen alderdi horiek:

Batetik, langabeziaren inguruan hautemandako arazoak murriztu egin dira. Hala, etxeko kideren bat langabezian egoteari dagokionez hautemandako intzidentzia % 23,2tik % 14,8ra jaitsi da. Beherakada altua izan da, baita ere, lan egiteko adinean dagoen inork lanik egiten ez duen kasuetan (% 8tik % 4,2ra).

Prekariotzat jotzen den enpleguaren presentziak ere behera egin du, eta 2015ean biztanleen % 14,3 biltzen zituzten etxeei eragitetik 2019an biztanleen % 10,7 biltzen dituzten etxeei eragitera pasa da.

Bestalde, gaizki ordaindutako enpleguaren intzidentziaren beherakada handia izan dela nabarmendu behar da, 2015ean biztanleen % 12,6 biltzen zituzten etxeei eragitetik 2019an biztanleen % 6,8 biltzen dituzten etxeei eragitera pasa baita.

Hain handia izan ez arren, enpleguaren kalitateari buruzko adierazleen bilakaeran ere hobekuntza ikusi da. Zentzu horretan, 2015-2019 aldian honako hobekuntza hauek gertatu dira:

a) Ordutegi txarra edo irregularra daukan enplegu bati edo txandakako enplegu bati lotutako arazoak dauzkaten etxeetako biztanleen ehunekoa % 10,6tik % 8,1era murriztu da.

b) Kalitate baxuko enpleguaren edo lortutako titulazioarekin bat egiten ez duen enpleguaren inpaktuari dagokionez, egoera arazotsuen inpaktua % 5,9tik % 4,7ra jaitsi da.

c) Familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunak dituzten enpleguei dagokienean, arazoa % 7,8tik % 5,7ra jaitsi da.

Gainera, arazoen intzidentzia orokorrean nahiz arazoen larritasunean ikusi da hobekuntza-lerroa.

2015etik 2019ra bitartean lan-egoera asko hobetu izanaren ondorioz, enpleguarekin zerikusia daukaten arazoak lehentasunezkoak direla dioten etxeetako pertsonen proportzioak nabarmen egin du behera. 29. taulan ikus daitekeenez, lehentasunezko intzidentziaren terminoetan, langabezia, enplegu prekarioa edo enpleguaren kalitatearekin lotutako elementuak arazo nagusitzat jotzen dituzten etxeetako pertsonak guztizko biztanleriaren % 25 izatetik % 18 izatera igaro dira 2015-2019 aldian.

Ikusitako joerak, batez ere, langabezia-egoeren edo enplegu prekarioaren inpaktua murriztea ekarri du. Lehentasunezko arazo gisa, 2015ean biztanleen % 18,8 biltzen zituzten etxeetan aipatzen ziren problematika horiek. Proportzio hori % 10,7ra jaitsi da 2019an: -8,1 portzentaje-puntuko murrizketa handia gertatu da.

Ikusi ahal izan dugun moduan, arazoen murrizketa ez da hain handia izan enpleguaren kalitate baxuari lotutako adierazleetan. Beraz, problematika horrek pisu erlatibo pixka bat irabazi du familiei eragiten dieten problematiken banaketan. 2019an, biztanleen % 7,3k lehentasunezko arazotzat jotzen dituzte egoera horiek, eta 2015ean % 6,2 ziren.

*Halaber, bizi-kalitatearekin zerikusia duten arazoen inpaktua murriztu da (gabezia ekonomikoak eta etxebizitza eskuratzeko aukerak)*

31. taulak erakusten duenez, enpleguaren egoera hobea izateak bizi-baldintzen inguruko adierazleak paraleloki hobetzea ekartzen du oro har. Hona hemen nabarmentzeko moduko alderdi nagusiak:

**Lehenik eta behin, gabezia ekonomikoaren adierazleen inpaktua nabarmen txikitu da etxeetan; bereziki, oinarrizko gastuak estaltzeari dagokionez**.

Norabide horretan, oinarrizko premiei aurre egiteko adina diru-sarrerarik ez duten etxeetako pertsonen proportzioan ikus daitekeen beherakadari egiten dio erreferentzia hobekuntza nagusiak. Egoera horrek biztanleen % 8ri eragiten zien 2015ean, eta % 5,1i 2019an.

Adierazitako testuinguruan, energia-gastuei (% 11,4tik % 7,4ra), etxea zaintzeko gastu orokorrei (% 10,2tik % 7,4ra) edo seme-alaben ikasketen gastuei (% 5,6tik % 3,9ra) aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez edukitzeari lotutako arazoa ere murriztu egin da.

**31. taula**

**Bizi-baldintzetan arazoak dauzkaten familia-etxe/familietako biztanleak. EAE. 2015 eta 2019. Arazo mota bakoitzaren intzidentzia-tasak eta intzidentzia larria, guztizko biztanlerian (%-tan)**

| AINTZAT HARTUTAKO ADIERAZLEAK | Intzidentzia 2015 | | Intzidentzia 2019 | | 2015-2019 aldiko aldakuntza, portzentaje-puntutan | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Erabatekoa | Larria | Erabatekoa | Larria | Erabatekoa | Larria |
| ETXEBIZITZAREN HUTSUNEAK | | | | | | |
| Etxebizitzaren egoera kaskarra izatea | 2,5 | 1,4 | 1,6 | 1,0 | -0,9 | -0,4 |
| Etxebizitzan toki nahikorik ez egotea | 5,9 | 2,3 | 5,3 | 2,4 | -0,7 | 0,1 |
| Etxebizitzako ekipamendua nahikoa ez izatea | 3,2 | 1,6 | 2,7 | 1,6 | -0,5 | 0,0 |
| Etxebizitzan konponketak egin behar izatea | 12,5 | 4,3 | 8,7 | 3,5 | -3,8 | -0,9 |
| Etxebizitza aldatu behar izatea | 5,2 | 2,8 | 3,6 | 2,5 | -1,6 | -0,3 |
| GABEZIA EKONOMIKOAK | | | | | | |
| Etxebizitzaren hipotekaren epeak ordaintzeko zailtasunak edukitzea | 3,9 | 2,4 | 1,9 | 1,2 | -2,0 | -1,2 |
| Etxebizitzako obren ondoriozko zorrak ordaintzeko zailtasunak edukitzea | 1,4 | 0,7 | 1,0 | 0,8 | -0,4 | 0,1 |
| Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko zailtasunak edukitzea | 3,6 | 2,4 | 3,2 | 2,4 | -0,4 | 0,0 |
| Etxetik botatzeko edo hipoteka betearazteko arriskuan edo prozesuan egotea | 0,3 | 0,3 | 0,1 | 0,1 | -0,3 | -0,2 |
| Familiako kideren bat etxebizitza-arazoengatik itzultzea | 1,3 | 1,1 | 0,8 | 0,4 | -0,5 | -0,7 |
| Diru-sarrerarik ez edukitzea | 0,4 | 0,4 | 0,4 | 0,4 | 0,0 | 0,0 |
| Oinarrizko premiak estaltzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea | 8,0 | 6,3 | 5,1 | 3,1 | -2,9 | -3,1 |
| Energia-gastuei aurre egiteko adina diru-sarrerarik ez edukitzea | 11,4 | 8,1 | 7,4 | 4,3 | -4,0 | -3,7 |
| Etxebizitzaren gastuei aurre egiteko adina diru-sarrerarik ez edukitzea | 10,2 | 7,3 | 7,4 | 4,5 | -2,8 | -2,7 |
| Seme-alabek egin nahi dituzten ikasketak ordaintzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea | 5,6 | 4,3 | 3,9 | 1,8 | -1,7 | -2,6 |
| Gastu bereziei aurre egiteko adina diru-sarrerarik ez edukitzea | 23,8 | 14,5 | 20,0 | 11,0 | -3,7 | -3,6 |
| Haurrak zainduko dituen norbait kontratatzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea | 2,5 | 1,4 | 2,9 | 2,0 | 0,4 | 0,7 |
| Adinekoak zainduko dituen norbait kontratatzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea | 2,6 | 1,9 | 1,8 | 1,0 | -0,8 | -1,0 |
| Adinekoentzako egoitza bat ordaintzeko (edo ordaintzen laguntzeko) adina diru-sarrerarik ez edukitzea | 1,8 | 1,2 | 1,8 | 1,2 | -0,1 | 0,0 |
| BIZITZA INDEPENDENTEA EDUKI AHAL IZATEA EDO SENDOTZEA | | | | | | |
| Lehenengo etxebizitza ezin erosi izatea | 7,3 | 5,5 | 6,9 | 4,9 | -0,3 | -0,6 |
| Seme-alabarik eduki ezin izatea, baliabide ekonomikorik ez edukitzeagatik | 0,9 | 0,4 | 0,9 | 0,3 | 0,0 | -0,1 |
| Seme-alabarik eduki ezin izatea, familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunak edukitzeagatik | 0,9 | 0,5 | 0,8 | 0,4 | -0,2 | -0,1 |
| Seme-alabarik eduki ezin izatea, lan-arazoengatik edo laneko prekarietate-arazoengatik | 0,8 | 0,4 | 0,7 | 0,3 | -0,1 | -0,2 |
| Seme-alabek bizimodu independentea edukitzeko zailtasunak edukitzea | 9,8 | 7,6 | 6,3 | 4,7 | -3,5 | -2,9 |
| OPORRAK | | | | | | |
| Oporrak ordaintzeko adina diru-sarrerarik ez edukitzea | 21,6 | 8,5 | 12,5 | 5,8 | -9,1 | -2,8 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Aldi berean, nabarmen jaitsi da hipoteken epeak ordaintzeko arazoak dauzkaten pertsonen proportzioa (% 3,9tik % 1,9ra). Halaber, gastu bereziei aurre egiteko arazoak dauzkaten etxeetan bizi diren biztanleen ehunekoa nabarmen murriztu da (2015eko % 23,8tik 2019ko % 20ra).

Oro har, intzidentzia larriaren adierazleetan ere ikusi da adierazitako joera on hori.

Gabezia ekonomikoaren inguruko gainerako adierazleetan, intzidentzia orokorra txikiagoa izaki, joera ona da baita ere, baina lau ñabardura hauekin:

a) Diru-sarreren erabateko gabezia egonkor mantendu da 2015-2019 aldian, % 0,4ko mailan.

b) Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko zailtasunekin lotutako kasuetan, hobekuntza mugatua da, intzidentziak % 3,6tik % 3,2ra egin baitu behera; halere, intzidentzia larria % 2,4n egonkortu da.

c) Adinekoentzako egoitza bat ordaintzeko (edo ordaintzen laguntzeko) diru-sarrera nahikorik ez edukitzearen inguruko adierazleak egonkor daude (% 1,8, eta % 1,2 intzidentzia larrian).

d) Seme-alabak zaintzeko norbait kontratatu ahal izateko diru-sarrera nahikorik ez edukitzeari dagokionez, okerrera egin da. Arazoaren intzidentzia biztanleen % 2,5etik % 2,9ra igaro da. Intzidentzia larria igo egin da, % 1,4tik % 2,0ra, 2015 eta 2019 artean.

**Bigarrenik, etxebizitzaren egoerari buruzko adierazleek ere hobera egin dute**

31. taulak erakusten duenez, etxebizitzaren hutsuneei buruzko adierazleek hobera egin dute 2015-2019 aldian. Joera on hori bereziki deigarria da etxebizitzan konponketak egin behar izateari dagokionez, eragindako biztanleak % 12,5 izatetik % 8,7 izatera igaro baitira. Hain handia izan ez arren, etxebizitza aldatu behar duten etxeetako biztanleengan ere hobekuntza hauteman daiteke (% 5,2tik % 3,6ra).

Beste adierazle batzuetan ere, aldeko bilakaera ikus dezakegu: etxebizitzaren egoera kaskarra dela dioten etxeetako biztanleak % 2,5 izatetik % 1,6 izatera pasa dira; toki gutxiegi edukitzeari dagokionez, % 5,9tik % 5,3ra igaro dira, eta, etxebizitzako ekipamendua nahikoa ez izateari dagokionez, % 3,2tik % 2,7ra.

Alabaina, intzidentzia larriaren moduak aintzat hartuz gero, joera ez da hain ona, hainbat adierazletan nolabaiteko egonkortze-lerroa ikus baitaiteke: Etxebizitza aldatzeko premian, % 2,5 2019an eta % 2,8 2015ean; etxebizitzan toki nahikorik ez egoteari dagokionez, % 2,4 eta % 2,3, eta, ekipamendu nahikorik ez egoteari dagokionez, % 1,6 2015ean nahiz 2019an.

**Hirugarrenik, bizitza independentea eduki ahal izateko arazoek behera egin dute**

31. taulan, halaber, seme-alabek bizitza independentea edukitzeko zailtasunen inguruko adierazlearen dinamika positiboa dela ikus daiteke. Kasu horretan, intzidentzia biztanleen % 9,8tik (2015) % 6,3ra (2019) jaitsi da (% 7,6tik % 4,7ra, intzidentzia larriaren terminoetan).

Hobekuntza egon da, nahiz eta hain agerikoa izan ez, lehenengo etxebizitza ezin erosi izateari dagokionez: 2019an % 6,9 dira eragindakoak, eta 2015ean % 7,3 (% 4,9 eta % 5,5, intzidentzia larrian).

**Azkenik, nabarmen murriztu da oporrak ordaindu ezin ditzaketen etxeetako biztanleen proportzioa**

Gabezia ekonomikoen dinamikarekin lotutako eremu batean, oso modu deigarrian gutxitu da oporrak ordaindu ezin ditzaketen etxeetako biztanleen proportzioa: % 21,6 ziren 2015ean, eta % 12,5 dira 2019an.

**Enpleguarekiko kezka txikitu egin bada ere, bizi-baldintzen inguruko arazoak lehentasunezkotzat jotzeko joerak gora egin du.**

Enpleguarekin zerikusia daukaten arazoak asko murriztu dira; hala ere, bizi-baldintzen inguruko arazoek pisu erlatiboa irabazi dute familiek konpondu beharreko lehentasunezko arazoen artean. 29. taulak erakusten duenez, 2019an, bizi-baldintzetan dauden gabeziak (hutsuneak etxebizitzan, gabezia ekonomikoak, bizitza independentea sendotzeko zailtasunak eta beste problematika batzuk, oporrak ordaindu ahal izatea, adibidez) lehentasunezko arazotzat jo dituzte EAEko biztanleen % 17,4 biltzen dituzten etxeetan, enplegu-arazoei dagokien % 18tik hurbil. Aipatutako % 17,4 hori 2015eko % 14,8 baino 2,6 puntu gorago dago.

*Enpleguaren egoera eta bizi-baldintza orokorrak hobetu izanaren ondorioz, seme-alaben etorkizunarekiko kezka gutxitu da*

Enpleguaren, etxebizitzaren eta diru-sarreren egoeran eta bizitza independentea edukitzeko prozesuetan ikusi diren hobekuntzek seme-alaben etorkizunarekiko kezka nabarmen murriztea ekarri dute. 32. taulak jasotzen duen bezala, seme-alaben etorkizunarekiko ziurgabetasuna 2015ean biztanleen % 26,7 biltzen zituzten etxeei eragitetik 2019an biztanleen % 15,3 hartzen dituzten etxeei eragitera pasa da.

**32. taula**

**Seme-alaben etorkizunarekin lotutako arazoak dauzkaten familia-etxe/familietako biztanleak. EAE. 2015 eta 2019. Intzidentzia-tasak eta intzidentzia larria, guztizko biztanlerian (%-tan)**

| AINTZAT HARTUTAKO ADIERAZLEAK | Intzidentzia 2015 | | Intzidentzia 2019 | | 2015-2019 aldiko aldakuntza, portzentaje-puntutan | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Erabatekoa | Larria | Erabatekoa | Larria | Erabatekoa | Larria |
| SEME-ALABEN ETORKIZUNA | | | | | | |
| Seme-alaben etorkizunaren inguruan ziurgabetasuna sentitzea | 26,7 | 19,4 | 15,3 | 10,9 | -11,4 | -8,5 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

29. taulak erakusten duenez, gogorarazi egin behar da 2015ean oso kontu garrantzitsua zela EAEko familia-etxe eta familientzat. Urte hartan, kezka nagusi hori zuten etxeetako biztanleen % 13,8ri eragiten zien. 2019an, proportzioa asko murriztu da, eta % 6,6koa da.

*Aitzitik, gaixotasunari, desgaitasunari edo mendekotasunari lotutako problematikak gora egin du*

2015etik 2019ra, gaixotasunaren, desgaitasunaren edo mendekotasunaren inguruko kontuekin loturikoa da goranzko joera duen arazo nagusia. 33. taulan jasotzen diren datuek islatzen dutenaren arabera, etxeko kide batek gaixotasun kroniko bat edukitzeari dagokiona kenduta, aintzat hartutako arazoen inpaktuak gora egin du, bai intzidentzia orokorrean, bai, kasu ia guztietan, arazoaren modu larrietan.

**33. taula**

**Gaixotasun-, desgaitasun- eta mendekotasun-arazoak dauzkaten familia-etxe/familietako biztanleak. EAE. 2015 eta 2019. Arazo mota bakoitzaren intzidentzia-tasak eta intzidentzia larria, guztizko biztanlerian (%-tan)**

| AINTZAT HARTUTAKO ADIERAZLEAK | Intzidentzia 2015 | | Intzidentzia 2019 | | 2015-2019 aldiko aldakuntza, portzentaje-puntutan | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Erabatekoa | Larria | Erabatekoa | Larria | Erabatekoa | Larria |
| GAIXOTASUNA/DESGAITASUNA/MENDEKOTASUNA | | | | | | |
| Etxeko kideren batek gaixotasun terminala edukitzea | 0,2 | 0,2 | 0,5 | 0,3 | 0,3 | 0,2 |
| Beste senide batek gaixotasun terminala edukitzea | 0,5 | 0,5 | 0,8 | 0,5 | 0,3 | 0,1 |
| Etxeko kideren batek gaixotasun kroniko larri bat edukitzea | 10,5 | 8,4 | 9,7 | 6,9 | -0,8 | -1,4 |
| Beste senide batek gaixotasun kroniko larri bat edukitzea | 5,3 | 3,8 | 6,8 | 4 | 1,5 | 0,2 |
| Etxeko kideren batek erabateko baliaezintasuna edo baliaezintasun iraunkorra edukitzea | 4,1 | 3,4 | 6,1 | 4,1 | 2,1 | 0,8 |
| Etxeko kideren batek desgaitasunen bat edukitzea | 8,8 | 6,5 | 10,9 | 6,6 | 2,1 | 0,2 |
| Etxeko kideren batek alkoholismoa edo toxikomania edukitzea | 0,3 | 0,1 | 0,4 | 0,3 | 0,1 | 0,2 |
| Etxeko kideren batek mendekotasun psikologiko larriren bat edukitzea (ludopatia, Internet, bideo-jokoak eta abar) | 0,4 | 0,3 | 0,4 | 0,2 | 0 | -0,1 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Etxeko kideren batek desgaitasunen bat edukitzearen inguruko adierazleak eduki du bilakaerarik txarrena. Arazo horren intzidentzia igo egin da: 2015ean, eragindako etxeetan bizi ziren biztanleen % 8,8, eta 2019an % 10,9. Hala ere, intzidentzia larria maila egonkorretan dago: % 6,5-6,6.

Aurreko egoerarekin lotuta, etxeko kideren batek erabateko baliaezintasuna edo baliaezintasun iraunkorra edukitzearen inguruko intzidentzia % 4,1etik % 6,1era igo da 2015-2019 aldian (% 3,4tik % 4,1era, intzidentzia larrian).

Egoerak 2015eko % 8,4tik hobera egin badu ere, adierazi beharra dago intzidentzia larri altuenak etxeko kideren baten gaixotasun kroniko larriari lotuta jarraitzen duela bloke honetan (biztanleen % 6,9 eragindako etxeetan bizi dira). Erabateko intzidentzia ere gutxitu egin da (% 10,5etik % 9,7ra).

Kontrara, etxean bizi ez diren senideen gaixotasun kroniko larriaren intzidentziak % 5,3tik % 6,8ra egin du gora 2015-2019 aldian. Modu larrienen intzidentziak, ordea, egonkortasun handia dauka (% 3,8tik % 4,0ra, aintzat hartutako aldian).

Dimentsio horretan, gaixotasun terminalaren inpaktua oso murritza da, baina 2015-2019 aldian gora egin du: % 0,2tik % 0,5era, etxeko kideren batek gaixotasun terminala edukitzeari dagokionez, eta % 0,5etik % 0,8ra, etxean bizi ez den senideren batek gaixotasun terminala edukitzeari dagokionez.

Mendekotasun psikologikoko arazoek, bestalde, maila egonkorrak dauzkate, % 0,4ko intzidentziarekin.

Oro har, 29. taulan ikus daitekeenez, gaixotasunaren, desgaitasunaren eta mendekotasunaren inguruko gabeziak etxeko lehentasunezko arazoa dira biztanleen % 16,4rentzat 2019an, 2015eko % 14,8ren gainetik.

*Beste arazo batzuk*

29. taulan, bestalde, gainerako arazoek (zainketekin, familia-egoerarekin edo diskriminazio-moduekin zerikusia dutenek) biztanlerian inpaktu txikiagoa dutela ikus dezakegu. Multzoan hartuta, lehentasunezko arazo gisa, 2019an biztanleen % 6,3ri eragiten diete, 2015eko % 4,7tik gora (% 5,1 eta % 4,7, FFEIn 2019tik aurrera balioesten hasi diren diskriminazio- edo bazterketa-arazoak kontuan hartzen ez badira).

Egoera mota horietan, 34. taulak esaten digu arazo nagusiak zerikusia duela adineko senideak etxetik kanpo artatzeko gainkargarekin: biztanleen intzidentzia % 4,9koa da 2019an (% 2,6koa, intzidentzia larrian). Zifrek, baina, beheranzko lerroa erakusten dute 2015ari dagokionez, ehunekoak % 6 eta % 4 izan baitziren, hurrenez hurren.

Zainketen eremuan, 2019an, intzidentziak biztanleen % 1,8-2ri eragiten die (% 0,9-1, larritasunean), adineko senideak etxean artatzeagatik lan-gainkarga edukitzeari dagokionez eta adineko gurasoak etxetik kanpo lan-arazoengatik ezin artatzeari dagokionez. 2015arekin alderatuz gero, zifra horiek pixka bat murriztu edo egonkortu dira (% 2,6 eta % 1,8, hurrenez hurren).

Intzidentzia askoz ere murritzagoa da adingabeko seme-alabak zaintzeari dagokionez: % 1,2koa, 2015eko % 1,9rekin alderatuta beheranzko joera argian. Kontratatzeko zaintzaile egokiak aurkitzeko zailtasunen intzidentziaren antzekoa da hori, % 1,2koa baita. Bada, zaintzaile egokiak aurkitzeko zailtasunen indizeak gora egin du 2015eko % 1,0rekin alderatuta.

Dimentsio sozialagoetan edo harremanekin zerikusia dutenetan, 2019an biztanleen % 3,8 bizi dira etxeko lanak etxeko kideen artean behar bezala banatzen ez dituztela dioten etxeetan. 2015etik 2019ra, atzera egin da, urte hartan % 2 zirelako (% 0,8tik % 1,1era, arazoaren intzidentzia larrian).

Biztanleen % 1,9 moldatzeko arazoak edo eskola-porrota aipatu dituzten etxeetan bizi dira, 2015eko %1,1etik gora. Igoera-lerroa, halaber, intzidentzia larrian ere ikus daiteke (% 0,8tik % 1,3ra).

Azkenik, lanean sexuagatiko edo adinagatiko diskriminazio-arazoak dauzkatela aipatu duten etxeetan, 2019an, bizi dira guztizko biztanleen % 1,4, eta proportzioa % 1,6koa da bazterketa- edo bullying-arazoei dagokienez (% 0,7 eta % 1,5, hurrenez hurren, arazo larrietan).

**34. taula**

**Arazo sozialak edo zainketen arloko arazoak dauzkaten familia-etxe/familietako biztanleak. EAE. 2015 eta 2019. Arazo mota bakoitzaren intzidentzia-tasak eta intzidentzia larria, guztizko biztanlerian (%-tan)**

| AINTZAT HARTUTAKO ADIERAZLEAK | Intzidentzia 2015 | | Intzidentzia 2019 | | 2015-2019 aldiko aldakuntza, portzentaje-puntutan | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Erabatekoa | Larria | Erabatekoa | Larria | Erabatekoa | Larria |
| PERTSONEN ZAINKETA | | | | | | |
| Seme-alaba adingabeak zaintzea | 1,9 | 1,1 | 1,2 | 0,9 | -0,8 | -0,2 |
| Haur-eskolan adingabeko seme-alabentzako tokirik ez edukitzea | 0,2 | 0,1 | 0,1 | 0,0 | -0,1 | -0,1 |
| Adinekoak etxean artatzeagatik lan-gainkarga edukitzea | 2,6 | 1,7 | 1,8 | 0,9 | -0,8 | -0,8 |
| Adinekoak etxetik kanpo artatzeagatik lan-gainkarga edukitzea | 6,0 | 4,0 | 4,9 | 2,6 | -1,1 | -1,4 |
| Adineko gurasoak etxean artatu ezin izatea, lanagatik | 0,6 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | -0,6 | -0,2 |
| Adineko gurasoak etxetik kanpo artatu ezin izatea, lanagatik | 1,8 | 1,3 | 2,0 | 1,0 | 0,2 | -0,3 |
| Adineko gurasoak etxean artatu ezin izatea, toki faltagatik | 1,3 | 0,8 | 0,6 | 0,6 | -0,7 | -0,2 |
| Egoitzetan tokirik ez aurkitzea | 0,6 | 0,4 | 0,6 | 0,4 | 0,0 | 0,0 |
| Kontratatzeko zaintzaile egokirik ez aurkitzea | 1,0 | 0,8 | 1,2 | 0,8 | 0,1 | 0,0 |
| EGOERA FAMILIAR EDO SOZIALA | | | | | | |
| Seme-alabarik eduki ezin izatea (arrazoi biologikoengatik) | 0,1 | 0,1 | 0,4 | 0,0 | 0,2 | 0,0 |
| Seme-alabak ondo ez moldatzea edo eskola-porrota | 1,1 | 0,8 | 1,9 | 1,3 | 0,7 | 0,5 |
| Ikasketak goiz uztea | 0,9 | 0,8 | 0,3 | 0,3 | -0,6 | -0,5 |
| Bikote-arazoak edukitzea (tirabira handiak) | 0,2 | 0,1 | 0,5 | 0,4 | 0,3 | 0,3 |
| Dibortziatu, banandu edo harremana haustea | 2,3 | 0,8 | 0,9 | 0,4 | -1,4 | -0,5 |
| Laster dibortziatu edo banantzea | 0,2 | 0,1 | 0,3 | 0,1 | 0,1 | 0,1 |
| Etxeko lanak etxeko kideen artean behar bezala ez banatzea | 2,0 | 0,8 | 3,8 | 1,1 | 1,8 | 0,3 |
| Autoritatea behar ez bezala banatzea (menderakuntza, abusua) | 0,3 | 0,1 | 0,5 | 0,3 | 0,2 | 0,2 |
| Seme-alabekin harreman txarra edukitzea | 0,3 | 0,2 | 0,3 | 0,1 | 0,0 | -0,1 |
| Seme-alabei tratu txarrak ematea | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Seme-alabek familiako beste kide batzuei tratu txarrak ematea | 0,1 | 0,1 | 0,2 | 0,1 | 0,0 | 0,0 |
| Bikote barruan tratu txarrak ematea | 0,1 | 0,1 | 0,2 | 0,2 | 0,1 | 0,1 |
| DISKRIMINAZIOA/BAZTERKETA | | | | | | |
| Arraza edo jatorri etnikoagatiko diskriminazioa | | | 0,6 | 0,4 | 0,6 | 0,4 |
| Nazionalitateagatiko diskriminazioa | | | 0,7 | 0,3 | 0,7 | 0,3 |
| Erlijioagatiko diskriminazioa | | | 0,4 | 0,1 | 0,4 | 0,1 |
| Sexuagatiko edo adinagatiko diskriminazioa lanean | | | 1,4 | 0,7 | 1,4 | 0,7 |
| Jatorrizko herrialdeagatiko, arrazagatiko eta/edo erlijioagatiko diskriminazioa lanean | | | 0,5 | 0,2 | 0,5 | 0,2 |
| Bazterketa- edo bullying-arazoak | | | 1,6 | 1,5 | 1,6 | 1,5 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

### 3.2.2. Gizarte-arazoen lehentasunezko intzidentzian dauden desberdintasunak, familia-etxe edo familia motaren arabera

Moten araberako analisia egitea errazteko, FFEIk aintzat hartzen dituen gizarte-arazoen inpaktu konparatua erakusten dute 35.A eta 35.B taulek, familia-etxe edo familia motaren arabera, kapitulu honetan erabilitako tipologia sintetikoarekin bat ordenatu eta multzokatuta.

Dagoeneko aipatu dugun moduan, 2019an biztanleen % 64,8 FFEIn aintzat hartutako arazoren bat aipatu duten familia-etxe edo familietan bizi dira. Ikusitako problematika nagusiek langabeziarekin eta enplegu prekarioarekin (% 10,7) edo enpleguaren kalitate baxuarekin (% 7,3) daukate zerikusia. Oro har, guztizko biztanleriaren % 18 bizi dira problematika hori aipatu duten etxeetan. Beste arazo garrantzitsu bat, biztanleen % 6,6 hartzen dituzten etxeek lehentasunezko kontu gisa aipatu dutena, seme-alaben etorkizunaren ingurukoa da, zati batean aurreko problematikarekin lot daitekeen kontua hori.

Bigarren problematika garrantzitsuak, zeina EAEko zahartze-prozesuak azal baitezake, gaixotasunari edo desgaitasunari egiten dio erreferentzia (biztanleen % 16,4 errealitate hori aipatzen duten etxeetan bizi dira).

Gabezia ekonomikoak ere maiz aipatu dira, baina beren intzidentzia beherago dago, intzidentzia nagusiaren terminoetan: biztanleen % 8,9 bizi dira gabezia ekonomikoak lehentasunekotzat jo dituzten familia-etxe eta familietan. Horri, bizitza independentea sendotzeko zailtasunak aipatu dituzten % 3,4 eta ongizatea lortzeko (oporrak edukitzeko) gabezia ekonomikoak adierazi dituzten % 0,7 gaineratu ahal diogu.

Gainerako alderdiek askoz ere lehentasunezko inpaktu txikiagoa dute etxeko oinarrizko problematika gisara: % 4,5ek etxebizitzaren hutsuneak aipatu dituzte; % 3,8k pertsonen zainketaren inguruko arazoak, eta % 1,3k familiaren egoerarekin eta bizikidetzarekin lotutako zailtasunak.

Nolanahi ere, moten araberako analisiak askoz ere informazio xehe eta konplexuagoa eskaintzen digu, eta familia eta familia-etxeen artean alde handiak daudela ikusarazten. Aztertutako askotariko arazoen lehentasunezko intzidentziari begiratuta, honako puntu hauetan laburbil daitezke 2019ko desberdintasun handienak, familia-etxe eta familia motaren arabera:

**35.A taula**

**Familia-etxe/Familietako biztanleak: Arazo mota nagusia (lehentasunezko arazoa), familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2019**

**(Guztizko biztanleriaren %a, familia-etxe edo familia mota bakoitzean)**

| Arazo nagusia | GUZTIRA | PERTSONA BAKARREKOA | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | NUKLEORIK GABEKO FAMILIARRA | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | Guraso izan Aurreko ezkontzazkoa | Guraso izan ondoko ezkontzazkoa | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | GURASO BAKARREKOA | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | NUKLEO ANITZEKOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Langabezia, enplegu prekarioa | 10,7 | 4,0 | 17,4 | 13,5 | 6,7 | 16,4 | 3,2 | 12,8 | 11,1 | 19,7 | 15,5 | 12,1 | 20,9 | 10,0 |
| Enpleguaren kalitate baxua | 7,3 | 3,5 | 1,7 | 1,6 | 6,1 | 16,2 | 2,4 | 8,7 | 10,0 | 3,8 | 6,7 | 9,4 | 2,4 | 10,2 |
| **ENPLEGUA** | **18,0** | **7,5** | **19,1** | **15,1** | **12,8** | **32,6** | **5,6** | **21,6** | **21,1** | **23,5** | **22,2** | **21,5** | **23,3** | **20,2** |
| Etxebizitzaren hutsuneak | 4,5 | 5,3 | 9,7 | 2,8 | 4,4 | 4,8 | 4,3 | 4,8 | 4,8 | 5,2 | 2,4 | 2,4 | 2,3 | 3,6 |
| Gabezia ekonomikoak | 8,9 | 13,5 | 31,3 | 5,0 | 7,3 | 6,4 | 7,6 | 7,0 | 8,3 | 1,9 | 15,4 | 22,4 | 4,1 | 8,2 |
| Bizitza independentea | 3,4 | 1,2 | 3,1 | 5,7 | 2,1 | 5,7 | 0,8 | 3,6 | 2,9 | 6,3 | 4,9 | 3,9 | 6,5 | 7,9 |
| Oporrak edukitzea | 0,7 | 0,8 | 0,0 | 1,6 | 0,3 | 0,0 | 0,5 | 0,4 | 0,2 | 1,3 | 1,8 | 2,0 | 1,6 | 1,7 |
| **BIZI-BALDINTZAK** | **17,4** | **20,7** | **44,0** | **15,2** | **14,2** | **16,8** | **13,2** | **15,9** | **16,2** | **14,7** | **24,5** | **30,7** | **14,5** | **21,4** |
| **GAIXOTASUNA/DESGAITASUNA** | **16,4** | **18,8** | **13,5** | **44,9** | **19,7** | **5,4** | **24,9** | **13,3** | **11,4** | **20,9** | **18,2** | **16,7** | **20,6** | **19,7** |
| Pertsonen zainketa | 3,8 | 2,1 | 1,4 | 0,2 | 4,6 | 1,6 | 5,7 | 4,2 | 4,2 | 4,4 | 4,6 | 2,5 | 7,9 | 0,0 |
| Egoera familiar edo soziala | 1,3 | 0,6 | 1,9 | 0,0 | 0,8 | 0,8 | 0,8 | 1,5 | 1,7 | 0,8 | 3,2 | 5,2 | 0,0 | 0,0 |
| Diskriminazioa/bazterketa | 1,2 | 0,1 | 1,3 | 0,0 | 0,4 | 1,5 | 0,0 | 1,6 | 2,0 | 0,0 | 2,1 | 3,0 | 0,5 | 1,6 |
| **SOZIALAK ETA ZAINKETEN INGURUKOAK** | **6,3** | **2,7** | **4,6** | **0,2** | **5,8** | **3,9** | **6,5** | **7,3** | **7,8** | **5,2** | **9,9** | **10,7** | **8,5** | **1,6** |
| **SEME-ALABEN ETORKIZUNA** | **6,6** | **2,4** | **3,4** | **3,6** | **2,9** | **0,7** | **3,7** | **9,2** | **9,6** | **7,3** | **7,6** | **7,3** | **8,1** | **4,8** |
| **ARAZOREN BAT** | **64,8** | **52,2** | **84,5** | **79,0** | **55,4** | **59,5** | **53,9** | **67,2** | **66,1** | **71,5** | **82,4** | **86,9** | **75,0** | **67,7** |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

## 35.B taula

### Familia-etxe/Familietako biztanleak: Arazo mota nagusia (lehentasunezko arazoa), familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015

### (Guztizko biztanleriaren %a, familia-etxe edo familia mota bakoitzean)

| Arazo nagusia | GUZTIRA | PERTSONA BAKARREKOA | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | NUKLEORIK GABEKO FAMILIARRA | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | Guraso izan Aurreko ezkontzakoa | Guraso izan ondoko ezkontzakoa | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | GURASO BAKARREKOA | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | NUKLEO ANITZEKOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Langabezia, enplegu prekarioa | 18,8 | 9,9 | 23,0 | 14,9 | 11,0 | 29,1 | 5,7 | 21,1 | 20,4 | 24,1 | 26,3 | 26,2 | 26,4 | 31,1 |
| Enpleguaren kalitate baxua | 6,2 | 4,5 | 4,3 | 1,0 | 4,4 | 13,8 | 1,6 | 7,9 | 8,7 | 4,7 | 4,7 | 6,1 | 3,0 | 0,8 |
| **ENPLEGUA** | **25,0** | **14,4** | **27,3** | **16,0** | **15,4** | **42,9** | **7,3** | **29,0** | **29,1** | **28,8** | **31,0** | **32,3** | **29,4** | **31,9** |
| Etxebizitzaren hutsuneak | 3,8 | 4,6 | 0,0 | 10,0 | 3,4 | 3,9 | 3,2 | 3,7 | 4,0 | 2,5 | 3,6 | 2,6 | 4,8 | 3,5 |
| Gabezia ekonomikoak | 8,2 | 13,9 | 19,9 | 16,1 | 5,0 | 3,0 | 5,5 | 6,4 | 7,6 | 1,0 | 15,2 | 22,6 | 6,4 | 8,3 |
| Bizitza independentea | 2,0 | 1,0 | 4,0 | 0,0 | 1,1 | 1,7 | 0,9 | 2,7 | 1,5 | 7,9 | 0,8 | 0,3 | 1,4 | 4,3 |
| Oporrak edukitzea | 0,8 | 1,3 | 2,6 | 3,6 | 1,0 | 1,9 | 0,7 | 0,5 | 0,4 | 1,2 | 0,8 | 1,3 | 0,2 | 0,0 |
| **BIZI-BALDINTZAK** | **14,8** | **20,9** | **26,5** | **29,7** | **10,4** | **10,5** | **10,4** | **13,4** | **13,5** | **12,6** | **20,4** | **26,8** | **12,7** | **16,2** |
| **GAIXOTASUNA/DESGAITASUNA** | **14,8** | **17,8** | **25,4** | **28,1** | **25,5** | **12,6** | **29,3** | **8,9** | **7,3** | **15,9** | **16,9** | **11,6** | **23,3** | **22,6** |
| Pertsonen zainketa | 3,4 | 1,6 | 0,0 | 2,7 | 3,0 | 2,3 | 3,3 | 4,3 | 4,2 | 4,8 | 1,7 | 1,2 | 2,4 | 1,5 |
| Egoera familiar edo soziala | 1,4 | 2,4 | 0,0 | 0,0 | 1,3 | 2,2 | 1,1 | 0,9 | 1,2 | 0,0 | 3,3 | 4,5 | 1,9 | 0,0 |
| Diskriminazioa/bazterketa | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **SOZIALAK ETA ZAINKETEN INGURUKOAK** | **4,7** | **4,0** | **0,0** | **2,7** | **4,4** | **4,4** | **4,3** | **5,3** | **5,4** | **4,8** | **5,1** | **5,7** | **4,3** | **1,5** |
| **SEME-ALABEN ETORKIZUNA** | **13,8** | **3,4** | **3,0** | **0,0** | **5,3** | **0,0** | **6,9** | **19,6** | **20,5** | **15,8** | **12,5** | **14,7** | **9,9** | **13,3** |
| **ARAZOREN BAT** | **73,1** | **60,5** | **82,1** | **76,4** | **61,0** | **70,5** | **58,3** | **76,2** | **75,8** | **77,9** | **85,9** | **91,0** | **79,7** | **85,5** |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

*Langabeziarekin eta enpleguarekin zerikusia daukaten arazoak lehentasunezkoak dira guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan, gurasoen askotariko etxe motetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan*

29. taulako datuek erakusten dutenez, langabeziarekin, enpleguaren kalitate baxuarekin eta enplegu prekarioarekin lotutako arazoen garrantziak behera egin du, oro har, 2015-2019 aldian. Hala ere, 2019an, problematika horiek oso intzidentzia esanguratsua izaten jarraitzen dute familia-etxe eta familia mota batzuetan.

Hala, biztanleen % 21,1en eta % 23,5en arteko zifrekin, lanari eta enpleguari lotutako problematika horiek lehentasunezko arazoa dira gurasoen etxeetan (mendeko seme-alabak nahiz mendekoak ez diren seme-alabak eduki gorabehera) eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan. Egoera berean, enpleguari lotutako arazoen garrantziagatik mugatuta, proportzioa % 32,6ko maximora iristen da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan.

2015-2019 aldian lan-baldintzak eta enplegu-mailak hobera egin izanak familia mota horiek ezaugarritzen ditu. Hala, 2015-2019 aldian, lanari eta enpleguari lotutako arazoen lehentasunezko intzidentzia % 42,9tik % 32,6ra jaitsi da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (-10,3 portzentaje-puntu), % 29,1etik % 21,1era mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (-8,0 portzentaje-puntu), % 28,8tik % 23,5era mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (-5,2 portzentaje-puntu) eta % 29,4tik % 23,3ra mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan (-6,1 portzentaje-puntu).

Hala ere, familia mota horietako batzuetan, nabarmentzekoa da 2019an lanaren kalitatearen inguruko alderdiei ematen zaien lehentasuna. Horrela, enpleguaren kalitate baxuari lotutako lehentasunezko intzidentzia % 13,8tik % 16,2ra igo da 2015-2019 aldian, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan. Igoera % 8,7tik % 10,0rakoa izan da mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan.

Lehentasunezko arazoa izan ez arren, biztanleen % 19,1en eta % 21,5en artean lanari eta enpleguari lotutako kontuekin lotzen dute 2019an beren lehentasunezko arazoa senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan eta nukleo anitzeko etxeetan; hala, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan ikusitako ehunekoak bakarrik gainditzen ditu ehuneko horiek. Aipatutako hiru familia-etxe edo familia mota horietan, nolanahi ere, beheranzko joera dago 2015-2019 aldian intzidentzia murriztu duten arazoetan, lehentasunezko intzidentziak -8,2 eta -11,7 portzentaje-puntu artean egin baititu behera.

Familia mota horien barruan, langabeziarekin edo enplegu prekarioarekin lotutako arazoak lehentasunezkotzat jo dituzten pertsona anitzeko etxeetan dauden biztanleen proportzioa nabarmentzen da. Ikusitako % 17,4 hori 2019ko maila altuenetako batzuetara iristen da, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeen % 16,4rekin, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeen % 19,7rekin eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeen % 20,9rekin batera. Aitzitik, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan eta nukleo anitzekoetan, konparazioz, altua da lanaren kalitate baxuari lotutako lehentasunezko arazoen zatia, lehentasunezko intzidentzia % 9,4koa eta % 10,2koa baita, hurrenez hurren. Maila horiek mendeko

seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeen % 10,0tik hurbil daude, eta guraso izan aurreko ezkontzazko etxeen % 16,2tik bakarrik urruntzen dira.

*Bizi-baldintzekin zerikusia daukaten arazoek lehentasunezko intzidentzia handia daukate pertsona bakarreko etxeetan, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, nukleo anitzeko etxeetan eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan*

Bizi-baldintzekin lotuta dauden arazoak (hutsuneak etxebizitzan, gabezia ekonomikoak, bizitza independentea edukitzeko zailtasunak eta oporrak ordaintzeko zailtasunak) lehentasunezko eremua dira familia-etxe eta familia mota batzuetan.

Familia mota horietako bitan, pertsona bakarrekoetan eta nukleo anitzekoetan, problematika horien lehentasunezko intzidentzia % 20,7-21,4ko mailetan dago, eta beste problematika batzuekin lehiatzen da paper nagusian (bi kasuetan, gaixotasun-/desgaitasun-/mendekotasun-arazoekin, eta, nukleo anitzeko etxeetan, baita lanarekin eta enpleguarekin zerikusia daukaten arazoekin ere).

Bizi-baldintzei lotutako lehentasunezko problematikek askoz ere paper garrantzitsuagoa daukate beste bi familia mota hauetan: senideak ez diren pertsona anitzekoetan, lehentasunezko intzidentzia % 44koa baita, eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarrekoetan, lehentasunezko intzidentzia % 307koa baita.

Gabezia ekonomikoak, zeinak, oro har, diru-sarreren gabeziari lotuta baitaude, erabakigarriak dira adierazitako talde gehienetan; bereziki, senideak ez diren pertsona anitzekoetan (lehentasunezko intzidentzia % 31,3koa da) eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarrekoetan (% 22,4). Lehentasunezko intzidentzia % 13,5ekoa da oraindik ere pertsona bakarreko etxeetan, eta % 10etik behera dago nukleo anitzekoetan bakarrik (% 8,2). Azken talde horretan, bizitza independentea edukitzeko arazoak zifra horretara iristen dira ia (% 7,9), eta, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan eta senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, ehunekoak % 3,9 eta % 3,1 dira, hurrenez hurren.

Etxebizitzari lotutako arazoek, bestalde, EAEko adierazle orokorra baino lehentasunezko intzidentzia zertxobait altuagoa dute pertsona bakarreko etxeetan (% 5,3). Familia moten artean, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeei dagokie zifrarik altuena, % 9,7rekin.

Epe ertainera begirako ikuspegiarekin, bizi-baldintzen inguruko arazoen lehentasunezko intzidentzia egonkor dago pertsona bakarreko etxeetan (% 20,9 2015ean, eta % 20,7 2019an), baina igoera handia izan du gainerako familia-etxe eta familia motetan. Igoera hori 3,9 eta 5,2 portzentaje-puntukoa izan da mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan (% 26,8tik % 30,7ra) eta nukleo anitzeko etxeetan (% 16,2tik % 21,4ra). 2015-2019 aldian, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeek izan dute igoerarik handiena, bizi-baldintzen inguruko arazoen lehentasunezko intzidentziak % 26,5etik % 44ra egin baitu gora.

Mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan eta nukleo anitzeko etxeetan, bizitza independentea edukitzeko prozesuekin edo oporrak edukitzearekin lotzen dira igoerak, bizitza independentea edukitzeko arazoen lehentasunezko intzidentziak 3,6 portzentaje-puntu egin baititu gora

(oporrak edukitzeko ezintasunari loturiko 0,7 eta 1,7 portzentaje-puntu gaineratzen zaizkie horiei). Senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, berriz, igoera gabezia ekonomikoekin edo etxebizitzako hutsuneekin lotzen da. Hala, etxe mota horietan, etxebizitzako hutsuneen eta gabezia ekonomikoen lehentasunezko intzidentziak 21,1 portzentaje-puntu egin ditu gora (9,7 eta 11,4 portzentaje-puntu, hurrenez hurren).

Bizi-baldintzen inguruko arazoek gehien kaltetutako etxeak bazter utzita, bizitza independentea edukitzeko prozesuei egotzitako lehentasunezko intzidentzia handia da nukleorik gabeko etxeetan (% 5,7), guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (% 5,7) eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten etxeetan (% 6,3 seme-alabak dauzkaten etxe nuklearretan, eta % 6,5 guraso bakarreko etxeetan). Mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten etxe nuklearrak kenduta, non problematika horren inpaktuak behera egin duen, beste bi familia motetan 4,0 eta 5,7 portzentaje-puntuko igoera egon da bizitza independentea edukitzeko arazoen lehentasunezko intzidentzian, 2015-2019 aldian.

*Gaixotasunarekin, desgaitasunarekin edo mendekotasunarekin zerikusia daukaten arazoak erabakigarriak dira nukleorik gabeko etxe familiarretan eta guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan*

2019an, gaixotasunarekin, desgaitasunarekin edo mendekotasunarekin zerikusia daukaten arazoak lehentasunezko arazoa dira nukleorik gabeko etxe familiarretan, non lehentasunezko intzidentzia % 44,9koa baita. Intzidentzia askoz txikiagoa izan arren, % 24,9rekin, lehentasunezko arazoa da hori guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan ere.

Lehentasunezko kezka-eremua eratzen ez badute ere, gaixotasun- eta desgaitasun-arazoek ageriko garrantzia dute, lehentasunezko intzidentzia % 16,7ren eta % 20,9ren artekoa baita pertsona bakarreko etxeetan, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten etxe nuklearretan (bi guraso zein bakarra egon), mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan eta nukleo anitzeko etxeetan.

Familia mota kaltetuenen artean, gaixotasun- eta desgaitasun-arazoen lehentasunezko dimentsioak goranzko joera izan du 2015-2019 aldian nukleorik gabeko etxe familiarretan (% 28,1etik % 44,9ra), mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 15,9tik % 20,9ra) eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan (% 11,6tik % 16,7ra). Igoera askoz txikiagoa izan da pertsona bakarreko etxeetan (% 17,8tik % 18,8ra).

*Zainketekin, egoera sozial eta familiarrarekin eta diskriminazio-moduekin zerikusia daukaten arazoak EAEko maila orokorretatik gora daude, argi eta garbi, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan eta, oro har, guraso bakarreko familietan*

Zainketekin, egoera sozial eta familiarrarekin eta diskriminazio-moduekin zerikusia daukaten arazoen lehentasunezko intzidentzia beste arazo batzuena baino txikiagoa da beti. Hala ere, problematika horiei lotutako lehentasunezko intzidentzia EAEko maila orokorretik gora dago, argi eta garbi, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 7,8) eta guraso bakarreko familietan, seme-alabak mendekoak izan ala ez (% 10,7 eta % 8,5). Halaber, guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan ere batez besteko mailak zertxobait gainditzen dira (% 6,5).

Adierazitako lau familia motetan, problematika horiek gora egin dute 2015etik (% 4,3tik % 6,5era guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan; % 5,4tik % 7,8ra mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen

etxeetan; % 5,7tik % 10,7ra mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan, eta % 4,3tik % 8,5era mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan).

2015etik 2019ra bitartean, igoera-lerroa pertsonen zainketaren inguruko arazoekin lotzen da guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan (% 3,3tik % 5,7ra eta % 2,4tik % 7,9ra, hurrenez hurren). Funtsean, adinekoak zaintzeko arazoak dira.

Mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan, berriz, familia-egoeran dauden arazoekin lotzen da igoera-lerroa (% 4,5etik % 5,2ra); gehienbat, bizikidetza-arazoak dira. Era berean, diskriminazio- edo bazterketa-arazoak aintzat hartzen hasteak eragina izan du igoera horretan (familia mota horretan, biztanleen % 3ri eragiten diete, eta, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, % 2ri).

*Seme-alaben etorkizunarekiko kezka egonkor mantendu da mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan*

Seme-alabak dauzkaten etxe nuklearretan eta nukleo anitzekoetan, 2015-2019 aldian enpleguaren eta bizi-baldintzen egoera hobetu egin denez, seme-alaben etorkizunarekiko lehentasunezko kezka murriztu egin da; oro har, oso modu esanguratsuan (-7,4 eta -10,9 portzentaje-puntu artean).

Salbuespen erlatibo bakarrak mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeei eragiten die. Kasu horretan, lehentasunezko intzidentziak 2015-2019 aldian izan duen beheranzko joera presente dago, baina askoz ere mugatuagoa da: 2015eko % 9,9tik 2019ko % 8,1era. Alabaina, % 8,1 horrek, 2019an, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeen % 9,6 bakarrik dauka gainetik.

*Pertsona bakarreko etxeek eta ezkontzazko etxeek (seme-alabarik gabeko nuklearrek) daukate lehentasunezko arazorik gabeko etxeen proportziorik handiena*

FFEIn aztertzen diren gizarte-arazorik gabeko etxeetan bizi diren biztanleen proportzioak gora egin du 2015-2019 aldian (% 26,9tik % 35,2ra), eta pertsona bakarreko etxeak (% 47,8), guraso izan ondoko ezkontzazko etxeak (% 46,1) eta guraso izan aurreko ezkontzazko etxeak (% 40,5) dira 2019an arazorik ez duten familien proportzio handienak biltzen dituztenak.

Mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeek (% 33,9) eta nukleo anitzeko etxeek (% 32,3) EAEko adierazle orokorretik pixka bat behera egiten duten proportzioa daukate dagoeneko. Proportzioa % 28,5ekoa da mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, % 25ekoa mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan, eta % 21ekoa nukleorik gabeko etxe familiarretan.

Arazorik gabeko etxeetan bizi diren biztanleen proportzioa % 15,5ekoa da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, eta % 13,1ekoa mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan.

2015etik 2019ra bitartean, familia eta familia-etxe mota guztietan igo da arazorik gabeko etxeetan bizi direnen pisua, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan eta nukleorik gabeko etxe familiarretan izan ezik.

# 4. Familiek eta familia-etxeek parez pare dauzkaten arreta-kargak

FFEIk Euskadiko familiek eta familia-etxeek parez pare dauzkaten arreta-kargak neurtzeko zenbait adierazle eman ditu, eta erreferentzia berezia egiten diete lanaren eta etxeko jardueraren arteko harremanen inpaktuari eta adingabeak nahiz mendekotasuna dutenak zaintzeko jardueren ondoriozko karga pertsonalei. Hona hemen 2019ko datu nagusiak:

## 4.1. Lana eta etxeko jarduera bateragarri egitea

FFEIn planteatutako hainbat adierazlek lana eta etxeko jarduera bateragarri egitearen inguruko alderdiei heltzen diete, bai lana eten edo utzi den kasuak detektatzeari begira, bai lan-jarduera eta etxeko jarduera pilatzearen ondoriozko lanaldi bikoitza neurtze aldera. Xede horietarako, 36. taulak honako adierazle hauei buruzko informazioa ematen du:

1. ADIERAZLEA (1. ADI.):

Azken 3 urteetan lana eta familia uztartzearekin lotutako arazoengatik (gutxienez, familia-laneko gehiegizko kargekin lotutako gertaeraren batengatik edo seme-alaba bat jaiotzeagatik) lan-jarduera eten duten 16 eta 69 urteko pertsonen %a (amatasunagatiko/aitatasunagatiko baimena amaitu ondoren)

2. ADIERAZLEA (2. ADI.):

Adingabeak edo mendekotasuna dutenak zaintzeagatik lan egin ezin duten 16 eta 69 urte arteko pertsonen %a

3. ADIERAZLEA (3. ADI.):

Azken 10 urteetan familia-laneko gehiegizko kargengatik edo seme-alaba bat jaiotzeagatik enplegua utzi duten 16 eta 69 urte arteko pertsonen %a

4. ADIERAZLEA (4. ADI.):

Etxean eta etxetik kanpo astean 60 orduz baino gehiagoz lan egiten duten landunen %a

5. ADIERAZLEA (5. ADI.):

Etxean eta etxetik kanpo astean 70 orduz baino gehiagoz lan egiten duten landunen %a

### *4.1.1. Lana etetea edo uztea dakarten kargak*

36. taulan ikus daitekeen bezala, 2019an, FFEIren datuek ez dute erakusten zaintza-lanek lan-jarduera normalizatua edukitzeko aukeran inpaktu handia dutenik.

**36. taula**

**Zaintza-lanek lan-jardueran aritzeko orduan duten inpaktuaren adierazleak, sexuaren eta familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**

**(datuak erreferentziazko taldearen %-tan)**

| | | 1. adierazlea | | | 2. adierazlea | | | 3. adierazlea | | | 4. adierazlea | | | 5. adierazlea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Guztira | Gizo-nezkoa | Emaku-mezkoa | Guztira | Gizo-nezkoa | Emaku-mezkoa | Guztira | Gizo-nezkoa | Emaku-mezkoa | Guztira | Gizo-nezkoa | Emaku-mezkoa | Guztira | Gizo-nezkoa | Emaku-mezkoa |
| | | % | % | % | % | % | % | % | % | % | % | % | % | % | % | % |
| 2019 | GUZTIRA | **2,1** | **0,97** | **3,23** | **0,48** | **0,27** | **0,69** | **2,31** | **0,98** | **3,65** | **18,13** | **15,54** | **20,93** | **4,9** | **3,95** | **5,83** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 1,28 | 1,61 | 0,86 | 0 | 0 | 0 | 2,41 | 2,06 | 2,86 | 8,32 | 6,24 | 11,35 | 1,9 | 1,42 | 2,47 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 15,61 | 19,98 | 8,68 | 0,0 | 0 | 0 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 1,74 | 0 | 3,84 | 0 | 0 | 0 | 2,01 | 0 | 4,46 | 21,24 | 14,9 | 26,33 | 7,4 | 0 | 13,23 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 0,42 | 0 | 0,82 | 0,51 | 1,05 | 0 | 0,72 | 0,46 | 0,97 | 18,03 | 15,51 | 20,75 | 2,4 | 2,81 | 1,87 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 0,41 | 0 | 0,83 | 1,28 | 2,5 | 0 | 0,78 | 0,66 | 0,91 | 14,05 | 13,74 | 14,4 | 2,1 | 2,93 | 1,22 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 0,43 | 0 | 0,82 | 0 | 0 | 0 | 0,68 | 0,32 | 1 | 23,4 | 18,1 | 28,57 | 2,7 | 2,65 | 2,68 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 2,63 | 1,18 | 4,13 | 0,45 | 0,14 | 0,77 | 2,96 | 1,04 | 4,94 | 20,05 | 17,5 | 22,9 | 6,0 | 4,73 | 7,46 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 3,36 | 1,44 | 5,3 | 0,52 | 0,07 | 0,99 | 3,5 | 1,04 | 5,97 | 22,64 | 20,14 | 25,37 | 7,1 | 5,66 | 8,67 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 0,19 | 0,35 | 0 | 0,2 | 0,37 | 0 | 1,14 | 1,02 | 1,28 | 11,4 | 9,05 | 14,21 | 2,4 | 1,76 | 3,21 |
| | GURASO BAKARREKOA | 4,14 | 1,57 | 6,05 | 0,7 | 0 | 1,22 | 2,66 | 1,01 | 3,89 | 20,3 | 16,8 | 22,42 | 6,6 | 4,87 | 7,71 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 5,31 | 0 | 8,15 | 0,68 | 0 | 1,04 | 2,99 | 0 | 4,59 | 21,09 | 8,4 | 24,59 | 7,8 | 7,64 | 7,82 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 2,38 | 3,08 | 1,54 | 0,74 | 0 | 1,61 | 2,17 | 1,98 | 2,39 | 19,53 | 20,12 | 18,84 | 5,5 | 3,77 | 7,53 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 0,95 | 0 | 1,71 | 1,56 | 0 | 2,8 | 0,83 | 0 | 1,5 | 12,43 | 12,12 | 12,74 | 4,2 | 5,61 | 2,86 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **1,94** | **0,67** | **3,16** | **0,41** | **0,23** | **0,59** | **1,65** | **0,46** | **2,79** | **8,89** | **6,5** | **11,47** | **3,5** | **2,76** | **4,28** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 0,68 | 1,33 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1,63 | 0,83 | 2,44 | 8,92 | 9,18 | 8,62 | 1,6 | 1,46 | 1,74 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 4,28 | 7,33 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 5,7 | 0 | 12,33 | 0,0 | 0 | 0 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 0,73 | 0 | 1,92 | 0 | 0 | 0 | 1,89 | 0 | 4,97 | 20,91 | 32,05 | 7,32 | 16,8 | 24,64 | 7,32 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 0,08 | 0,16 | 0 | 0,16 | 0,34 | 0 | 0,66 | 0 | 1,24 | 8,48 | 7,78 | 9,25 | 3,0 | 2,14 | 3,96 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1,12 | 0 | 2,29 | 5,33 | 5,12 | 5,6 | 1,5 | 1,04 | 2,17 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 0,11 | 0,26 | 0 | 0,24 | 0,54 | 0 | 0,42 | 0 | 0,76 | 12,24 | 11,54 | 12,88 | 4,8 | 3,69 | 5,73 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 2,97 | 0,6 | 5,49 | 0,37 | 0,1 | 0,67 | 2,06 | 0,58 | 3,63 | 8,89 | 5,96 | 12,37 | 3,7 | 2,96 | 4,62 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 3,75 | 0,76 | 6,93 | 0,47 | 0,12 | 0,84 | 2,44 | 0,63 | 4,37 | 10,55 | 7,08 | 14,68 | 4,5 | 3,67 | 5,51 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,58 | 0,42 | 0,76 | 2,56 | 1,67 | 3,59 | 0,7 | 0,24 | 1,25 |
| | GURASO BAKARREKOA | 1,44 | 0,69 | 1,87 | 1,25 | 0,87 | 1,48 | 1,7 | 0 | 2,69 | 9,62 | 2,57 | 13,44 | 3,3 | 0,68 | 4,75 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 1,48 | 0,85 | 1,73 | 1,37 | 0 | 1,9 | 2,51 | 0 | 3,46 | 14,56 | 7 | 16,18 | 5,0 | 3,28 | 5,33 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 1,38 | 0,58 | 2,11 | 1,12 | 1,44 | 0,82 | 0,76 | 0 | 1,46 | 6,13 | 1,4 | 10,4 | 2,2 | 0 | 4,1 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 0,58 | 1,31 | 0 | 1,17 | 1,31 | 1,06 | 0,64 | 1,31 | 0,11 | 3,38 | 0 | 6,56 | 2,2 | 0 | 4,21 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Hala, 16 eta 69 urte arteko biztanleen % 0,48k bakarrik adierazi dute ezin dutela lanik egin adingabeak edo mendekotasuna dutenak zaindu behar izateagatik. Pixka bat gorago egon arren, ehuneko murritza da hau ere: azken 3 urteetan lana eta familia uztartzearekin lotutako arazoengatik (gutxienez, familia-laneko gehiegizko kargekin lotutako gertaeraren batengatik edo seme-alaba bat jaiotzeagatik) lan-jarduera eten duten 16 eta 69 urteko pertsonen ehunekoa (amatasunagatiko/aitatasunagatiko baimena amaitu ondoren) % 2,10ekoa da. Azken 10 urteetan familia-laneko gehiegizko kargengatik edo seme-alaba bat jaiotzeagatik enplegua utzi duten 16 eta 69 urte arteko pertsonen proportzioa % 2,31koa da.

Oro har, datu horiek egonkortasun-maila handia erakusten dute, 2015ekoekin alderatuz gero; hala ere, joera goranzkoa da: % 0,41etik % 0,48rakoa, adingabeak edo mendekotasuna dutenak zaindu behar izateagatik lan egin ezin duten pertsonen proportzioari dagokionez; % 1,94tik % 2,10erakoa, azken hiru urteetan lan-jarduera eten dutenei dagokienez, eta % 1,65etik % 2,31rakoa, azken 10 urteetan zaintzaren inguruko arrazoiengatik enpleguren bat utzi duten biztanleei dagokienez.

2015ean bezala, aldeak handiak dira sexuaren arabera, karga pertsonalen inpaktua 2,6 eta 3,7 aldiz handiagoa baita emakumeengan, 2019an. Zentzu horretan, kaltetuenak emakumeak dira. Bestalde, familia mota batzuetan arazoa askoz ere handiagoa dela ikus daiteke; zehazki, etxe nuklearretan (bi guraso zein guraso bakarra egon) eta seme-alabarik gabeko familia nuklearretan. Sexuaren eta familia motaren inpaktu konbinatua aztertuz gero, karga pertsonal handiagoko egoera espezifikoak detektatu dira familia eta familia-etxe mota batzuetan.

Deigarrienek mendeko seme-alabak dauzkaten etxe nuklearretara lotutako 16 eta 69 urte arteko emakumeei eragiten diete, bi guraso zein guraso bakarra egon. Lehenengo kasuan, emakume horien % 5,30ek esan dute azken 3 urteetan lana eta familia bateragarri egiteko arazoengatik eten dutela lan-jarduera, eta % 5,97k adierazi dute azken 10 urteetan familia-laneko gehiegizko kargengatik edo seme-alaba bat jaiotzeagatik enplegua utzi dutela. Mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan bizi diren 16 eta 69 urte arteko emakumeengan, aintzat hartutako arazoen inpaktua altua da baita ere, % 8,15eko (adierazle honetan, gehienekoa) eta % 4,59ko ehunekoekin, hurrenez hurren. Bi familia mota horietan, adingabeak edo mendekotasuna dutenak zaintzeagatik lanik egin ezin dutela dioten 16 eta 69 urte arteko emakumeen proportzioa, nolanahi ere, mugatua da, % 1ekoa.

Seme-alabak dauzkaten etxeetan ere, azken 10 urteetan familia-laneko gehiegizko kargengatik edo seme-alaba bat jaiotzeagatik enplegua utzi duten 16 eta 69 urte arteko emakumeen proportzioa % 2,39koa da mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan. Emakume-talde horretan, % 1,61ek esan dute ezin dezaketela lanik egin adingabeak edo mendekotasuna dutenak zaindu behar dituztelako. Mailarik altuenetako bat da hori, eta nukleo anitzeko etxeetan bizi diren 16 eta 69 urte arteko emakumeengan ikusi den % 2,80k bakarrik gainditzen du.

Gaur egun seme-alabak dauzkaten taldeetatik kanpo, nukleorik gabeko etxe familiarretan bizi diren 16 eta 69 urte arteko emakumeen % 4,46k adierazi dute azken 10 urteetan familia-kargengatik enplegua utzi dutela, eta proportzio hori % 2,86koa da pertsona bakarreko etxeetan. Nukleorik gabeko etxeetan bizi diren emakumeen % 3,84k adierazi dute azken 3 urteetan lana eta familia bateragarri egiteko arazoengatik eten dutela lan-jarduera.

Emakumeek 2015etik 2019ra bitartean izan duten bilakaera aztertzean, azken 3 urteetan lan-jarduera eten behar izanaren inguruko adierazleari erreferentzia berezia eginez, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetako emakumeen artean igoera handia egon dela hauteman dugu (% 1,73tik % 8,15era), eta horrek kontrastatu egiten du orain arte kaltetuena izan den taldean (hots, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetako emakumeen taldean) izandako murrizketa handiarekin: % 6,93tik % 5,30era jaitsi da 2015-2019 aldian.

Azken talde horrek eragindako guztizko biztanleen (emakume nahiz gizon) % 75,9 hartzen zuen 2015ean. Proportzio hori % 53ra murriztu da 2019an. Mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietako emakumeak ere aintzat hartuta, proportzioak % 79,7tik % 66,7ra egin du behera. Hala ere, ikusitako proportzio altuak erakusten duenez, lana eta familia uztartzeko arrazoiengatik lana uztearen inguruko problematikek, funtsean, bi familia mota horiei lotuta egoten jarraitzen dute[16].

Gizonen artean, aztertutako egoeren inpaktua askoz ere txikiagoa da. Hala ere, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan bizi diren 16 eta 69 urte arteko gizonen % 3,08k esan dute azken 3 urteetan lana eta familia bateragarri egiteko arazoengatik eten dutela lan-jarduera, eta % 1,98k adierazi dute azken 10 urteetan familia-laneko gehiegizko kargengatik edo seme-alaba bat jaiotzeagatik enplegua utzi dutela. Azken egoera horretan daude pertsona bakarreko etxeetan bizi diren gizonen % 2,06. Guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan bizi diren 16 eta 69 urte arteko gizonen % 2,50ek adierazi dute ezin dutela lanik egin adingabeak edo mendekotasuna dutenak zaintzeagatik.

Aintzat hartutako egoera guztietan, 2015-2019 aldian, lana eten edo uztearen inguruko arazoa hazi egin da gizonen artean, 2015ean familia mota horien proportzioak % 1etik beherakoak baitziren beti.

Lana eten edo uztearen inpaktua emakumeen artean askoz ere handiagoa bada ere, problematika horiek igoera erlatibo handiagoa izan dute gizonen artean; hau da, gizonek orain lehen baino pisu handiagoa dute eragindako biztanlerian. Hori bai, gizonen parte-hartzea oso txikia da oraindik ere.

Hala, azken hiru urteetan lana eta familia bateragarri egiteko arazoen ondorioz lan-jarduera eten duten 16 eta 69 urte arteko biztanleei dagokienez, adierazlea % 0,67tik % 0,97ra igo da 2015-2019 aldian, gizonen artean. Emakumeen artean, adierazlea nahiko egonkor dago (% 3,16 2015ean, eta % 3,23 2019an). 2019an eragindako pertsonen % 76,9k emakumeak izaten jarraitzen badute ere, proportzioa zertxobait jaitsi da 2015etik, orduan % 83,2koa baitzen[17].

Azken 10 urteetan familia-laneko gehiegizko kargengatik edo seme-alaba bat jaiotzeagatik enplegua utzi duten 16 eta 69 urte arteko pertsonei dagokienez, eragindakoen proportzioak goranzko joera dauka bi sexuetan (% 0,46tik % 0,98ra gizonen artean, eta % 2,79tik % 3,65era emakumeen artean). Kasu horretan, emakumeek eragindako biztanlerian duten pisua % 86,4tik % 78,8ra jaitsi da 2015-2019 aldian[18].

---

[16] Oinarrizko informazioa A.8 taulan begiratu daiteke, taula osagarrien eranskinean.

[17] Ikusi A.9 taula, taula osagarrien eranskinean.

[18] Ikusi A.10 taula, taula osagarrien eranskinean.

Gaur egun adingabeak edo mendekotasuna dutenak zaindu behar izateagatik lanik egin ezin duten 16 eta 69 urte arteko pertsonen artean, joera zertxobait goranzkoa da bi sexuetan (% 0,23tik % 0,27ra gizonen artean, eta % 0,59tik % 0,69ra emakumeen artean). Egoera horretan, emakumeek eragindako biztanleriaren banaketan duten pisua ez da ia batere aldatu (% 72koa 2019an, eta % 72,8koa 2015ean)[19]. Adierazle horrek duenez unean-uneko egoerarekin harremanik handiena, datuek erakusten dute 2015ean nahiz 2019an sexuaren arabera ikusitako desberdintasunek bere horretan jarraitzen dutela, nahiz eta desberdintasun arazotsuek goranzko joera arina izan.

### *4.1.2. Gainkarga lan-jardueran eta etxeko jardueran*

Lana etetea edo uztea dakarten kargen inpaktu mugatuarekin kontrastean, 36. taulak esaten digu laneko eta familiako kargen pilaketaren intzidentzia askoz ere altuagoa dela; are, bi dimentsio horietan pilatutako lanaldia 60 edo 70 ordutik gorakoa izan daiteke astean. 2015-2019 aldian, gainera, inpaktuak gora egin du.

Hala, astean laneko eta etxeko jarduerei 60 ordu baino gehiago eskaintzen dizkieten 16 eta 69 urte arteko landunen proportzioa % 8,89tik % 18,13ra igo da 2015-2019 aldian. 70 ordutik gorako lanaldian, igoera neurritsuagoa izan da: % 3,49tik % 4,86rakoa.

2015ean baino intentsitate gutxiagorekin izan arren, sexuaren araberako desberdintasunak esanguratsuak dira berriro ere: emakumeen % 20,93k 60 ordu baino gehiago eskaintzen dizkiete jarduera horiei, eta % 5,83k 70 ordu baino gehiago. Gizonen artean, ehunekoak % 15,54 eta % 3,95 dira, hurrenez hurren. Kasu guztietan, adierazleek goranzko joera dute, 2015ean ikusitako egoerari dagokionez.

Sexuaren arabera aldeak egon arren, garrantzitsua da esatea goranzko joera handiagoa dela gizonen artean. Ondorioz, eragindakoen artean, emakumeen proportzioak behera egin du 2015-2019 aldian (% 62tik % 55,5era); bereziki, laneko eta etxeko jarduerari astean 60 ordu baino gehiago eskaintzeari dagokionez. 70 ordutik gorako lanaldiei dagokienez, 2019ko % 57,8 2015eko % 59tik hurbilago dago[20].

Problematikek sexuaren eta familia motaren arabera duten inpaktua aztertuta egiaztatu dugunez, emakume landun kaltetuenak guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen edo guraso bakarreko etxeetan eta nukleorik gabeko etxe familiarretan bizi dira. Familia mota horietan, emakume landunen % 24,59ren eta % 28,57ren artean astean 60 ordu baino gehiago eskaintzen dizkiete laneko eta etxeko jarduerei. Guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan salbu, non proportzioa % 2,68koa baita, astean jarduera horiei 70 ordutik gora eskaintzen dizkietenen proportzioa oso esanguratsua da: % 7,82ren eta % 8,67ren artekoa mendeko seme-alabak dauzkaten etxeetan, eta % 13,23koa nukleorik gabeko etxeetan.

---

[19] Ikusi A.11 taula, taula osagarrien eranskinean.

[20] Ikusi A.12.a eta A.12.b taulak, taula osagarrien eranskinean.

Mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietako emakume landunen artean, kaltetuen proportzioa ez da aurreko taldetik gehiegi urruntzen: astean 60 ordutik gorako lanaldia dutenak % 18,84 dira, eta astean 70 ordutik gorako lanaldia dutenak % 7,53.

Lanaldi bikoitzean aritzen diren emakumeen gainerako taldeetan, laneko eta etxeko jarduerei astean 60 ordu edo gehiago eskaintzen dizkieten emakumeen proportzioa % 11,35en eta % 14,40ren artean dago, senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan izan ezik, horietan % 8,68koa baita proportzioa. Gainerako emakume-taldeetan, 70 ordutik gorako lanaldiak % 3tik gertu edo hortik behera daude.

Familia mota batzuetan, gizonek familiako eta laneko kargak beren gain hartzearen ondoriozko gainjarduera adierazgarria da. Hala, gizonen % 18,10en eta % 20,14ren artean astean 60 ordu baino gehiago eskaintzen dizkiete laneko eta etxeko jarduerei senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan, mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan. Gainerako familia motetan, ehuneko hori % 8,40ren eta % 14,90en artean egon ohi da, pertsona bakarreko etxeetan izan ezik, horietan % 6,24koa baita gutxienekoa.

Laneko eta etxeko jarduerei astean 70 ordu baino gehiago eskaintzen dizkieten gizonen proportzioa, normalean, % 3tik beherakoa da, baina % 3,77ra iristen da mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan. Proportzioa maila esanguratsuetara iristen da mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan eta nukleo anitzeko etxeetan (%5,61-5,66). Are, % 7,64ra iristen da mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan.

## 4.2. Arreta etengabea behar duten mendekotasun-egoerak

### *4.2.1. Mendekotasuna duen kideren bat duten etxeak.*

37. taulan, mendekotasun iraunkorra duten pertsonek familia-etxe eta familietan duten proportzioari buruzko informazioa jasotzen da, baita mendekotasun mota hori duen norbait daukaten etxeen proportzioari buruzkoa ere.

Hala, egiaztatu denez, arreta etengabea eskatzen duten mendekotasun-egoerek etxeko erreferentziazko pertsonen % 2,2ri eragiten diete 2019an, eta familia-etxeetan eta familietan bizi diren biztanleen % 2,4ri. Etxeen % 5,3n, mendekotasun mota hori daukan norbait dago.

2015-2019 aldiaren bilakaera dibergentea da eragindakoen proportzioari dagokionez, % 2,4tik % 2,2ra jaitsi baita erreferentziazko pertsonen artean eta % 2,2tik % 2,4ra igo baita biztanleria osoan. Joera zertxobait goranzko horrek baldintzatu egiten du mendekotasun iraunkorreko egoeraren bat duten etxeen proportzioaren bilakaera orokorra, % 5,0tik % 5,3ra igo baita 2015-2019 aldian.

**37. taula**
**Mendekotasun iraunkorra duten pertsonek familia-etxe/familietan duten proportzioa eta egoera horretan dagoen norbait daukaten etxeen proportzioa, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(erreferentziazko pertsonen eta guztizko biztanleriaren eta guztizko familia-etxeen %a)**

| Motak | 2015<br>Erreferentziazko pertsonak<br>Mendekotasun iraunkorra duten pertsonak<br>%-tan | 2019<br>Erreferentziazko pertsonak<br>Mendekotasun iraunkorra duten pertsonak<br>%-tan | 2015<br>Biztanleria, guztira<br>Mendekotasun iraunkorra duten pertsonak<br>%-tan | 2019<br>Biztanleria, guztira<br>Mendekotasun iraunkorra duten pertsonak<br>%-tan | 2015<br>Mendekotasuna duen norbait<br>%-tan | 2019<br>Mendekotasuna duen norbait<br>%-tan |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **2,4** | **2,2** | **2,2** | **2,4** | **5,0** | **5,3** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 2,6 | 2,4 | 2,6 | 2,4 | 2,6 | 2,4 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 20,7 | 22,0 | 20,7 | 22,0 | 20,7 | 22,0 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 10,1 | 14,3 | 9,1 | 10,9 | 16,9 | 23,0 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 2,6 | 2,7 | 3,0 | 3,2 | 5,6 | 6,1 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 0,9 | 0,7 | 0,8 | 0,7 | 1,7 | 1,4 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 3,1 | 3,4 | 3,6 | 4,2 | 6,8 | 7,8 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 0,8 | 0,8 | 0,9 | 1,3 | 3,2 | 4,4 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 0,2 | 0,7 | 0,5 | 1,3 | 2,0 | 4,7 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 2,9 | 1,4 | 2,4 | 1,2 | 8,0 | 3,7 |
| GURASO BAKARREKOA | 6,2 | 4,7 | 4,1 | 4,1 | 10,1 | 10,1 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 2,0 | 1,1 | 2,4 | 1,8 | 6,1 | 4,7 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 10,8 | 9,7 | 6,2 | 7,8 | 14,3 | 17,6 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 5,7 | 0,0 | 2,6 | 1,4 | 8,7 | 3,3 |

Oharra: Xede hauetarako, bigarren mailako unitateetako pertsonak ez dira kontuan hartu.
Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Azken adierazle horretan sakonduz ikusi denez, familia eta familia-etxe moten arabera sekulako aldeak daude mendekotasun iraunkorraren intzidentzian. Mendekotasun iraunkorreko egoera gehien dauzkaten etxeak nukleorik gabeko etxe familiarrak dira, etxeen % 23,0 baitira; ondoren, senideak ez diren pertsona anitzekoak (% 22,0) eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarrekoak (% 17,6) datoz. Etxe mota horietan, mendekotasun iraunkorreko arazoak dauzkaten erreferentziazko pertsonen proportzioa handia da: % 22,0koa senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, % 14,3koa nukleorik gabeko etxe familiarretan, eta % 9,7koa mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan.

Hortik behera, etxeen % 7,8k mendekotasun iraunkorra duen kideren bat daukate guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan, eta erreferentziazko pertsonen % 3,4 daude egoera horretan.

2015-2019 aldian, adierazitako familia mota guztietan egon dira igoerak mendekotasun iraunkorra duten pertsonen presentzian. Portzentaje-puntu batetik pixka bat gora igo da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan eta guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan, baina 3,2 portzentaje-puntura iritsi da mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan (% 14,3tik % 17,6ra), eta 6 puntura nukleorik gabeko etxe familiarretan (% 16,9tik % 23,0ra).

Gainerako familia-etxe eta familia motetan, mendekotasun-egoeren presentzia % 3,3ren eta % 4,7ren artean dabil seme-alabak dauzkaten etxe nuklearretan, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan eta nukleo anitzekoetan. Proportzioa % 2,4koa da pertsona bakarrekoetan, eta % 1,4koa guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan. Familia-etxe eta familia mota horietan, mendekotasun iraunkorra duten erreferentziazko pertsonen proportzioa % 1,5etik beherakoa da normalean, baina % 2,4koa da pertsona bakarreko etxeetan.

### *4.2.2. Mendekotasuna dutenei ematen zaien arreta*

38. taulan, hirugarrenen mendekotasun-mailaren eta senideek beren gain hartzen duten arretaren eguneroko intentsitatearen arteko lotura estua ikus daiteke, mendekotasuna sor dezaketen arazoak dauzkaten biztanleei dagokienez. Bada, batez beste, egunean 1,0 orduko arreta ematen da benetako mendekotasuna duen hirugarrenik ez badago. Zifra 2,7 ordura igotzen da, ordea, noizbehinkako mendekotasun motaren bat dagoenean, eta 9,9ra mendekotasun iraunkorra (edo hedatua, 6 urtetik beherako adingabeen kasuan) dagoenean.

**38. taula**
**Hirugarrenen mendekotasunagatik mendekotasuna sor dezaketen arazoak dauzkaten biztanleak eta senideek egunean ematen duten arretaren batez besteko ordu-kopurua, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(batez besteko orduak)**

| | 2015 | | | | 2019 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | MENDEKO-TASUNIK EZ | Noizbehinkakoa | Iraunkorra/ Hedatua | MENDEKO-TASUNA BAI | MENDEKOTA-SUNIK EZ | Noizbehinkakoa | Iraunkorra/ Hedatua | MENDEKOTA-SUNA BAI |
| Motak | Batez besteko orduak | Batez besteko orduak | Batez besteko orduak | Batez besteko orduak | Batez besteko orduak | Batez besteko orduak | Batez besteko orduak | Batez besteko orduak |
| **GUZTIRA** | **1,6** | **3,8** | **9,7** | **5,2** | **1,0** | **2,7** | **9,9** | **4,6** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 0,2 | 2,6 | 8,7 | 3,0 | 0,5 | 1,6 | 5,0 | 1,8 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 1,4 | 0,0 | 3,8 | 3,4 | 0,0 | 1,3 | 7,1 | 5,9 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 0,8 | 8,6 | 6,4 | 6,9 | 3,1 | 2,0 | 12,9 | 6,7 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 2,0 | 3,8 | 9,5 | 4,9 | 1,7 | 4,5 | 9,7 | 5,3 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 0,0 | 1,3 | 11,1 | 3,1 | 0,0 | 8,0 | 10,0 | 7,2 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 2,3 | 3,9 | 9,4 | 5,1 | 1,8 | 4,5 | 9,7 | 5,3 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 2,3 | 5,4 | 11,5 | 6,3 | 0,1 | 2,4 | 11,7 | 5,2 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 3,4 | 6,6 | 8,8 | 6,0 | 0,1 | 1,1 | 10,2 | 5,1 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 0,5 | 3,9 | 14,1 | 6,6 | 0,2 | 3,8 | 17,8 | 5,4 |
| GURASO BAKARREKOA | 1,9 | 2,3 | 11,7 | 6,2 | 0,4 | 3,4 | 11,1 | 6,1 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 2,9 | 2,1 | 10,8 | 6,1 | 0,8 | 2,1 | 8,4 | 3,5 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 1,1 | 2,4 | 12,2 | 6,2 | 0,0 | 6,2 | 12,1 | 8,1 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 6,0 | 1,6 | 10,6 | 6,2 | 1,2 | 1,2 | 7,2 | 2,9 |

Oharra: Bigarren mailako unitateetako pertsonak ez dira kontuan hartu.
Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

38. taulan ikus daitekeenez, bestalde, egunean batez beste 10 ordutik gorako arreta ematen da, arreta iraunkorra edo hedatua denean, nukleorik gabeko etxe familiarretan, guraso izan aurreko ezkontzazko

etxeetan, seme-alabak dauzkaten etxe nuklearretan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan.

Kolektiboari ematen zaion babesari dagokionez, adierazi beharra dago 2015-2019 aldian nabarmen handitu dela mendekotasun-egoeran daudenei bermatzen zaien babesa; bereziki, hirugarrenen mendekotasuna iraunkorra edo hedatua denean. Kasu horretan, AMAS mendekotasun-sistemaren prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten mendekoen proportzioa % 39tik % 66ra igo da 2015-2019 aldian (egoitzetatik kanpo). Igoera % 31,4tik % 49,8rakoa da familia-inguruneko zaintzei dagokienez; % 5,1etik % 9rakoa zerbitzuari lotutako prestazioari dagokionez, eta % 2,5etik % 7,2rakoa laguntza pertsonalari dagokionez[21].

Bestetik, hirugarrenen mendekotasun iraunkorra edo hedatua dutenen arretarako erabiltzen diren zerbitzu eta laguntza motak aztertzen dira 39. taulan, eta bertan ikus daiteke etxean langileak kontratatzea dela arreta hobetzeko bide nagusia: 2015-2019 aldian, 9,6 portzentaje-puntuko igoera egon da (% 30,4tik % 40,1erakoa). Halaber, gehiago jotzen da etxez etxeko laguntza-zerbitzura (% 4,9tik % 8ra) eta atseden-zentroetara (% 2,6tik % 7,4ra). Aitzitik, eguneko zentroetara jotzeko joerak behera egin du, % 10,5etik % 8,7ra.

**39. taula**
**Hirugarrenen mendekotasunagatik mendekotasuna sor dezaketen arazoak dauzkaten biztanleak eta laguntza motak: etxez etxeko laguntza-zerbitzua/eguneko zentroa, kontratatutako langileak, familia-laguntza (2 ordu edo gehiago egunean), atseden-zentroak eta egoitzen eskaria. EAE. 2015 eta 2019**
**(sarbidearen edo eskariaren %a).**

| | 2015 | | | | 2019 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Mendekotasunik ez | Noizbehinkakoa | Iraunkorra / Hedatua | Mendekotasuna bai | Mendekotasunik ez | Noizbehinkakoa | Iraunkorra / Hedatua | Mendekotasuna bai |
| Sarbidea edo eskaria | % | % | % | % | % | % | % | % |
| Etxez etxeko laguntza | 3,7 | 7,3 | 4,9 | 5,4 | 4,7 | 14,4 | 8,0 | 8,9 |
| Eguneko zentroa | 1,8 | 1,2 | 10,5 | 4,5 | 0,0 | 0,7 | 8,7 | 3,2 |
| Kontratatutako langileak | 11,8 | 15,6 | 30,4 | 19,5 | 4,1 | 12,6 | 40,1 | 19,1 |
| >2 orduko familia-laguntza | 20,3 | 61,4 | 88,5 | 58,5 | 11,9 | 43,7 | 86,9 | 47,6 |
| Atseden-zentroak | 1,3 | 3,2 | 2,6 | 2,4 | 2,8 | 4,5 | 7,4 | 4,9 |
| Egoitza-eskaria | 0,9 | 0,3 | 3,1 | 1,4 | 1,5 | 1,5 | 3,9 | 2,3 |

Oharra: Bigarren mailako unitateetako pertsonak ez dira kontuan hartu.
Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Laguntzen eta zerbitzuen sistemara sartzeko orduan babesa handitu izanak ez du nabarmen murriztu zuzeneko familia-arretari dagokion maila. Hala, 2015eko % 88,5etik zertxobait behera egin badu ere, aztertutako pertsonen % 86,9k bi ordutik gorako familia-arreta jasotzen dute egunean, batez beste. Gainera, 38. taulak adierazten duen moduan, senideek egunean ematen duten arretaren batez besteko ordu-kopurua pixka bat igo da 2015-2019 aldian: 9,7tik 9,9ra.

[21] Ikusi A.13 taula, taula osagarrien eranskinean.

Familia-babes mota horren garrantzi erlatiboaren beherakada askoz ere deigarriagoa da, ordea, hirugarrenen mende noizbehinka baino ez dauden mendekoei dagokienean. Kasu horretan, egunean batez beste bi ordutik gorako arreta jasotzen duten pertsonen ehunekoa % 61,4tik % 43,7ra jaitsi da 2015-2019 aldian. Senideek ematen duten arretaren batez besteko ordu-kopurua 3,8tik 2,7ra jaitsi da pertsona horien artean. Noizbehinkako mendekotasuna dutenei ematen zaien arretan ikusi den beherakada berbera ikus daiteke etxean bertan langileak kontratatzeari dagokionez (% 15,6tik % 12,6ra) eta eguneko zentroak erabiltzeari dagokionez (% 1,2tik % 0,7ra).

Atseden-zentroen erabilera igo egin da (% 3,2tik % 4,5era), baina, noizbehinkako mendekotasuna dutenen artean, etxez etxeko laguntzak izan du gorakadarik handiena 2015-2019 aldian (% 7,3tik % 14,4ra).

Hirugarrenen mende dauden biztanleek ezaugarri komun bat dute: egoitzan artatzeko eskaria gora egiten ari da. Eskaria % 0,3tik % 1,5era igo da, 205-2019 aldian, noizbehinkako mendekotasuna dutenen artean, eta % 3,1etik % 3,9ra mendekotasun iraunkorra edo hedatua dutenen artean.

### *4.2.3. 0-3 urteko adingabeei ematen zaien arreta*

FFEIk agerian jarri du adingabeei loturiko familia-kargak murriztu egin direla etxeetan, eta, neurri handi batean, ugalkortasunaren eta jaiotza-tasaren beheranzko dinamikaren ondorioa da hori. Hala, 3 urtetik beherako biztanleei dagokienez, 40. taulan egiaztatu da biztanle mota horiek etxeen % 4,0n bakarrik daudela 2019an; 2015eko % 6,1ekin alderatuta, beherakada handia da.

Jaitsiera hori bereziki deigarria da mendeko seme-alabak daukaten gurasoen etxeetan (% 19,5etik % 13,2ra) eta nukleo anitzeko etxeetan (% 15,1etik % 8,8ra). Hala ere, joera horrek ez die familia mota guztiei eragiten, 2015-2019 aldian igoera egon baita mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familien kasuan (% 5,2tik % 6,7ra).

**40. taula**
**3 urtetik beherako biztanleak dauzkaten familia-etxeen/familien proportzioa, etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(etxeen %a)**

| | 2015 | 2019 |
|---|---|---|
| | 3 urtetik beherako norbait | 3 urtetik beherako norbait |
| Motak | %-tan | %-tan |
| **GUZTIRA** | **6,1** | **4,0** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 0,0 | 0,0 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 0,0 | 0,0 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 0,0 | 0,0 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 0,0 | 0,0 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 0,0 | 0,0 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 0,0 | 0,0 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 15,5 | 10,1 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 19,5 | 13,2 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 0,0 | 0,0 |
| GURASO BAKARREKOA | 2,7 | 3,9 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 5,2 | 6,7 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 0,0 | 0,0 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 15,1 | 8,8 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

2015-2019 aldian, 3 urte baino gutxiagoko biztanleak dauzkaten etxeen proportzioak behera egitearekin batera, oro har, haur-eskolako edo zentroko arreta handitu egin da adingabe horien artean. 41. taulan ikus daitekeenez, 2015-2019 aldian, zentro horietan artatzen diren adingabeen proportzioa % 50,4tik % 71,2ra igo da urtebetekoen kasuan, eta % 64,1etik % 96,8ra bi urtekoen kasuan.

**41. taula**
**3 urtetik beherako biztanleak, zentroko edo haur-eskolako arretaren eta familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019 (artatuen %a)**

| | 2015 | | | | 2019 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 0 urte | 1 urte | 2 urte | GUZTIRA | 0 urte | 1 urte | 2 urte | GUZTIRA |
| Adina | Artatuen %a | Artatuen %a | Artatuen %a | Artatuen %a | Artatuen %a | Artatuen %a | Artatuen %a | Artatuen %a |
| **GUZTIRA** | **22,8** | **50,4** | **64,1** | **45,0** | **9,2** | **71,2** | **96,8** | **59,8** |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 25,5 | 50,6 | 65,7 | 46,3 | 11,8 | 68,9 | 97,3 | 60,8 |
| GURASO BAKARREKOA | 0,0 | 62,2 | 52,9 | 34,8 | 0,0 | 100,0 | 93,6 | 67,8 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 0,0 | 0,0 | 58,6 | 30,8 | 0,0 | 0.0. | 100,0 | 22,6 |

Oharra: Bigarren mailako unitateetako pertsonak ez dira kontuan hartu.
Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

Alabaina, arretaren goranzko joera ez da urtebete baino gutxiagoko biztanleen artera zabaldu. Kasu horretan, etxean artatzearen aldeko ildoa sendotu egin da, eta zentro batean edo haur-eskolan artatutako lagunen kopuruak behera egin du: 2015eko % 22,8tik 2019ko % 9,2ra.

Familia motaren arabera, arreta-mailarik handiena guraso bakarreko etxeei dagokie, % 67,8rekin, gurasoen familien % 60,8tik eta nukleo anitzeko etxeen % 22,6tik gora. Azken kasu horretan ikus daiteke beheranzko joera bakarra 2015ari dagokionez, urte hartan % 30,8 joaten baitziren zentro batera edo haur-eskolara. Gainerako kasuetan, 2015-2019 aldian izandako igoera deigarria da: % 46,3tik % 60,8ra gurasoen etxeetan eta % 34,8tik % 67,8ra guraso bakarrekoetan.

Zentro batean edo haur-eskolan artatzen diren biztanleei dagokienez, honako hauek dira arretaren inguruko oinarrizko adierazleak[22]:

a) Eguneko arretaren batez besteko orduak 4,99 izatetik 6,24 izatera igaro dira 2015-2019 aldian.

b) Jantokiaren erabileraren ehunekoak, baina, behera egin du: artatuen % 51,1etik % 40,8ra.

c) Haur-eskolaren edo jantokiaren laguntza jasotzen duten adingabeen proportzioak gora egin du: % 5,8tik % 16,1era.

d) Hileko batez besteko kuota 142,46 eurotik 122,12 eurora jaitsi da 2015-2019 aldian.

Zentro batean edo haur-eskolan artatzen ez diren adingabeen multzoan, 2 urtetik gorakoen artean batez ere, kasuen % 6,1en bakarrik lot daiteke arreta falta honako kausa hauekin: arreta-eskaera ezetsi izana, kostua edo inguruan tokirik ez egotea. Proportzioa, halere, igo egin da 2015eko % 4,3tik[23].

---

[22] Ikusi A.14 taula, taula osagarrien eranskinean.

Egiaztatu ahal izan den bezala, hamarkadaren bigarren erdian enplegu-mailak berreskuratzeko ildoa sendotu egin denez, mendekotasuna dutenei edota adingabeei ematen zaien arretak presioa txikitu izanak ez du murriztu enplegu bat lortzeak eta etxeko lanak egiteak multzoan dakarren presioa. Lan-merkatura gehiago sartzeak gero eta presio handiagoa eragiten du etxetik kanpo eta etxe barruan lan egiteko konbinazioan.

[23] Ikusi A.15 taula, taula osagarrien eranskinean.

# 5. Familien eta familia-etxeen aldeko neurri sozialen ezagutza eta erabilera

EAEko erakunde publikoek familiei eskaintzen dizkieten laguntza nagusien ezagutza- eta erabilera-maila aztertu du FFEIk, eta honako laguntza mota hauetan zentratu du hurbilketa, bereziki:

* Seme-alabak dauzkaten familientzako laguntza ekonomikoak, jaiotzengatik edo adopzioagatik
* 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lan-eszedentziak
* 3 urtetik beherako seme-alabak etxean bertan zaintzeko langile bat kontratatzeko dirulaguntza
* 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa
* Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko lan-eszedentziak
* Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko lanaldi-murrizketa

Halaber, diru-sarrerak bermatzeko programen (DSBE, EPO eta GLL) ezagutzari eta erabilerari buruzko informazioa jasotzen du.

Bestetik, pertsonei eta familiei laguntzeko beste zerbitzu batuk jorratzen dira; horien artean, familia-bitartekaritza eta ZEUK ESAN (haurrei eta nerabeei arreta emateko telefonoa) eta BERDINDU (sexu- eta genero-aniztasuna) programak.

## 5.1. Familiei eta familia-etxeei laguntzeko neurrien eta programen ezagutza

42. taulatik 44. taulara bitartean, familiei laguntzeko programen ezagutza-mailari buruzko informazioa ematen da. Hona hemen emaitza nagusiak, familia edo familia-motaren arabera:

*Jaiotza edo adopzioagatiko laguntzak*

Familien % 43,4k familiei jaiotza edo adopzioagatik eskaintzen zaizkien laguntza ekonomikoak ezagutzen dituzte. Proportzio horrek 8,2 portzentaje-puntutan gainditzen du 2015eko % 35,1.

Mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeek edo guraso bakarreko etxeek dute ezagutza-mailarik altuena (% 63,7 eta % 57,1, hurrenez hurren), eta nukleo anitzeko etxeak datoz gero (% 49,2). Proportzioa EAEko adierazle orokorra baino gorago dago guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan ere (% 45,8).

*Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak*

**Lanaldi-murrizketa, 12 urtetik beherakoekin**

Seme-alabak dauzkaten familientzako neurrien eremuan, 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa da neurri ezagunena. Etxeen % 50,2k ezagutzen dute neurri hori, 2015ean baino 10,3 portzentaje-puntu gehiago (% 39,9).

Neurrira lotuago egon daitezkeen familia-taldeen eremuan, ezagutza-maila % 67,4-%68,8ra iristen da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan. Proportzioa % 56,4koa da mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan, eta % 37koa nukleo anitzeko etxeetan.

Ezagutza-maila altua da, baita ere, % 44,8ren eta % 47,5en arteko zifrekin, guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen edo guraso bakarreko etxeetan.

**Lan-eszedentzia, 3 urtetik beherakoekin**

Familien % 48,6k 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lan-eszedentziarako laguntzak ezagutzen dituzte, 2015ean baino 9,9 portzentaje-puntu gehiago (% 38,7).

Kasu horretan, ezagutza-maila % 68,1era iristen da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan, eta % 65era mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan. Proportzioa % 57,1ekoa da mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan, eta % 40,4koa nukleo anitzeko etxeetan. % 42,1en eta % 47,3ren artean dago guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan eta mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen edo guraso bakarreko etxeetan.

**Zaintzaileen kontratazioa, 3 urtetik beherakoekin**

3 urtetik beherako seme-alabak etxean bertan zaintzeko langile bat kontratatzeko dirulaguntzen kasuan, ezagutza-mailak behera egiten du. Bada, familien % 21,9k ezagutzen dituzte, 2015eko % 18,2k baino gehiagok.

Familia mota nagusietan, ezagutza-maila % 25etik hurbil edo hortik behera dago. Proportzio hori guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan bakarrik gainditzen da, % 34,2rekin.

**Eszedentzia, mendekotasuna duten pertsonekin**

Mendekotasun-egoeran dauden kideak dauzkaten familientzako neurrien eremuan, mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko lan-eszedentzia da neurririk ezagunena. Kasu horretan, etxeen % 45,6k ezagutzen dute neurri hori, 2015ean baino 13,8 portzentaje-puntu gehiago (% 31,8).

Ezagutza-mailak % 50eko mailak gainditzen ditu guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (% 66) eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 53,6). % 44,2ren eta % 49,1en artean dago guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen

etxeetan eta guraso bakarreko askotariko familia motetan. Proportzioa % 31,7koa da nukleo anitzeko etxeetan.

**Lanaldi-murrizketa, mendekotasuna duten pertsonekin**

Familien % 44,7k mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko lanaldi-murrizketaren programa ezagutzen dute, 2015ean baino 13,6 portzentaje-puntu gehiago (% 31,2).

Ezagutza-mailak % 50 gainditzen du, berriro ere, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (% 63,8) eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 51,9). Proportzioa % 44,2ren eta % 49,5en artean dago guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan, mendekoak ez diren seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan eta guraso bakarreko askotariko familia motetan. Proportzioa % 24,3ra mugatzen da nukleo anitzeko etxeetan.

*Prestazioak eta laguntza ekonomikoak*

Prestazioen eta laguntza ekonomikoen eremuan, prestazio ezagunena DSBE da, familien % 74k ezagutzen baitute. Proportzio horrek 15,2 portzentaje-puntu egin ditu gora, 2015eko % 58,8rekin alderatuz gero.

EPOren eta GLLen ezagutza askoz ere murritzagoa da, % 36,1ekoa eta % 40,4koa. Alabaina, 2015arekin alderatuz gero, 6,5 eta 4,2 portzentaje-puntu egin ditu gora (% 29,6 eta % 36,2, hurrenez hurren).

DSBEren ezagutza-maila % 70etik gorako mailetan dago oro har, pertsona bakarreko etxeetan, guraso izan ondoko ezkontzazko etxeetan eta nukleorik gabeko etxe familiarretan izan ezik: lehenengo bietan, ezagutza-maila nahiko altua da, % 68,9koa eta % 66,5ekoa, baina hirugarrengoan % 50,1ekoa.

EPOri dagokionez, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (% 40,1), mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 39,8) eta, pixka bat nabariago, mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan (% 51,0) bakarrik ikus daitezke % 40tik gorako edo hor inguruko ezagutza-mailak.

GLLen ezagutzak % 40 gainditzen du senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan (% 40,0), nukleorik gabeko etxe familiarretan (% 49,2), mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 46,7) eta, oro har, guraso bakarreko etxeetan (% 51,1 mendeko seme-alabekin, eta % 40,9 mendekoak ez diren seme-alabekin).

*Beste neurri eta programa batzuk*

2019an, familien % 28,4k familia-bitartekaritzako zerbitzua ezagutzen dute. % 30etik gora, proportzio hori % 32,7koa da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan, % 36,1ekoa mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, eta % 40,1ekoa mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan.

% 20,1ek Zeuk Esan haur eta nerabeei laguntzeko zerbitzua ezagutzen dute. Ezagutza-maila hori gainditzen da guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (% 26,6), seme-alabak dauzkaten etxe

nuklearretan (% 26,4 mendeko seme-alabekin, % 23,6 mendekoak ez diren seme-alabekin) eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan (% 22,8).

Ezagutzaren ehunekoa % 15,9koa da sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko Berdindu programari dagokionez. Kasu horretan, ehuneko hori gainditzen da mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 19,8) eta, modu deigarriagoan, guraso izan aurreko ezkontzazko etxeetan (% 29,4).

**42. taula**
**Familiei laguntzeko neurri jakin batzuk ezagutzen dituzten familia-etxe/familiak, familia-etxe edo familia motaren arabera.**
**EAE. 2015 eta 2019**
**(neurria ezagutzen dutenen %a)**

| Motak | | Seme-alabak dauzkaten familientzat | <3 urtekoak zaintzeko lan-eszedentzia | <3 urtekoak zaintzeko kontratazioa | <12 urtekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa | Mendekotasuna dutenak zaintzeko eszedentzia | Mendekotasuna dutenak zaintzeko lanaldi-murrizketa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % | % | % | % | % | % |
| 2019 | **GUZTIRA** | **43,4** | **48,6** | **21,9** | **50,2** | **45,6** | **44,7** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 31,5 | 36,4 | 17,6 | 37,7 | 37,8 | 37,5 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 18,5 | 17,6 | 6,5 | 19,6 | 12,8 | 14,0 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 17,8 | 26,0 | 12,1 | 26,0 | 29,7 | 31,4 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 40,1 | 49,0 | 23,8 | 50,8 | 50,0 | 49,4 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 45,8 | 68,1 | 34,2 | 67,4 | 66,0 | 63,8 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 38,0 | 42,1 | 20,1 | 44,8 | 44,2 | 44,2 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 56,5 | 60,9 | 25,7 | 63,5 | 52,0 | 50,3 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 63,7 | 65,0 | 25,9 | 68,8 | 53,6 | 51,9 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 32,6 | 47,3 | 25,1 | 46,0 | 46,7 | 45,1 |
| | GURASO BAKARREKOA | 48,4 | 52,8 | 21,2 | 52,7 | 47,7 | 48,7 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 57,1 | 57,1 | 19,6 | 56,4 | 46,6 | 48,2 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 36,1 | 46,7 | 23,5 | 47,5 | 49,1 | 49,5 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 49,2 | 40,4 | 19,3 | 37,0 | 31,7 | 24,3 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **35,1** | **38,7** | **18,2** | **39,9** | **31,8** | **31,2** |
| | PERTSONA BAKARREKOA | 26,3 | 26,9 | 15,1 | 27,7 | 26,0 | 24,5 |
| | SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 21,4 | 20,3 | 6,0 | 17,3 | 18,5 | 19,5 |
| | FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 16,7 | 19,8 | 10,6 | 22,3 | 23,5 | 26,0 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 25,4 | 30,1 | 14,9 | 30,9 | 26,0 | 25,4 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 40,7 | 46,7 | 21,8 | 53,0 | 40,2 | 41,6 |
| | Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 20,8 | 25,2 | 12,8 | 24,3 | 21,8 | 20,6 |
| | NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 49,2 | 56,1 | 23,6 | 57,9 | 40,9 | 40,3 |
| | Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 55,2 | 62,5 | 25,3 | 64,2 | 44,2 | 43,9 |
| | Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 25,8 | 31,3 | 16,8 | 33,2 | 28,1 | 25,9 |
| | GURASO BAKARREKOA | 34,8 | 33,1 | 17,0 | 34,0 | 31,8 | 32,1 |
| | Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 46,9 | 40,0 | 18,9 | 43,2 | 34,5 | 36,1 |
| | Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 21,8 | 25,6 | 14,9 | 24,2 | 28,8 | 27,7 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 36,9 | 38,4 | 22,0 | 45,0 | 27,9 | 29,4 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

**43. taula**
**DSBE/EPO-EPE/GLL laguntzen sistema ezagutzen duten familia-etxe/familiak, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(neurria ezagutzen dutenen %a)**

| | 2015 | | | 2019 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | DSBE | EPO | GLL | DSBE | EPO | GLL |
| Motak | % | % | % | % | % | % |
| **GUZTIRA** | **58,8** | **29,6** | **36,2** | **74,0** | **36,1** | **40,4** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 53,7 | 25,9 | 30,7 | 68,9 | 33,3 | 37,1 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 57,7 | 34,7 | 33,6 | 70,7 | 32,8 | 40,0 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 59,9 | 33,3 | 35,7 | 50,1 | 31,9 | 49,2 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 50,3 | 23,7 | 29,3 | 70,0 | 33,8 | 35,2 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 64,5 | 34,1 | 41,7 | 79,7 | 40,1 | 35,2 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 46,1 | 20,7 | 25,6 | 66,5 | 31,5 | 35,2 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 64,5 | 33,6 | 43,9 | 80,9 | 38,4 | 44,3 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 66,5 | 34,9 | 45,6 | 80,9 | 39,8 | 46,7 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 56,9 | 28,5 | 37,2 | 81,0 | 33,9 | 36,5 |
| GURASO BAKARREKOA | 69,8 | 35,1 | 40,5 | 78,4 | 43,4 | 46,8 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 80,3 | 42,1 | 52,8 | 85,6 | 51,0 | 51,1 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 58,4 | 27,5 | 27,3 | 68,3 | 32,7 | 40,9 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 54,9 | 33,8 | 24,8 | 78,2 | 36,5 | 43,7 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

**44. taula**
**Pertsonei eta familiei laguntzeko beste zerbitzu batzuk ezagutzen dituzten familia-etxe/familiak, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2019**
**(neurria ezagutzen dutenen %a)**

| | 2019 | | |
|---|---|---|---|
| | Familia-bitartekaritza | ZEUK ESAN haur/ nerabeentzako tel. | BERDINDU sexu- eta genero-aniz. |
| Motak | % | % | % |
| **GUZTIRA** | **28,4** | **20,1** | **15,9** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 21,7 | 15,6 | 12,9 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 8,0 | 0,0 | 3,1 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 14,9 | 4,1 | 1,9 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 28,7 | 20,4 | 19,0 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 32,7 | 26,6 | 29,4 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 27,2 | 18,1 | 15,2 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 34,5 | 25,7 | 18,8 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 36,1 | 26,4 | 19,8 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 29,3 | 23,6 | 15,5 |
| GURASO BAKARREKOA | 35,1 | 20,6 | 13,0 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 40,1 | 22,8 | 14,5 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 27,9 | 17,6 | 10,9 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 19,5 | 14,3 | 10,6 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

## 5.2. Familiei eta familia-etxeei laguntzeko neurrien eta programen erabilera

Azkenik, 45. taulatik 47. taulara bitartean, familiei laguntzeko programen erabilera-mailari buruzko informazioa ematen da. Hona hemen emaitza nagusiak, familia edo familia-motaren arabera:

*Familientzako laguntzak*

Askotariko neurrien (uneren bateko) erabilera-mailari dagokionez, familien % 12,1ek esan dute jaiotza edo adopzioagatiko laguntzetara jo dutela; zifra hori, argi eta garbi, 2015eko % 8,4tik gora dago.

2019an, proportzio hori % 38,2ra iritsi da mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, eta % 32,5era mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko etxeetan. % 9,2koa da nukleo anitzeko etxeetan, eta % 0,4koa gainerako etxeetan. 2015arekin alderatuz gero, proportzioa handitu egin da mendeko seme-alabak dauzkaten etxeetan; bereziki, guraso bakarreko familietan (% 16,3tik % 32,5era) eta mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan (% 25,4tik % 38,2ra).

Adingabeak zaintzeko laguntzen kasuan, 12 urtetik beherakoak zaintzeko lanaldi-murrizketa da erabiliena. 2019an, familien % 6,9k erabili dute neurri hori, 2015ean baino gehiagok (% 5). Adingabeak zaintzeko lan-eszedentziara jotzen dute % 3,4k, eta kontrataziora % 0,4k (2015ean, % 2,9k eta % 0,1ek).

Kasu horretan, familia-etxe motaren arabera, 12 urtetik beherakoak zaintzeko lanaldi-murrizketarako laguntzetara gehien jo duten familiak mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoenak dira (% 23,4k, eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familien % 11,6k). 3 urtetik beherakoak zaintzeko lan-eszedentziari dagokionez, mendeko seme-alabak dauzkaten etxeen erabilera-maila 2019an % 8,1ekoa da guraso bakarreko familietan, eta % 10,0koa gurasoen etxeetan.

Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian daudenak zaintzeko laguntzei dagokienez, baliabideak familien % 1i baino gutxiagori eragin die: % 0,9 lanaldi-murrizketan, eta % 0,5 eszedentzian (% 0,7 eta % 0,3 2015ean).

Kasu horretan, 2019an, erabilera-mailak ez du % 1,1 gainditu mendeko seme-alabak dauzkaten gurasoen etxeetan, ezta eszedentziarako laguntzetan ere (% 0,9 mendekotasuna dutenak zaintzeko lanaldi-murrizketaren programan).

*Prestazioak eta laguntza ekonomikoak*

Familien % 8,6k adierazi dute uneren batean DSBE jaso dutela, 2015eko % 9,2tik behera. Proportzioa % 3,4koa eta % 3,9koa da EPOri eta GLLei dagokienez; kasu honetan, 2015eko % 2,8tik eta % 3,6tik gora.

Familien % 10ek baino gehiagok DSBE jaso dute uneren batean pertsona bakarreko etxeetan (% 10,2), nukleorik gabeko etxe familiarretan (% 13,3) eta nukleo anitzekoetan (% 14,7). Proportzioak % 20 gainditzen du senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan (% 21,2) eta % 30 gainditzen du mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan (% 32,4).

EPOri dagokionez, proportzioak % 10 gainditzen du senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan (% 20,2) eta mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familietan (% 11,7). GLLei dagokienez,

proportzioa % 17,2ra iristen da azken talde horretan, eta % 12,2koa da nukleo anitzeko etxeetan, % 8,5ekoa senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan, eta % 7,1ekoa nukleorik gabeko etxeetan.

*Beste neurri eta programa batzuk*

Familia-bitartekaritzako zerbitzura, berriz, familien % 1,2k jo dute 2019an. Proportzioa % 0,2koa da Zeuk Esan programaren kasuan, eta % 0,1ekoa Berdinduren kasuan.

Familia motaren arabera, honako hau da deigarriena: mendeko seme-alabak dauzkaten guraso bakarreko familien % 9,9k familia-bitartekaritzako zerbitzura jo dute, eta ehuneko hori % 6,2koa da senideak ez diren pertsona anitzeko etxeetan.

**45. taula**
**Uneren batean familiei laguntzeko neurri jakin batzuk jaso dituzten familia-etxe/familiak, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(jaso dutenen %a)**

| Motak | | Seme-alabak dauzkaten familientzat | <3 urtekoak zaintzeko lan-eszedentzia | <3 urtekoak zaintzeko kontratazioa | <12 urtekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa | Mendekotasuna dutenak zaintzeko eszedentzia | Mendekotasuna dutenak zaintzeko lanaldi-murrizketa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % | % | % | % | % | % |
| 2019 | **GUZTIRA** | **12,1** | **3,4** | **0,4** | **6,9** | **0,5** | **0,9** |
| | GURASOAK, MENDEKO SEME-ALABEKIN | 38,2 | 10,0 | 1,3 | 23,4 | 1,1 | 0,9 |
| | GURASO BAKARREKOA, MENDEKO SEME-ALABEKIN | 32,5 | 8,1 | 0,0 | 11,6 | 0,4 | 0,5 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 9,2 | 0,0 | 0,0 | 1,1 | 0,0 | 0,0 |
| | BESTELAKOAK | 0,4 | 0,6 | 0,0 | 0,3 | 0,4 | 1,0 |
| 2015 | **GUZTIRA** | **8,4** | **2,9** | **0,1** | **5,0** | **0,3** | **0,7** |
| | GURASOAK, MENDEKO SEME-ALABEKIN | 25,4 | 8,9 | 0,4 | 15,6 | 0,4 | 1,3 |
| | GURASO BAKARREKOA, MENDEKO SEME-ALABEKIN | 16,3 | 4,1 | 0,0 | 7,8 | 0,6 | 3,2 |
| | NUKLEO ANITZEKOA | 11,5 | 0,0 | 0,0 | 3,0 | 2,0 | 0,0 |
| | BESTELAKOAK | 0,2 | 0,2 | 0,0 | 0,1 | 0,2 | 0,3 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

**46. taula**
**DSBE/EPO-EPE/GLL laguntzen sistemara jo duten familia-etxe/familiak, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(jaso dutenen %a)**

| | 2015 | | | 2019 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | DSBE | EPO | GLL | DSBE | EPO | GLL |
| Motak | % | % | % | % | % | % |
| **GUZTIRA** | **9,2** | **2,8** | **3,6** | **8,6** | **3,4** | **3,9** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 11,9 | 2,7 | 4,9 | 10,2 | 3,6 | 4,2 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 27,8 | 19,8 | 4,2 | 21,2 | 20,2 | 8,5 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 13,8 | 7,7 | 0,9 | 13,3 | 4,8 | 7,1 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 3,3 | 0,8 | 1,2 | 2,5 | 1,1 | 0,6 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 3,5 | 0,6 | 2,3 | 4,5 | 3,1 | 0,0 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 3,2 | 0,9 | 0,9 | 1,8 | 0,4 | 0,8 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 5,6 | 1,6 | 2,7 | 6,8 | 3,1 | 3,1 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 6,1 | 2,0 | 3,2 | 8,5 | 4,0 | 4,0 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 3,9 | 0,0 | 0,6 | 1,2 | 0,0 | 0,0 |
| GURASO BAKARREKOA | 22,5 | 7,5 | 9,2 | 21,2 | 7,0 | 10,4 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 37,4 | 13,5 | 16,9 | 32,4 | 11,7 | 17,2 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 6,6 | 1,1 | 0,8 | 5,6 | 0,5 | 0,8 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 12,6 | 4,8 | 1,4 | 14,7 | 0,0 | 12,2 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

**47. taula**
**Pertsonei eta familiei laguntzeko beste zerbitzu batzuetara jo duten familia-etxe/familiak, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2019 (jaso dutenen %a)**

| | 2019 | | |
|---|---|---|---|
| | Familia-bitartekaritza | ZEUK ESAN haur/ nerabeentzako tel. | BERDINDU sexu- eta genero-aniz. |
| Motak | % | % | % |
| **GUZTIRA** | **1,2** | **0,2** | **0,1** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 0,5 | 0,0 | 0,0 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 6,2 | 0,0 | 0,0 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 1,8 | 0,0 | 0,0 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 0,0 | 0,2 | 0,0 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 0,0 | 0,2 | 0,0 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 1,3 | 0,4 | 0,2 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 1,4 | 0,5 | 0,3 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 0,6 | 0,0 | 0,0 |
| GURASO BAKARREKOA | 5,8 | 0,3 | 0,5 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 9,9 | 0,5 | 0,9 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 0,0 | 0,0 | 0,0 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE

# ERANSKINA: TAULA OSAGARRI LAGUNGARRIAK

**A.1 taula**
**Familia-etxe edo familietako batez besteko adina, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(erreferentziazko pertsonengan eta guztizko biztanleriarengan)**

| | 2015 | 2019 | 2015 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| | Erreferentziazko pertsonak | Erreferentziazko pertsonak | Biztanleria, guztira | Biztanleria, guztira |
| Motak | Batezbestekoa | Batezbestekoa | Batezbestekoa | Batezbestekoa |
| **GUZTIRA** | **55,5** | **56,7** | **43,9** | **45,5** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 61,0 | 62,8 | 61,0 | 62,8 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 57,8 | 57,3 | 46,6 | 49,4 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 63,7 | 67,7 | 57,3 | 59,9 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 60,3 | 59,5 | 60,2 | 59,5 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 36,2 | 36,1 | 36,4 | 36,7 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 67,4 | 67,9 | 67,3 | 67,8 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN | 49,5 | 51,3 | 34,9 | 36,6 |
| Gurasoak, mendeko seme-alabekin | 45,6 | 47,3 | 30,8 | 32,3 |
| Gurasoak, mendekoak ez diren seme-alabekin | 64,5 | 64,7 | 53,0 | 53,4 |
| GURASO BAKARREKOA | 58,9 | 58,9 | 41,6 | 41,7 |
| Guraso bakarrekoa, mendeko seme-alabekin | 47,8 | 49,7 | 29,6 | 31,4 |
| Guraso bakarrekoa, mendekoak ez diren seme-alabekin | 70,8 | 71,9 | 56,2 | 58,0 |
| NUKLEO ANITZEKOA | 60,6 | 59,5 | 41,6 | 41,8 |

Iturria: FFEI 2015 eta 2019. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren EOE
1. kapituluko taulen 1.4 taulari dagokio Adierazle sozioekonomikoak FFEI 2019

**A.2. taula**
**16 eta 64 urte arteko pertsonak dauzkaten familia-etxeen/familien proportzioa, etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2015 eta 2019**
**(etxeen %a)**

| | 2015 | 2019 | 2015 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| | 16-44 urte arteko norbait | 16-44 urte arteko norbait | 45-64 urte arteko norbait | 45-64 urte arteko norbait |
| Motak | %-tan | %-tan | %-tan | %-tan |
| **GUZTIRA** | **54,6** | **50,8** | **50,7** | **51,1** |
| PERTSONA BAKARREKOA | 22,4 | 18,2 | 33,4 | 33,3 |
| SENIDEAK EZ DIREN PERTSONA ANITZEKOA | 71,4 | 65,4 | 50,2 | 51,0 |
| FAMILIARRA, NUKLEORIK GABEA | 33,1 | 24,0 | 59,1 | 61,2 |
| NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABEA | 25,0 | 29,0 | 39,5 | 36,6 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan aurrekoa | 100,0 | 100,0 | 21,0 | 16,1 |
| Ezkontzazkoa, guraso izan ondokoa | 2,9 | 3,3 | 45,0 | 44,1 |
